



Euskararen aldeko herri urratsak Ipar Euskal
Herrian; egungo mugak, indarrak eta
erronkak

Jaione Dorai Oskotz

HIZNET, Hizkuntza Plangintza graduondokoa, 2018/2019
Tutorea: Mikel Zalbide

Laburpena

Frantziar Errepublikako hizkuntza politikaren testuinguruan azken berrogeita hamar urteotan euskararen alde eginiko urratsak ez dira aski izan Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan euskararen osasuna bermatzeko. Aitzitik, lege-babesaren faltan, babes politiko eta sozial zabala lortu du euskarak Ipar Euskal Herrian, eta horren erakusle da Euskal Hirigune Elkargo osatu berriak lurraldean euskara biziberritzeko hartutako konpromisoa.

Sakontze lan honen bitartez, Ipar Euskal Herrian euskarak bizi duen egoera ulertzeko gakoak eskaini nahi dira, bereziki azken urteotan egindako urratsak azaldu eta hizkuntza politika anbiziotsua aurrera eramateko egon daitezkeen indar eta erronka nagusiak ezagutzera emateko asmoz.

Horretarako, egun euskararen errealitatearen oinarrian diren Frantziako hizkuntza politika eta azken hamarkadetan euskararen alde eginiko ibilbidea azaltzen dira, Euskal Elkargoaren sorrera eta bere hizkuntza politika proiektuaren azalpena egin eta bukatzeko, euskarak dituen aukera eta mugen inguruko ekarpen eta ikuspegi desberdinak jasotzen dira.

Trabak agerikoak izan arren, borondatea eta elkarlana oinarri duen bidearen eraikuntza partekatua da Ipar Euskal Herrian euskararen bermea.

Hitz gakoak:

Ipar Euskal Herria, Euskal Hirigune Elkargoa, euskara, hizkuntza politika

Aurkibidea

Laburpena.....	2
Sarrera.....	4
1. atala: Euskara Ipar Euskal Herrian, testuinguru orokorra.....	7
1.1. Frantziar Errepublikako hizkuntza politika.....	7
1.1.1. Hizkuntza ideologia.....	9
1.1.2. Oinarri juridikoak.....	13
1.1.3. Euskararen lege koadroa.....	17
1.2. Euskararen aldeko urratsen ibilbidea, 1960-2016.....	20
1.2.1. Euskalgintzaren aroa.....	20
1.2.2. Hizkuntza politika publikoaren lehen urratsak.....	26
1.2.3. EEPren sorrera.....	28
1.2.4. Institutuzio propioaren aldarrikapena.....	34
2. atala: Euskal Elkargoak euskara erdigunean.....	37
2.1. Euskal Hirigune Elkargoaren sorrera.....	37
2.2. Hizkuntza politikaren eskumena.....	44
3. atala: Egungo egoera, muga, indar eta erronka nagusiak.....	50
3.1. Lege-babes falta muga gisa.....	50
3.2. Kontraesanak eragindako talka nabariak.....	51
3.3. Elkargoa EEPren baitako indar.....	53
3.4. Elkargoak zabaldutako aukerak.....	55
3.6. Indargune berriak.....	56
3.7. Erronka nagusiak.....	58
3.8. Ofizialtasunaren aldarria.....	63
3.9. Esperimentazioaren bidea.....	64
3.10. Tokiko instituzioak, euskalgintza eta gizartea eskuz esku.....	66
4. atala: ondorioak.....	68
Aipamen bibliografikoak.....	69
Eranskinak.....	74

Sarrera

Aurkezpena

Lurraldetasuna eta hizkuntza bera ukatu izan dizkio luzaz frantses legeriak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoari, baina jauzi kualitatibo nabarmenak gertatu dira Ipar Euskal Herrian azken urteotan. Euskal Hirigune Elkargoaren bidez Ipar Euskal Herriko lurraldeak mapa eskuratu du lehen aldiz, eta onarpena eman dio euskarari ofizialki lurraldeko hizkuntza gisa. Baina, zer esan nahi du horrek? Zer ekarriko dio euskarari elkargoa sortu izanak? Zertan aldatzen da egoera? Juridikoki zeintzuk dira dituen aukera eta mugak? Zeintzuk dira uneotan indar eta erronka nagusiak? Zeintzuk dira euskarak aitzina egiteko jorratu beharreko bideak? Galdera hauei erantzuna emateko asmoa du sakontze lan honek.

Ipar-mendebaldeko lurretan euskarak ofizialtasunik ez duela jakiteaz haratago, Euskal Herriko gainerako herrialdeetako hiztunen begietara bereziki ezezagunak dira euskararen egoera inguratzen duten baldintzak. Zentzu horretan ekarpena egin eta tresna gisa baliatzen ahalko den euskarria sortzea dago sakontze lan hau garatzeko ideia-oinarrian.

Horrela, gaiari buruzko ezagutza handitzea da sakontze lan honen helburua, kasu honetan Ipar Euskal Herrian euskararen arloan eginiko urratsen azalpenaren bidez, gaiaren inguruko oinarritzko ezagutza orokorra lortzen laguntzea hain zuzen ere.

Metodologia

Lan hau egiteko lehen urratsa Ipar Euskal Herrian euskarak duen estatusa eta egoeraren gaineko ezagutzan sakontzeko ahalik eta informazio gehien biltzea izan da. Horretarako, Frantziako hizkuntza politika, Ipar Euskal Herria eta euskara jorratzen zituzten iturri eta material desberdinak aztertu dira: liburuak, aldizkari espezializatutako artikulak, prentsa idatziko elkarrizketa zein artikulak eta eragileen txostenak. Zehazki, Frantziako hizkuntza politikari eta eskualdeetako hizkuntzei buruzko artikulak; zuzenbideari lotutako artikulak zein lege-testuak; euskalgintzari eta bere historiari buruzko liburu, artikulak eta albisteak; Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerari lotutako txosten publiko, artikulak zein prentsako albisteak; edota Elkargoaren eta EEPren hizkuntza politika proiektuen txostenak erabili dira besteak beste.

Gaiaren literatura aztertuta, sakontze lanaren atal nagusiak identifikatu dira: testuingurua, egungo egoeraren aurrekariak eta egungo egoeraren elementu nagusiak. Gaiari buruzko ezagutza handitzeaz gain, literaturaren azterketak eremuaren inguruko ezagutza sakona zuten pertsonen

zerrenda osatzea ekarri du. Hasieran modu subjektiboan eta elur bolaren metodoaren bidez, elkarrizketetan bertan euskararen arloan erreferenteak ziren beste pertsonen izenak azaltzen joan dira behin betiko zerrenda osatu arte. Honela, euskararen egoera ikuspegi desberdinetatik sakonean ezagutzen duten sei aditu zein profesionalen ikuspegiak jasotzea lehenetsi da.

Eurekin harremanetan jarrita, egitasmoa azaldu eta parte hartzeko prestutasuna erakutsi dute denek. Norberaren esperientzia eta jakintzatik ikuspegiak ezagutzeko helburuz, elkarrizketa erdi-egituratuak egin zaizkie, euren soslaietatik abiatuz galdera aski irekiak eginez. Galdera zehatzak baino, gidoi orokor bat erabili da gai zehatz hauen inguruan: egungo egoera, prozesua, indarrak, erronkak eta aurrera begirako bideak. Bestalde, elkarrizketak grabatzeko elkarrizketatuen ahozko baimena jaso da.

Hauek dira sakontze lan honetan gaiaren aditu gisa elkarrizketatutako sei lagunak:

- **Haizpea Abrisketa**, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko langilea.
- **Sébastien Castet**, Euskal Konfederazioko langilea eta bozeramailea.
- **Sylvie Chenal**, Hego Lapurdiko herri elkargoko euskara zerbitzuko zuzendari ohia eta egun Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikako zuzendariordea.
- **Eneko Gorri**, Barritzeko herriko etxeko euskara teknikaria eta Mintzalasai elkarteko kidea.
- **Eneritz Zabaleta**, Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatean zuzenbide irakaslea eta euskararen estatus juridikoaren inguruko ikertzailea.
- **Jean-Claude Iriart**, Garapen Kontseiluko presidente ohia gizarte zibilaren izenean, Hautetsien Kontseiluko zuzendari izandakoa, Euskararen Erakunde Publikoko bultzatzailea eta lehen zuzendaria, gaur egun Baionako herriko etxeko kontseilaria eta Euskal Hirigune Elkargoko kontseilu iraunkorreko kontseilaria, EEPn elkargoa ordezkatzen duten hiru hautetsietako bat.

Elkarrizketen transkripzioak eginda, txostenaren idazketari ekin, eta ondorioak idaztea izan da azken urratsa.

Lanaren azalpena

Azken urteotan Ipar Euskal Herrian euskararen alde eginiko urratsak ezagutzera eman eta azaltzeko helburua duen sakontze lana da honakoa. Gaiak kokatzeko helburuz aurrekari edo testuinguruak irekitzen du lehen atala, Ipar Euskal Herrian euskararen egungo egoera ulertzeko oinarritzak den markoa: Frantziako hizkuntza politika eta euskalgintzak azken hamarkadetan egindako ibilbidea, hain zuzen ere.

Bigarren atalak Euskal Hirigune Elkargoaren sorrera eta honek euskarari zabaldutako bidea du hizpide, tartean, elkargoaren hizkuntza politika proiektua bera.

Hirugarren atalean, euskararen eremuan jarduten duten profesional zein adituen ikuspegia jaso da, egun euskarak bizi dituen mugak, indarrak zein erronkak hurbilagotik ezagutzeko asmoz.

Laugarren atalean jaso dira sakontze lan honen ondorioak, eta bukatzeko, azken atalean, lan hau osatzeko erabilitako aipamen bibliografikoen zerrenda.

Bestetik, eranskin gisa, egungo Ipar Euskal Herriko euskararen egoeraren datuen berri eman nahi duen atal berezia sartu da, lan honen osagarri.

1. atala: Euskara Ipar Euskal Herrian, testuinguru orokorra

1.1. Frantziar Errepublikako hizkuntza politika

Hizkuntza aniztasun handikoa da Frantziako Errepublika, Europako estaturik anitzenetarikoa, hizkuntzei begiratzuz gero. 1999an Institut National de la Langue Française erakundeko zuzendari Bernard Cerquiglinik argitaratutako *Les langues de France* txostenean 75 hizkuntza eta dialekto zerrendatu ziren orotara¹.

Zerrenda horren arabera, ‘eskualdeetako edo eremu urriko’ 24 hizkuntza eta mintzaira ditu orotara Frantziar estatuak bere lurralde esparruaren baitan. Multzo honetan, metropoliaren baitako hizkuntza gisa sailkatzen dira euskara, alsaziera, bretoiera, katalana, korsikera, flandriera eta okzitaniera, eta baita oil mintzairak eta franko-proventzera ere.

Estatu kolonialista izanik, metropolitik aldenduta baina nazio gisa nortasun politiko autonomorik gabe kontinente denetan bere menpe dituen DOM-TOM edo Itsasoz Haraindiko Departamendu eta Lurraldeetan, 50 hizkuntza baino gehiagok irauten dute bizirik. Hortaz, Frantziako Estatuko hizkuntzen bi heren kontinentetik kanpoko kolonietako hizkuntzak dira. Ozeanian: Kaledonia Berrian, Frantziako Polinesian eta Wallis eta Futunan austronesiar hizkuntzak; Kariben: Guadalupe, Martinika, San Martin eta Sanbartolome irltako antillar kreolera, Guyana Frantseseko guyanar kreolera, arawak hizkuntzak, Karibeko hizkuntzak, tupi-guarani hizkuntzak zein ingeles kreolerak; eta Ozeano Indiako ozeanoko kolonietan Reunion uharteko kreolera, bantu hizkuntzak, arabiera, edota malgaxe hizkerak genituzke.

Bestalde, berezkoak edo tokikoak izan ez arren immigrazioaren ondorioz bertakotu diren hizkuntzek garrantzia handia dute Frantziako Errepublikako errealitate soziolinguistikoaren baitan. Lurralderik gabeko gisa sailkatzen diren hizkuntzen artean daude arabiera dialektala, berbera, mendebaldeko armeniera, judo-espainola, erromani hizkuntza edota yiddish hizkuntza, besteak beste.

Arrisku egoeran

Estatuaren baitan hainbat nazio-hizkuntza egon badira ere, hizkuntza aniztasun horri zuzenbideak emandako erantzuna erabat mugagarria izan da historikoki, izan ere,

¹ Cerquiglini, Bernard (1999). *Les langues de France*, <https://www.ladocumentationfrançaise.fr/var/storage/rapports-publics/994000719.pdf>.

eleaniztasunaren aitzinean, legez hizkuntza bakarra aitortzen baitu Frantziako Errepublikak: frantsesa.

Gero eta larriagoa da politika kolonizatzaileek zein asimilatzaileek hizkuntza aniztasunari ekarritako kaltearen ondorioz aitopenik eta babesik gabe bizirik dirauten hizkuntzen egoera. Egoera lazgarri hau ez da bilakaera naturalaren ondorio, Frantziar Errepublikak aurrera daraman hizkuntza politikaren ondorio zuzena baizik.

Frantziako metropoliaren baitako tokiko edo eskualdeetako hizkuntzen egoeraren larritasunaren neurria zein den argi erakusten du Unescoren ‘Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasak’². 1992ko Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak horrela definitu zituen eskualdetako edo eremu urriko hizkuntzak: “*Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; [...] eskualdetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak*”³.

Frantziar Errepublikaren baitako eskualdeetako eta eremu urriko beste hizkuntzen gisara, egoera larria da euskararen kasuan ere. Salbu ez dagoen hizkuntza zaurgarri gisa sailkatzen du euskara Unescoren atlasak, baina arriskua mailakatu egin du, eta Hego Euskal Herrian ez bezala, Ipar Euskal Herriko eremuan euskara oraindik ere ‘arriskuan’ den hizkuntza gisa jasotzen du⁴.

2 Unescoren Munduko Hizkuntzen Atlasak: <http://www.unesco.org/languages-atlas/es/atlasmap.html>

3 Europako Kontseilua 1992-10-2, *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*, Estrasburgo, online http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/celrm_02101992_eu-2.pdf

4 Eranskinetan txertatu da egungo euskararen egoeraren datuak jasotzen dituen atal berezia, 2016ko inkesta soziolinguistikoak eta azken kale neurketak utzitako ondorioak biltzen dituena.

1.1.1. Hizkuntza ideologia

Estatu modernoaren sorrera aitzin, egoera soziolinguistikoa erabat desberdina zen egungo frantziar estatuko lurraldean. 1806an egindako biztanleen erroldaren baitan ama-hizkuntzaren inguruko inkestaren emaitzen arabera, %40 inguru ziren eskualdetako hizkuntzetan mintzo ziren herritarrak, eta biztanleriaren ia heren batek okzitaniera zuen ama-hizkuntza⁵. Estatuaren hegoaldean, beraz, okzitaniera edo oc hizkuntzak ziren nagusi, eta iparrean oil hizkuntzak (frantsesa, pikardiera, normandiera eta galoa). Periferian aldiz, euskara, katalana, flamenkoa, korsikera eta bretoiera nabarmentzen ziren.

Frantziako egoera linguistikoa oso gutxi zen ‘frantsesa’, eta horrek kezkatu, inkesta ofizial bat eratu zen errealitatea ezagutzeko, eta gaia nola kudeatu jakiteko, 1790-1792 artean. Ondorioz, Grégoire abadeak egindako txostenak⁶ etorkizunerako politikaren lerro nagusiak definitu zituen, frantsesa ez ziren gainerako hizkuntzak *patois*, herri-hizkera edo jargoitzat joaz. Hauen suntsipena garrantzizkoa zela azpimarratu zuen, besteak beste, ilustrazioaren ideiak zein erlijioaren ezagutza zabaldu, eta legediaren aplikazioa zein biztanleen zoriona bermatze aldera⁷, eta hortaz, hizkuntz-ordezkapenaren proiektuari heldu zioten bete-betean.

«1792ra arte frantses erreinuaren juntagailua, biltzailea, erregea izanen da. Erregeak biltzen ditu herritarrak, biltzen ditu herri populu ezberdinak. Erregea da batasun horren bermea. Erregea epaitu eta heriotza zigorrera kondenatu eta hilko duten heinean, juntagailu hori desagertuko da eta berri bat sortu beharko da. Sortzen ari den nazio politikoari juntagailu bat ezarri beharko zaio. Hizkuntza izango da frantses estatu nazioa sortzeko baliabideetarik lehena. Interesgarria da Grégoiren gogoetetan ikusten den ikuspegi binario hori berreskuratzea. Oso ikuspegi binario eta sinplista izanen da. Iragana aurkezterakoan feudalismoa, antzin erregimena, zapalkuntza... Eta etorkizuna, askatasuna, progresoa, ideia aurrerakoiak... Baseri munduan iraganeko ideiak, kontserbadoreak, erreazionarioak... Hiriguneetan progresoa, ideia aurrerakoiak eta beste. Eta hizkuntzekin berdin izanen da. Lekuko hizkuntzak izanen dira iraganaren lekuko, edo iraganaren gordailu, eta etorkizunarena frantsesa izango da. Frantsesa izango da askatasunaren hizkuntza⁸». (Urrutikoetxea, 2017)

⁵ Hakobyán, Seda; Solano, Alexandre (2019) *Las lenguas en el estado francés: entre el renacimiento y la desaparición*. Nabarralde. <https://nabarralde.eus/las-lenguas-en-el-estado-frances-entre-el-renacimiento-y-la-desaparicion/>

⁶ Grégoire, Henri-Baptiste, *Rapport sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser la langue française*. Txostena kontsultatzeko: DE CERTEAU, Michel; REVEL, Jacques; JULIA, Dominique (2002). *Une politique de la langue: la Révolution française et les patois, l'enquête Grégoire*, Paris, Gallimard.

⁷ Irujo Amezaga, Xabier (2016). *Genozidioaren ikuspegiaren abiapuntua Euskal Herriko historia aztertzeke eta interpretatzeko*. Nevadako Unibertsitatea, Reno. <http://www.bidebarrieta.com/aldizkaria/26/Genozidioaren-ikuspegiaren-abiapuntua-Euskal-Herriko-historia-aztertzeke-eta-interpretatzeko>.

⁸ 2017ko uztailan Iratzar fundazioarekin elkarlanean "Frantses iraultza garaiko hizkuntza politikaren ondorioak Ipar Euskal Herrian" izeneko ikastaroa antolatu zuen UEUK Baionan. Egoitz Urrutikoetxea Laskibar frantses iraultzaren hizkuntza politika eta euskara aztertu zituen master amaierako lanean. Urrutikoetxeari eginiko elkarrizketa: https://kazeta.naiz.eus/eu/info_kz/20170713/bizi-dugun-hizkuntza-egoera-ez-da-istripu-baten-emaitza-baizik-eta-planifikatua-izan-den-zerbaitena

‘Vergonha’

Nazioaren ikurtzat frantsesa hartu izanak hexagonoko gainerako hizkuntzen bazterketa ekarri zuen, eta bazterketarekin batera erasoak babestera etorriko ziren argudio sorta baten adierazpena ere bai⁹. Nazio ezberdinen identitate historikoak ezabatu eta legeriak eremu publikoan frantsesaren derrigortasuna bultzatzeaz batera, nazio-hizkuntzen ospe-galtzea bultzatu zen, hauek dialekto edo tokiko-mintzaira soil gisa hartuz.

Deskolonizazioaren aroan eta nazio mugimenduak indartuz doazen garai historikoan, bereziki hezkuntza sistemaren bitartez¹⁰ frantsesa lehen hizkuntza bihurtzeaz batera, tokiko hizkuntzen erabilera bera kaltegarria zela zioen estigma zabaldu zen, irakaskuntzaren munduan herri-hizkuntzak mintzatze soila zigortuz. Frantsesez mintzatu ezean, ikasleei zigor fisiko eta psikologikoak ezartzeak umiliazio eta laido sentimendua sortu zuen hizkuntza-komunitate desberdinengan, okzitanieraz ‘vergonha’¹¹ deiturikoa ekarriz. Planifikatutako prozesu honek ordezkatzeko-linguistiko orokorra ekarri zuen epe laburrean.

Hizkuntza batasuna, Estatu batasuna

1791tik izandako hamasei konstituzioetan Frantziak ez du hizkuntzaren estatusa arautu, 1992ko konstituzio aldaketa arte, ezta gaiari buruzko aipamenik egin ere. Datu hau deigarria suertatu badaiteke ere, argi erakusten du egungo Frantziaren hizkuntza politika oinarri duen ideologia¹² bereziki errotua zela aurreko mendeetatik, izan ere, Frantziako Errepublikak hizkuntza politika argia eraman izan baitu aurrera, zentralismo politikoaren ideologiaren ikur gisa. Horrela, frantsesa Errepublikaren hizkuntza zela baieztatu baizik ez zuen egin 1992ko Konstituzioak, estatu eredu baten tradizio luzearen formalizazioa ekarriz, Frantzian estatu-hizkuntza ofiziala zein zen inolako zalantzarik egon ez zedin.

«Erregetzan bereizketa hizkuntza ezagutzaren arabera egiten zen heinean, edozein eskualdetan norbaitek bazuen pretentsioa kategoriaz sozialaz edo eskala sozialean igotzeko ezinbestean frantsesa eta latina ikasi behar zuela. Hori hein batean erregetza garaian ere barneratua zuen herritargoak, baina agian beharrik ere ez zuten sentitzen, egoera bestelakoa zelako, eta agian bakoitzak bere eskualdean, bere herrian bazuelako bizibidea. Iraultzarekin gauzak aldatzen joanen dira eta hori indartu egingo da. Norbait bilakatzeko asmotan dagoen horrek fite ulertuko du frantsesaren beharra eta bere lekuko hizkuntza baztertzearen beharra. Iraultzarekin hori sistematizatu egingo da. Hor badira bi norabide: Frantses hizkuntza goitik behera ezarri da, goitik behera inposatu da, eremu bat uniformizatzeko, nazio estatua eraikitzeko, baina behetik gorako dinamika bat eragin du horrek ere. Egoera bat sortu du non denbora iragaiten joan ahala herritarrek barneratu dute beren hizkuntzari, beren nortasunari bizkarra eman beharra, -batez ere XIX, XX. mendera heltzean- etorkizun bat izateko. Luze joan den ibilbide bat da, baina

9 Erize, Xabier (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863-1936*. Hizkuntza ideologia, 190. orr. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier_Erize_Etxegarai_TESI.pdf

10 Armendariz Iztueta, Paulo (2016). *Hizkuntza-asimilazioa eta hezkuntza-sistema Euskal Herrian*. Donostia, Ultriusque Vasconiae. <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/28841/Hizkuntza-asimilazioa%20eta.pdf?sequence=2&isAllowed=y>

11 Vergonha: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Vergonha>

12 Uriarte Ricote, Maite. *Hizkuntza-Ideologia*. Auñamendi Entziklopedia [on line], 2019. [Kontsulta data: 2019ko maiatzak 19]. Eskuragarri hemen: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-ideologia/ar-152150/>

jendearen buruetan sartu dena eta konplexuak eragin dituena. Gaur arte konplexuak eta ondorioak utzi ditu». (Urrutikoetxea, 2017)

Frantses iraultzak, proiektu nazionalari erantsi zizkion oinarri ideologiko berberak aplikatu zizkion hizkuntzari. Nazio bat, bakarra eta zatiezina eraikitzea zen helburua, eta gaur egungo historian eragin orokorra izan duen nazio-estatuaren eraikuntzaren eredia eskaini zuen. Hizkuntzaren arlorra etorrita, Frantziako hizkuntz politikarako eredia nazio-estatuarena bezain garbia izan dela esan dezakegu: hizkuntza bakartasunean oinarritu da Errepublikaren nortasunaren eraikuntza. Frantziako Errepublikaren printzipio politiko nagusietan oinarritzen da elebakartasuna, eta frantsesa nortasun errepublikazalearen adierazpena izanik, hizkuntza batasuna Estatu batasunaren izenean ezarri da.

Nazio bat, hizkuntza bat, batasuna da berdintasunaren oinarria. Batasuna sustatu da batuketaren ordean, prozesu homogeneizatzaile sakon baten bitartez. Estatu-nazioak hizkuntzaren eta kulturaren batasuna bilatzen ditu, modu horretan hiritar guztiak berdina bihurtzeko. Batasun nazionalaren izenean gizarte homogeneoa bultzatu da. Horrela, ikuspegi juridikotik abiatuta, Frantziako Estatuak ez du hizkuntza komunitaterik ezta hizkuntz talde gutxiturik aitortzen, ez da aintzat hartzen modu kolektiboan balia daitezkeen eskubiderik, ezagupen horrek 'hiritarren berdintasuna' urratuko lukeelakoan.

Lau osagai nagusi bereizten dira Frantziaren hizkuntza politikaren oinarrian: batetik, estatua, nazioa eta hizkuntza berdintzen dituen ideologia; bigarrenik, hizkuntza estatu-aferra bihurtzen duen hizkuntz-politika aktibo eta eraginkorra; hirugarrenik, nazio-hizkuntza gisa hautatu den horren aldeko apustu argia; eta laugarrenik, nazioaren batasunaren oztopatzailetzat harturik, estatuaren barne diren gainerako hizkuntzak ezabatzeko joera. (Urrutikoetxea, 2017)

Ez lehiakiderik, ezta bariaziorik ere

Frantziako batasun linguistikoaren bi alderdi nagusiak honela laburtu daitezke Henry Boyer soziolinguistaren arabera¹³: hizkuntza nazionalarekiko lehiakiderik eza, (hizkuntza nazionalak ez baitu beste hizkuntza baten lehiarik onartzen) eta erabilera legitimoarekiko desbideraketarik edo bariaziorik eza (hizkuntzaren erabilpen uniformearen egiteagatik obsesioa gailentzen da, arau legitimo bakarra dago, eta horrek dakar beste bariazio guztiak oso estigmatizatuak egotea). Hainbat tresna erabiliz, hizkuntza frantsesa erlijioa bailitzan finkatu zela dio, eta hizkuntzaren 'perfekzioaren aurkako mehatxu' gisa agertzen zen guztia arbuiatu, baztertu egingo zen bere arabera. (Boyer, 2001).

¹³ Boyer, Henry (2001). *Frantziako hizkuntza politika(k) epe luzera: alde sendo eta ahula. BAT aldizkaria, 38. alea.* Eskuragarri hemen: <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/873>

‘Glotofobia’ kontzeptua edo hizkuntza diskriminazioa aipatzen ditu Philippe Blanchet soziolinguista eta eremu frankofonoetan dagoen hizkuntza aniztasunean espezialistak.

“Frantzia ezagutzen diren kasuetan okerrenetakoa da: beste herrialde askotan baino azkarragoak dira hizkuntza bateratuaren ideologia, beste hizkuntzekiko mespretxua eta hizkuntza eskubideen ukapena. Araua diktadura linguistikoa da, eta hizkuntza eskubideak gauzatzea borroka bat da.”¹⁴ (Blanchet, 2017)

Hizkuntzaren arazoa kontu estrukturala dela dio, nolabait frantsesa hizkuntza erlijio bilakatu baita: *“sokratua balitz bezala gurtzen da, ukitu ezina da, zalantzan eman ezin daiteke, jainko bat bezalakoa da.”*

Jean-Baptiste Coyos euskal soziolinguistaren arabera, azken hogeitau huetan Frantzian estatuaren hizkuntza ideologia ofiziala pixkanaka aldatzen joan dela nabarmentzen da, betiere frantsesaren lehentasuna baieztatzen delarik¹⁵. Inolako legezko testutan hizkuntzen lurraldetasuna baieztatu ez arren, zeharka onartua dela dio Coyosek, 2005ean aldatua izan zen Hezkuntzaren Kodeak *“L’enseignement des langues et cultures régionales”* deritzon L312-10 artikuluan adibidez:

“Eskualdetako hizkuntza eta kultura irakaskuntza eman daiteke eskola-ibilbide osoan zehar, estatuaren eta lurralde-kolektibitateen arteko hitzarmen baten bidez finkatuak diren modalitateen arabera, hizkuntza horiek erabiliak diren eskualdeetan.”

Horrela, *“emeki eta baratxe izanik ere, frantsesaren lehentasuna printzipio nagusia egonik”*, estatuaren hizkuntza-ideologia eskualdetako hizkuntzen mesederako era baikorren aldatzen ari dela baieztatzen du Coyosek¹⁶.

14 Rennes II unibertsitateko soziolinguistika ikertzaile Philippe Blancheti elkarrizketa: https://www.naiz.eus/en/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-12-02-06-00/hemeroteca_articles/gltofobia-hizkuntza-diskriminazioa-da-xenofobia-edo-homofobia-bezalako-diskriminazioa

15 Coyos, Jean-Baptiste (2010). *Frantziako estatua eta eskualdetako hizkuntzak: 1990-2010*. Bat Soziolinguistika aldizkaria 76, 87-99. orr

16 Idem

1.1.2. Oinarri juridikoak

Kontseilu Konstituzionaleko jurisprudentziaren arabera, hizkuntza gutxituetako hiztunei hizkuntza eskubideak aitortzea Errepublikaren banaezintasunaren, berdintasun printzipioaren eta herri frantsesaren batasunaren aurkakoa da. Frantziako zuzenbide modernoan, hortaz, bi dira hizkuntzen erabileraren inguruko oinarri juridikoak: frantsesaren nahitaezko erabilera eremu publikoan eta frantsesa ez den beste hizkuntzak erabiltzeko eskubidearen ukazioa, bai maila kolektiboan zein indibidualean (Zabaleta, 2013). Azken hau epaileen aginduz garatua izan da sarri.

Hizkuntzari buruzko legeria, eskasa izateaz gain, norabide bakarrekoa da Frantzian, eta edozein kasutan, Errepublikako hizkuntza lehenestea eta sendotzea du helburu. Hartara, frantsesa ez diren beste hizkuntzak erabiltzeko askatasuna legeak arautzen ez dituen eremuetara mugatuko da, edota, frantsesaz gain beste hizkuntzen erabilera ere baimentzen edo toleratzen duten eremuetara (Coyos, 2016)¹⁷. Gauzak horrela, eskualde hizkuntzatzat jotzen diren hizkuntzen estatusa oso prekariora da, beraz, marko juridikorik gabe, ez baitute batere egonkortasunik.

1992ko Konstituzioaren aldaketa

Frantziar Errepublikaren 1958ko konstituzioaren 1. artikulua zera dio: *“Frantzia Errepublika zatiezin, laiko, demokratiko eta soziala da. Herritar guztien legegikiko berdintasuna ziurtatzen du, jatorri, arraza ala erlijio berezitasunik gabe. Sineste guztiak errespetatzen ditu (...)”*. 2. artikulua¹⁸ bandera, ereserkia eta *‘Askatasuna, berdintasuna, elkartasuna’* dioen goiburua hasieratik zehazten zituen arren, 1992. urtera arte ez zen hizkuntzaren inguruko aipamenik ere egin konstituzioan.

Frantziaren bateratze eta zentralizazio politikoaren oinarri izan da frantsesa, baina frantses hizkuntzaren hegemonia testu juridikoetatik kanpo gauzatu da luzaz, 1992ko Konstituzioaren aldaketa arte ez baitzen existitu frantsesaren erabilera arautzen zuen testu juridikorik. Europar Batasunaren sorrera eragin zuen Maastrichteko Ituna berresteko aldaketa konstituzionalaren harira sortutako subiranotasunaren inguruko eztabaida bizien testuinguruan, ingelesaren eraginaren aurka egiteko helburuz txertatu zen lehenengoz konstituzioan frantsesari ofizialki erreferentzia egiten dion 2. artikuluko puntua: Errepublikako hizkuntza frantsesa dela zehazten duena.

¹⁷ Coyos, Jean-Baptiste (2009). *Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak*. Bat Soziolinguistika aldizkaria, 70 alea, <http://www.soziolinguistika.eus/files/02%20B%20Coyos.pdf>

¹⁸ La Constitution de la Cinquième République française-1958 (1948), 2. artikulua.

Lamassoure-Toubon legea

Konstituzioaren 2. artikulua aplikazio-arauak zehazteko, 1994an sartu zen indarrean frantsesaren erabileri buruzko Lamassoure-Toubon legea¹⁹. Honakoa adierazten du bere lehen artikulua: *“Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasuna eta ondarearen oinarritzko osagaia ere bada. Horixe da hezkuntzaren, lanaren, trukeen eta zerbitzu publikoen hizkuntza (...)”*²⁰.

Ondorioz, frantsesaren nahitaezko erabilera finkatzen da, eta derrigortasuna eta bakartasuna ematen zaizkio bizi publikoko hainbat eremutan: administrazioan, hedabideetan, zerbitzuetan edota irakaskuntzan, dokumentu, jarraibide, iragarki, argitalpen, hitzarmen, emankizun, ikuskizun, eta gertakari mota desberdinak aipatuz 13 artikuluan zehar. 16. eta 17. artikuluetan arau-hauste zigorrak ere zehazten dira.

Toubon legeko 21. artikulua²¹ zera zehazten du: *“Lege honen xedapenak aplikatzen dira Frantziako eskualde hizkuntzei aplikatzen zaien legeria kaltetu gabe, eta haien erabilera trabatu gabe”*. Hala ere, artikulua horrek ez du eraginkortasunik, ez baita tokiko hizkuntzei buruzko araudirik. Horrela, lege honek ez ditu berez tokiko hizkuntzak baztertzen, eta hauekiko tolerantzia izpiritu bat²² agertzen duela esan genezake.

Zerbitzu publikoan frantsesa ez den beste hizkuntza bati erabilpenerako tartea irekiz, Konstituzioaren 2. artikulua xedapenak 1789ko eskubideen deklarazioaren 11. artikuluaekin kontziliatu zuen Konstituzio Kontseiluak, adierazpen eta komunikazio askatasun konstituzionalarekin, hain zuzen ere. Kontziliazio juridiko horren baitan, Konstituzio Kontseiluak, 1994an lehenik eta 1999ko epai erabakian gero, frantsesaren erabilpen eksklusiboa lausotu eta beste hizkuntzen erabilera onartu zuen, adierazpen askatasunaren izenean. Horrenbestez, hautazkotasuna²³ baldintza nagusi gisa kokatuz, frantsesaren presentzia segurtatuz gero, eskubiderik sortzen ez zuen kasuetan, modu esplizituan zehaztu zituen beste hizkuntzen erabilpena onartua duten eremu publikoko esparruak: itzulpen zerbitzuak, irakaskuntza, ikerkuntza eta ikus-entzunezko komunikazioa.

Horrela, frantsesa ez diren hizkuntzen erabilera ahalbidetu zen baldintzapean, esplizituki zehaztutako eremu horietan, ‘tolerantzia konstituzionala’ delako salbuespen egoera sortuz eta

19 Loi n. ° 94-665 du 4 août 1994 relative à l’emploi de la langue française.[Frantsesaren erabileri buruzko legea], <http://www.culture.gouv.fr/culture/dglf/lois/loi-fr.htm>

20 Euskaltzaindia, Hizkuntza-zuzenbidea: testu bilduma euskaraz. Frantziako Errepublika, 7. atala. Online https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1400&task=hizkuntzaZuzenbidea&lang=eu-ES&kodea=07

21 Idem

22 Etxandi, Argitxu (2017). *Euskararen estatusa: legezko koadroa eta aukerak*. In *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*. Bilbo, Euskaltzaindiaren Jagon Saila.

23 Hiritarren berdintasuna ez urratzeko, eskualde hizkuntzen erabilpenak ez du sekula derrigorrezkoa izan beharko, eta hipotesia guztietan hautazkoa izan beharko du.

horren oinarriak konstituzioan bilatzea nekeza izanda ere, epai-erabakiek baieztatu ez arren, praktika administratibo eta politikoan aplikatuz (Zabaleta, 2013).

Hizkuntza eskubideei dagokionez, Konstituzioaren 2. artikulua ez du ahalbidetzen frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabiltzeko eskubide indibidualik, hortaz, ezin zaio kolektibo bati frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabiltzeko eskubiderik aitortu. Errepublikak hizkuntza ofizial bakarra onartu eta ez du legez beste hizkuntza komunitaterik aitortzen, errepublikako hiritarren arteko berdintasunaren eta subiranotasunaren zatiezintasunaren defentsan.

Tolerantziak zenbait zirrikitu ahalbidetu baditu ere, ingelesaren eraginaren aurrean ‘frantsesa babestu eta bizirik irautea bermatzeko’ sortutako legeriak oro har ondorio zuzen eta kaltegarriak ekarri dizkie eskualdeetako hizkuntzei (Coyos, 2010)²⁴, sistematikoki baliatu izan baita euren erabileraren aurka jotzeko.

Hizkuntzen Europako Karta

1992an onartu zen Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna²⁵. Europako eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko legezko tresnarik garrantzitsuena dugu akordio hau, gutxiengoaren hizkuntzen babesaren alde egiten duen nazioarteko hitzarmen lotesle bakarria delako.

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzen ditu, hizkuntza horiek mehatxupearan dauden Europako ondare kulturaltzat hartzen baititu. Nazioarteko itunak aurrerapauso handia ekarri zuen eremu urriko hainbat hizkuntza babestu eta sustatzeko, hala eta guztiz ere, 1998tik goiti indarrean den arren, lan handia dago oraindik egiteko ituna berretsi duten herrialdeetan ere egun dirauen bidegabekeria nabarmena gainditzeko (Ramallo, 2017)²⁶.

Frantziaren kasuan, Europako kartako 39 neurri onargarriak izanda ere, Errepublikako Konstituzio Kontseiluak 1999ko ekainean erabaki zuen ezin zuela Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi, konstituzioaren lehen bi artikuluekin bateragarria ez zela eta. Izan ere, erakunde horren argudioen arabera: hizkuntzen lurraldetasuna errepublikaren batasunaren aurka doa (konstituzioaren 1. artikulua); hiritarren berdintasun printzipioaren ondorioz, hiztun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak dira (1. artikulua); eta frantsesa

24 Coyos, Jean-Baptiste (2010). *Frantziako estatua eta eskualdeetako hizkuntzak: 1990-2010*. Bat Soziolinguistika aldizkaria 76, 87-99. orr <http://www.soziolinguistika.eus/files/Jean-Baptiste%20Coyos.%20Frantziako%20Estatua%20eta%20eskualdeetako%20hizkuntzak....pdf>

25 *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*, Estrasburgo 1992-X-2, online: http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/celrm_02101992_eu-2.pdf

26 Ramallo, Fernando (2017). *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 25. urteurrena*. Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 103. alea. http://www.soziolinguistika.eus/files/fernando_ramallo_bat103.pdf

bizi publikoaren hizkuntza izanik, eskualdetako hizkuntzen erabilera publikoa ez da onargarria (2. artikulua).

Frantziak ez dio jarraitu egun Europan nagusi den bideari, eta nazioartean eskualdeko edo gutxiengoaren hizkuntzak babesteko itun zein protokoloak sinatzen ari diren bitartean, oinarrizko hizkuntz-eskubideak bermatzeko neurririk ez hartzea erabaki du, nazioartean gutxiengoaren eskubideak babesteko legeria bera ere bere egin gabe. Horrela, nazioarteko estandarren kontra jo arren, Frantziako Errepublikaren baitan ematen diren hizkuntz-eskubideen urraketa kasuek ez dute juridikoki Frantziako Errepublikako legerik urratzen (Kasares, 2004)²⁷.

Eskualdetako hizkuntzak ondare

Frantses konstituzioak 2008tik goiti jasotzen ditu, lehenengoz, eskualdeetako hizkuntzak. Lurralde-kolektibitatei buruzko konstituzioaren 75. artikuluari emendakina egin zioten 2008ko uztailean, ‘eskualdetako hizkuntzen’ aipamena erantsiz 75-1 artikuluan²⁸: “*Eskualdeko hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte dira*”.

Frantziako ondareztat izendatu arren, aipua eransteak ez du lege-eraginik izan, eta frantsesa ez diren beste hizkuntzek ez dute lege aplikaziorik. Ondare gisa aitortuta ere, indarrean den bigarren artikulua argi uzten duen moduan, frantsesak Errepublikako hizkuntza bakarra izaten jarraitzen du, frantsesa besteen gainetik ezarriz eta eskualdetako hizkuntzak maila apalagoan kokatuz.

75-1 artikulua ez zien eskualdetako hizkuntzen hitzunei eskubide berririk onartu, herri hizkuntzak erabileran nolabait onartuago izatea eragin zuen arren. 2008tik aurrera ezarritako tolerantzia inplizituak zirrikituak eskaini izan ditu, eta baita zenbait aurrerapauso ekarri ere, baina modu lausoan betiere, toleratzea eta babestea ez baita gauza bera (Zabaleta, 2009).

Lege-testuak

Konstituziotik at, irakaskuntzarekin dute zerikusia eskualdeetako hizkuntzei buruz indarrean diren lege edo testu juridiko gehienek. 1951ko tokiko hizkuntza eta dialektoen irakaskuntza legea, Deixonne legea²⁹, izan zen nahierarako irakaskuntza gisa lehen aldiz tokiko hizkuntzen eta dialektoen ikastea baimendu zuen legea, eta egun hezkuntzaren arloan indarrean diren lege-

²⁷ Kasares, Paula (2004). *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian: zer eskubidez ari garen eta zertan diren*. Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 31. zenbakia. Bilbao, Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua. 43-55 orr. <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/cuadernosdcho/cuadernosdcho31.pdf>

²⁸ Euskaltzaindia, Hizkuntza-zuzenbidea: testu bilduma euskaraz. Frantziako Errepublika, 7. atala. Online https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1400&task=hizkuntzaZuzenbidea&lang=eu-ES&kodea=07

²⁹ Bretoiera, euskara, katalana eta okzitaniara irakaskuntzan sartzeko lehen urratsa izan zen hau, hainbat urtez ondoriorik gabe egon zen arren. Beranduago, 1982ko Savary zirkularra eta 1998ko Bayrou zirkularrak ahalbidetu zuten irakaskuntza elebiduna, betiere gurasoek hala eskatzen eta aldarrikatzen zutenean.

testuak biltzen dituen ‘Hezkuntzaren Kodea’³⁰ deiturikoan ditugu eskualdeetako hizkuntzen irakaskuntzari buruzko xehetasunak. Kodean, L312-10 artikulua aitortzen duenez, *“eskualdeetako hizkuntza eta kultura irakaskuntza eskola-garai osoan eman daiteke Estatuaren eta hizkuntzak edo kulturak erabiltzen dituzten lurraldeetako kolektibitateen arteko hitzarmenean zehaztutako modalitateen arabera”*³¹.

Irakaskuntzatik at, 1986ko Komunikazio Askatasunari buruzko hedabideen inguruko Léotard legea da eskualdeetako hizkuntzei buruz aipamenen bat egiten duen bakarra, modu orokorrean zehaztuz besteak beste, ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoak frantsesaren sustapena ziurtatzen duela, erregioetako nahiz tokietako kultura eta hizkuntza-ondarea balioesten duela, eta jatorrizko bertsiozko obretan izan ezik, frantsesaren erabilera beharrezkoa dela.

1.1.3. Euskararen lege koadroa

Frantziar Estatuak, *“bere tradizio zentripetu eta jakobinoaren, eta indar zentrifuga berrien aldeko talka kudeatzeko”* tolerantzia politika aplikatu duela azaltzen du Eneritz Zabaletak³², euskararen estatus juridikoaren inguruko aditua den Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak.

Adituaren esanetan, tolerantzia hori eskualde bakoitzaren indar korrelazioen arabera egokitu izan du Errepublikak, eta iparraldearen kasuan, hizkuntza politika instituzional bat plantan ezartzeraino joan dela nabarmentzen du. Estatuaren aldetik euskararen erabilpenak eta transmisioak tolerantzia politiko geroz eta handiagoa izan arren, tolerantzian oinarritutako hizkuntza aniztasunaren kudeaketa mota horren balantze gisa, muga sakon eta ahulezia larriak azpimarratzen ditu Zabaletak:

“Hizkuntzen erabilpenak zerbitzu publikoan oso marko juridiko argia dauka frantziar Estatuan. Alde batetik, frantsesaren erabilpena derrigor bihurtu dute hainbat testu konstituzional, legislatibo eta epai erabakik. Bestalde, frantsesa ez den beste hizkuntzetako hiztunen eskubideak ukatuak dira, izan arlo indibidualean zein kolektiboan. Frantsesaren erabilpen derrigor eta elebakar horren ondoan, oso nekeza da beste hizkuntzek espresio bideak topatzea zerbitzu publikoan” (Zabaleta, 2017)³³.

Zerbitzu publikoan frantsesaren erabilpen elebakarrak araubide sendoa daukan arren, kontzilio juridikotik etorritako irekidura edo salbuespena suposatzen duen tolerantzian

30 Code de l'éducation, 2000. Online, <https://www.legifrance.gouv.fr/affichCode.do?cidTexte=LEGITEXT000006071191>

31 Euskaltzaindia, Hizkuntza-zuzenbidea: testu bilduma euskaraz. Frantziako Errepublika, 7. atala. Online https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1400&task=hizkuntzaZuzenbidea&lang=eu-ES&kodea=07

32 Zabaleta, Eneritz (2015). *Euskararen erabilpena zerbitzu publikoan: arauak eta praktikak*. Udaltop, Udaletako euskara zerbitzuen topaketak, 2015.

<http://www.udaltop.eus/documents/192363/260611/Eneritz.pdf/3687c9fc-66ab-43dc-a09b-dc24c44a88b2>

33 Idem

oinarriturik, beste hizkuntzak erabiltzeko espazioak ez daude erabat itxita. Konstituzio Kontseiluak adierazpen eta komunikazio askatasunaren izenean, irakaskuntzan, ikerkuntzan, ikus-entzunezko komunikazioan eta itzulpenen bidez, euskara eta beste hizkuntzen erabilpena baldintzapean onartu zuen, baina honi lotuta, tolerantziaren “gris ilunak” aipatzen ditu Eneritz Zabaletak, euskararen estatus juridikoaren inguruko ikertzaileak:

“Lehenik eta behin, praktikan tolerantzia hori aplikatzeko zailtasunak agerikoak dira. Ez da batere erraza, eremu publikoan frantsesaren erabilpen derrigorra hain azkarki proklamatu denean (Konstituzioan, legean eta jurisprudentzian), beste hizkuntza baten erabilpena aldarrikatzea, aukera hori zuzenbidean espreski agertzen ez den tolerantzia inplizitu batean oinarritzen denean. Nolabaiteko desoreka bat sortzen da marko juridikoari dagokionean, eta zerbitzu publikoan euskara erabiltzeko aukera eskatzerakoan, oinarri gisa har daiteken testu falta oso trabagarria da”. (Zabaleta, 2017)

Tolerantzia orokor horrek juridikoki dituen ahuleziak azpimarratzeaz gain, Zuzenbide Estatuaren ikuspegitik ere, Zabaletak bereziki kritikatzeko du tolerantzia horren existentzia, izan ere, honek atea zabalik uzten baitizkie autoritate administratiboek, eremu publikoan euren irizpideen arabera frantsesa ez den beste hizkuntzen erabilpena onartu ala errefusatzeko:

“Inolako argudiorik eman beharrik gabe, denboran zehar praktika batzuk onartu ala errefusatu ditzakete. Eskala hierarkikoaren arabera ere, maila lokalean onartua den praktika bat, eskualde mailan errefusatu izan daiteke, frantsesaren derrigortasuna aldarrikatzen duen marko juridikoan babesturik. Administrazioak, ohiko zuzenbidetik harago doan botere diskrezionario bat dauka. Horrela, ez da batere bitxia auzapez batek ezkontza bat euskaraz ospa dadin onartzea, eta ondoko herriko auzapezak aukera hori errefusatzeko, inolako fundamentu juridikorik eman beharrik gabe. Zerbitzu publiko batzuetan ere, zuzendari berri bakoitzak bere irizpide linguistikoak finka ditzake. Zuzendari batek, bere zerbitzuan euskararen erabilpena onartuko duenean, haren ordezkioak egun batetik bestera aukera horiek ezeztatu ditzake. Ez da bitxia ere, administrazio berak, lurralde batean frantsesa ez den hizkuntza baten erabilpena onartzea, eta beste lurralde batean erabilpen hori errefusatzeko. Adibidez, posta zerbitzuan Nanteseko posta zuzendariak, helbideak bretoienez idatzirik zituzten gutunak garraiatzea errefusatu ahal izan zuen, beste eskualde batzuetan euskaraz edo korsikeraz idatzitako gutunak garraiatuak direnean”. (Zabaleta, 2017)

Egoera horrek tolerantzia printzipioa bereziki hauskor egiten duela azaltzen du Zabaletak, eta frantsesa ez den beste hizkuntzen erabilpena inolako argudio eta oinarri juridikorik gabe egonda, arlo honetan autoritate administratiboek ere neurritz kanpoko boterea ematen zaiela nabarmentzen du:

“Baldintza horietan, ugariak dira euskararen aldeko hizkuntza politikaren eta autoritate administratiboaren arteko talkak. Zerbitzu publikoaren hainbat arlotan, euskararen erabilpena sustatzea du helburu hizkuntza politika proiektuak. Neurri zenbait praktikara emateko orduan, baina, hainbat tentsio gune izan ditu, autoritate administratiboekin. Irakaskuntzaren kasuan, murgiltze pedagogia eskola publikoetara zabaltzea da helburuetako bat. Alta, Estatu Kontseiluak 2002ko epai erabaki batean, murgiltze ikastetxeak eskola publikotik kanpo egon behar zirela epaitu zuen «eskualde hizkuntza ezagutzeko beharretatik harago» zihozela epaituz, eta frantsesa irakaskuntzaren hizkuntza dela dion xedapen legislatiboak onartzen dituen salbuespenak baino urrunago zihozelako. Parisko Familia Kutxak ere bere kezka adierazi du euskara hutsean funtzionatzen duten hartzaindegiekin. Bi kasu horietan, hizkuntza politika aplikatu ahal izateko, esperimentazio protokolo bitartez bideratu dira Euskararen Erakunde Publikoaren eta konpetentzia den administrazioaren arteko hitzarmenak. Beste kasu batean, autoritate administratibo batzuek haien errefusa eman dute, euskara zerbitzu publiko batzuetan erabiltzeko hitzarmenen aurrean”. (Zabaleta, 2017)

Tolerantzia horrek ere bere ahulezia juridikoa agerian utzi du hainbat kasu epaitegietara iritsi direnean, izan ere, Konstituzio Kontseiluak baimentzen dituen eremuetatik kanpo euskararen erabilpena auzitara iristean, epaileak beti egin izan baitu frantsesaren erabilpenaren alde. Zabaletaren hitzetan, eremu publikoan frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabili ahal izateko, oinarri juridiko ahulak dira nagusi, eta autoritate administratiboen tolerantzia politikak, hauskortasuna eta juridikoki segurtasunik eza sortzen dute. Euskararen aldeko neurriak hartzeko segurtasun juridiko aldetik dauden gabezia horiek arduradun politiko lokalak usu mugatu izan dituela aipatzen du Eneritz Zabaletak, euskararen aldeko ekintza eta politika zehatzak abiatzeko garaian.

Ondorioz, tolerantzia honek ez du beharrezko bermerik ematen euskararen erabilpena sustatu nahi duen hizkuntza politika bat martxan jartzeko, eta adituaren ustez, *“agerikoa da maila juridikoan aldaketen beharra dagoela, zerbitzu publikoan euskararen erabilpena modu indartsuan eta juridikoki seguruan bermatu eta sustatu nahi bada”*.

1.2. Euskararen aldeko urratsen ibilbidea, 1960-2016

Herritar euskaltzaleen, elkarten zein hauek osatutako mugimendu herritarren ekimena dago Iparraldean euskararen alde egindako urrats bakoitzaren atzean. Bertako baldintza juridiko, sozial, ekonomiko eta politikoak etengabe hobetu eta eraiki nahian aritu izan diren gizarte eragileak izan dira euskararen egoeraren garapenaren berme nagusi.

Horrela, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako hizkuntza politika publikoaren sorrera zein bilakaera ezin dira ulertu euskalgintzaren historiari begiratu gabe, herri mugimendua izan baita kontzientzia hartu eta auzolana eta militantziaren bitartez oztopo ororen gainetik kultura eta hizkuntza bizirik mantendu dituen, zenbaitetan inolako laguntzarik gabe eta hainbatetan oso gutxirekin ere, lan handia egin daitekeela erakutsiz.

Euskalgintzak abiatu eta indartutako ibilbidea izan da ezberrik gabe, euskara egundaino ekarri duena. Azpimarratzekoa da instituzioetan lortutako urrats bakoitza herri mugimenduak egindako eskabide, presio eta mobilizazioei esker etorri dela, eta iparraldeko gizartearen engeiamenduaren isla dela euskararen egoeraren bilakaera bera. Azken hamarkadotan Ipar Euskal Herrian euskararen alde eginiko urrats eta lorpen nagusiak azaldu nahi dira atal honen bitartez.

1.2.1. Euskalgintzaren aroa

XIX. mendearen bigarren erdian osatu zen Iparraldeko euskalgintza³⁴. Zaldubiren garaietatik, Frantziako Errepublikak bultzaturiko zentralizazio linguistikoaren aitzinean, 1960. hamarkada inguruan bigarren loraldia bizi izan zuen euskararen aldeko mugimendu kultural eta sozialak, eta euskaltzaletasunaren bigarren pizkunde honekin batera hasi ziren sortzen euskararen aldeko lehenbiziko herri ekimenak.

«1960 hamarkadan, Euskal Herri osoan, euskal kultura eta nortasunaren II. Pizkunde bat bizi izan zen. Literaturan, kantagintzan, bertsolaritzan edo antzerkigintzan... euskarazko sorkuntzaren loraldi eta modernizazio handi bat hasi zen. Fenomeno horrek bere eragina izan zuen Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan. Euskal abertzaletasunaren ideia lehen pausoak eman ziren».
(Zabaleta, 2014)

1960. hamarkadan hasi zen egituratzen euskararen aldeko mugimendua Ipar Euskal Herrian. Enbata mugimenduari loturik abertzaletasun politikoa egituratu eta garaiko mugimendu

³⁴ Zalbide, Mikel (2007). *Iparraldeko euskalgintza, XIX. Mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia*. Euskaltzaindia.

abertzalearen militantzia sozial eta kulturalarekin estuki lotu zen euskararen aldeko ekinbide politikoa.

Ikas elkarteak

Testuinguru horretan sortu zen Ikas elkarteak³⁵ 1959. urtean, eskoletan euskararen irakaskuntza antolatzeko helburuz. 1951ko tokiko hizkuntzei eta dialektoei buruzko Deixonne legeak eskualdeko hizkuntzak eskoletan irakatsiak izateko baimena luzatuta, Euskaltzaleen Biltzarra elkarteak (1901) antolatutako pedagogia egunen emaitza gisa osatu zen, eskolaren bitartez euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren ekimenak akuilatu, ikastetxei euskaraz irakatsi ahal izateko bitartekoak eskaini eta oro har, euskararen irakaskuntza antolatzeko. Gerora, 1996tik goiti, Euskal Pedagogia Zerbitzua bilakatu zen Ikas.

Lehen ikastola

1969an izendatu zuen Frantziako Hezkuntza Ministerioak euskarazko lehen irakasle ibiltaria. Administrazioaren urrats gabeziaren aitzinean, euren hurrei euskarazko hezkuntza emateko borondatez elkartutako zenbait gurasok lehendabiziko ikastola sortu zuten³⁶ Baionako Enbata mugimenduaren bulegoetan. Geroago Lapurdiko Arrangoitzeko herriak utzitako lokaletan kokatu zen lehen ikastola hura.

Bidea baldintza zailetan abiatu bazen ere, azpiegiturarik gabe, baldintza prekarioetan eta gurasoen zein herritarren finantzaketa eta inplikazio sakonari esker, laster hedatu ziren Ipar Euskal Herriko hainbat herritan ikastolak sortzeko elkarte berriak. Sarea zabalduz joan zen, ama-eskola zein lehen mailatik bigarren mailako kolegioa sortzeraino. Kanboko Xalbador Kolegioa izan zen bigarren mailan sortzen lehena, 1980. urtean.

«Euskararen aldeko mugimenduaren lehen urratsak, irauli gabeko lur batean eman ziren, eta oposizio gogorak aurkitu zituzten. Mendeetan zehar indarrean izan zen frantziar kultura politiko-administratibo zentripetu eta jakobinoak sustrai sakonak zituen. Klase politiko lokalak, kultura politiko jakobinoa markatuta zeukan, eta mugimendu sozial eta militante horiek mesfidati jaso zituen». (Zabaleta, 2014)

Helduen alfabetatze-euskalduntzea

Garai berean hasi zen besteak beste Mende Berri elkarteak helduen euskalduntze alfabetatzean ere urratsak egiten. Zenbait herritan elkarteak osatu ziren helduei begirako euskara klaseak antolatzeko, eta 1979-1980 bitartean Iparraldera hedatu zen AEK, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea, iparraldeko gau eskolen arteko federazioa osatuz.

³⁵ Albizu Danielle (2001). *IKAS, kultur elkarte baten adibidea*. Ikasen historia biltzen duen txostena. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/lankidetzan/21/21029044.pdf>

³⁶ Aire, Xan; Garat, Maialen (2009). *Seaska, 40 urte euskararen alde*. Elkar argitaletxea.

Bertsolaritza bizirik atxiki eta sustatzeko xedearekin, 1980an sortu zen Bertsularien Lagunak Elkartea bera ere.

1981ean François Mitterrand presidenteak hauteskundeak irabazi izanak aldaketaren aldeko itxaropen giroa piztu zuen Ipar Euskal Herrian. Izan ere, Euskal Herriko departamenduaren sorrera proposatzeaz gain, herri hizkuntza zein herri kulturari buruzko proposamenak ere bildu zituen Mitterrandek bere programan. Itxaropen une horietan antolatu ziren ‘Euskara eta euskal kulturaren jardunaldiak’: 35 elkartek egitasmo orokor bat eztabaidatu eta ‘Kaier horia’ agiria zabaldu zuten, besteak beste, euskararen irakaskuntza, hizkuntzaren erabilera publikoa, hedabide euskaldunak zein kultur erakundea galdeginez.

Komunikabideak eta aisialdia

Garai honetan bertan sortu ziren Lapurdiko Gure Irratia (1981), Nafarroa Behereko Irulegiko Irratia (1981) eta Xiberoko Botza³⁷ (1982) tokiko herri irratia.

1983an, haurren euskarazko aisialdia garatzeko Uda Leku elkartea osatu zuen Seaskako guraso talde batek, eta urte berean antolatu zen Senpereko aintziraren inguruan lehen Herri Urrats besta, Seaskako ikastolen aldeko elkartasun ekimena.

Irakaskuntza elebiduna

‘Savary’ zirkularrak eskaini zuen lehenengoz irakaskuntza programaren zati bat tokiko hizkuntzetan euskaraz, bretoieraz, korsikeraz, okzitanieraz edo alsazieraz jarraitzeko aukera. Horrela, sare publikoko hainbat eskola, kolegio zein lizeotan euskara eskaintzen hasi ziren asteen zenbait orenez, pixkanaka sare publiko elebiduna osatuz.

Aldi berean, eskola katolikoetan irakaskuntza elebiduna sustatzeko Euskal Haziak elkartea sortu zen, eta lehen sail elebidun publikoa ireki zen Sarako eskolan. 1986an, ikasleen guraso eta irakasleak batu eta Ikas-Bi elkartea³⁸ sortu zuten irakaskuntza publiko elebiduna defendatzeko.

Pizkundea federazioa

Frantziar administrazioaren urrats urrien aurrean eta Kuijpers ebazpenean³⁹ (1987) zerrendatutako kultura eskubideak oinarri harturik, euskal eragileek bigarren jardunaldiak

37 Euskal Irratiak federazioa osatzen dute 2001ean sortutako Antxeta Irratiarekin batera, <http://euskalirratia.eus/federazioa.html>

38 Ikas-Bi elkartearen webgunea: <https://www.ikasbi.com/nor-gara/historikoa/>

39 Helbide honetan kontsultatua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1400&task=hizkuntzaZuzenbidea&lang=eu&kodea=050202

antolatu zituzten, eta horrela sortu zen hain zuzen Pizkundera⁴⁰, euskal elkarten federazioa. Eztabaidatik ekintzetara pasa eta euskararen zein euskal kulturaren hazkundera “edozein bide egokiz sustatzeko” helburuz federazioan batu ziren arlo desberdinetan ari ziren Ipar Euskal Herriko 30 bat elkarte desberdin.

Botere publikoaren mintzakide bilakatu zen Pizkundera, eta manifestaldi handiak egin ziren *Deiadar* lemapean. Hainbat arlotan negoziazio eraginkorrak garatu ziren, eta besteak beste Seaskaren onarpena, sare publikoko eta sare pribatuko ikaskuntza elebiduna, irakasleen formakuntza edota unibertsitateko euskal diplomen inguruko akordioak lortu ziren irakaskuntza arloan. Hedabideei zein kulturari dagokienez, Euskal Irratiak eta Euskal Telebistaren Ipar Euskal Herriko hedapena zein Euskal Kultur Erakundearen (EKE) garapenean ere urrats garrantzitsuak eman ziren.

1988 urtean *Bateginik* kanpaina abiatu zuen Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB)⁴¹. Bi ziren Euskal Herri osoko euskal kultur mugimendua batu zuen kanpaina honen helburuak: gizartean euskararen irudia hobetzea eta Nafarroa zein Iparraldeko ikastolen alde dirua biltzea.

EKE eta Herrien arteko sindikata

1990. urtean, garaiko gobernu sozialistaren eta Pizkunde euskal elkarten federazioaren arteko negoziazioen ondotik eman zen Euskal Kultur Erakundearen (EKE) zein Euskal kultura sostengatzen duen herrien arteko sindikataren sorrera.

Erakunde publikoek diruz lagunduta sortu zen Euskal Kultur Erakundearen⁴² (EKE) sorreran botere publikoen ordezkari guztiek zein 67 elkartek hartu zuten parte, eta berau izan zen ordutik goiti euskal kulturaren garapenez zein euskararenaz arduratu zen egitura publikoa.

Garai berean, 1990eko ekainean, Ipar Euskal Herriko 140 udalerrietako ordezkariak bildu ziren Baionako Herriko etxean, ‘Euskal kultura sostengatzen duen herrienarteko sindikata’ edo Herrienarteko Sindikata antolatzeko. Ipar Euskal Herriko udalerriak biltzen zituen sindikatak ekonomia eta kultura lotzeko helburua zuen, eta hainbat ekintza lagundu zituen diruz, izan irakaskuntzan, hedabideen arloan zein euskalgintzan. Baina gerora, estatuaren ordezkariak ekonomia kulturarengandik bereizi eta garapen bide hau moztu zuen, sindikataren helburua

40 Bachoc Erramun (2011), L’euskara en Pays Basque Nord. Enbata aldizkaria
<http://eu.enbata.info/artikuluak/ulertu/leuskara-en-pays-basque-nord-par-erramun-bachoc/>

41 EKB (1999ko uztaila) *EKBren 16 urteko lanaren memoria*. Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB, BAT aldizkaria, 31. alea. <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/801>

42 Enbata (2010). *Euskal kultur erakundeak 20 urte (1990 - 2010)*
https://www.eke.eus/eu/eke/dokumentuak/euskal_kultur_erakundeak_20_urte

eremu kulturalera mugatuz. Gauzak horrela, Euskal Kulturaren Herri Arteko Sindikatua (EKHAS) izatera pasa zen.

1990ean zehar, '*Bide seinaleak euskaraz*' izeneko kanpaina burutu zuen Euskal Herrian Euskaraz erakundeak, eta 1991ean ofizialtasunaren aldeko kanpainaren baitan hainbat mobilizazio eta ekimen antolatu ziren, *Ofizialtasuna orain!* lemapeko manifestaldi entzutetsua tartean.

Euskal Konfederazioaren sorrera

1994. urtea bereziki emankorra izan zen, izan ere, Deiadar mugimenduaren izenean III. jardunaldiak burutu eta 'Euskararen Agiria'⁴³ plazaratu baitzen, 1992ko Europako herri hizkuntzen Eurokarta abiapuntutzat hartuz eta euskararen ofizialtasuna aldarri eta helburu nagusi gisa kokatuz. Agiri honetan, arloz arloko hizkuntza politika definitu zen, eta euskararen aldeko oinarrizko 40 neurri eta gomendio finkatu.

'Euskararen Agiria'ren ondorio zuzena izan zen Deiadar ekimenaren ardura hartuko zuen egitura federatzaile berria eraikitzea. 1995ean Pizkundearen izpirituari jarraituz osatu zen Euskal Konfederazioa. Euskararen lehentasuna eta ofizialtasunaren aldarrikapena, euskararen erabilera bultzatzea zein euskalgintza eta euskalgintzako kideen arteko laguntza indartzeko helburuz osatu zuten Euskal Konfederazioa.

Egitura honen baitan batu ziren Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskalgintza osatzen duten eragile zein elkarteak, 55 elkarte eta 5 federazio orotara: AEK, Aldudarrak Bideo, Bertsularien Lagunak, Biga Bai, Euskal Haziak, Euskal irriatiak, IKAS, Seaska eta Uda Leku, zein hainbat herri eta eskualdetako elkarteak besteak beste.

Garai berean abiatu zen 'Euskal Herri 2010'⁴⁴ prospektiba edo gogoeta orokorra ere, ekonomia, zerbitzu publikoak, kultura edota lurralde antolaketaren eremuko pertsona eta eragile esanguratsuenen ekarpenek osaturik.

Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko hitzarmena

Urteetako negoziazioen ondotik, akordioa erdietsi zuten 1994ko uztailean Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioak eta Hezkuntza Nazionalak. François Bayrou ministroaren eskutik lortutako hitzarmenak ikastolen legeztapena berretsi ez bazuen ere, normalizatorako urrats handia ekarri zuen, izan ere, itunpeko eskola edo eskola kontzertatu bilakatu ziren ikastolak, eta kontratupeko eskola pribatuen estatusaren pean kokatu ziren.

43 Oronoz Mixel (1995). *Euskaltzaleen Biltzarretik Euskal Konfederaziora*. Bat aldizkaria, 16. alea. 82. orr.

44 Urteaga Eguzki (2009) *Euskara berpizteko politika Ipar Euskal Herrian*. Oihenart, 24. alea. <http://hedatuz.euskomedia.org/7399/1/24275290.pdf>

Era honetan, euskarazko irakaskuntza ofiziala bilakatu zen hezkuntza sistema nazionalan, hitzarmenak sare publikoaren baitan murgiltze eredurik aitortu ez zuen arren. Frantziar Errepublikako Hezkuntza Ministerioaren curriculuma jarraitu beharko zuen Seaskak, eta Hezkuntza nazionalak Seaskako irakasleen soldatak eta kostuak bere gain hartzea adostu zen, beste eskolen gisan berariazko titulazioak eskuratzeko baldintzapean. Aurrerapauso handia ekarri zuen urrats honek ikastolentzat, urtero irakasle postuak negoziatzen jarraitu beharko bazuten ere.

1996an, Frantziako deszentralizazioaren ildoan garatutako lurralde antolaketa mugimenduaren baitan, gizarte zibilak osatutako Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak hainbat proposamen aurkeztu zituzten *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskeman*. Horien artean, euskararen aldeko lehen hizkuntza politika proposamena jaso zen, eta Hizkuntz politikarako idazkaritza nagusia sortzeko proposamena luzatu zuen Euskal Konfederazioak.

Urratsez urrats

Tartean, hainbat ekintza eta negoziazioen bitartez, euskararen arloan urrats garrantzitsuak ematen jarraitu zuten gizarte eragileek: besteak beste, Euskaltzaindiak onarpena erdietsi zuen, Ipar Euskal Herrian ETB ofizialki hedatu ahal izateko ituna izenpetu zen, euskal diplomak eskaintzen hasi ziren unibertsitatean, Seaskak hitzarmena lortu zuen eta ikasgela elebidunak hedatzen hasiak ziren bai irakaskuntza publikoan zein pribatuan. Honekin batera, elkarre eta eragileek diru laguntzak lortu zituzten, eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako bide seinaleetan eta paisaian txertatzen hasi zen euskara. Aldaketa horiek guztiak onuragarriak baziren ere, euskararen jarraipena bermatzeko funtsezkoak ziren hainbat urrats blokeo egoeran mantentzen ziren, herri hizkuntzen inguruko legedia, lurraldetasunaren ukapena, edota zenbait elkarre eta eragilerekin sinatutako hitzarmenen finkatzea ere. (Coyos, 2008)

1998an ofizialtasuna eta Antolakuntza Eskema gauzatzea aldarrikatuz deitu zen urte hartako Deiadarra, *Bete hitza, euskarari lege geriza!* lemapean. Ipar Euskal Herrian hizkuntzaren normalizazio ekintzak Antolakuntza Eskemaren baitako hizkuntza-atalak bideratu beharko lituzkeela aldarrikatu zuten euskalgintzak antolatutako mobilizazioan.

Frantziak eurokarta ez berrestea erabaki zuen garaian, indartsu zebilen Euskal departamenduaren aldeko mugimendua. 1999ko urriaren 9an 12.000 pertsona batu ziren Baterak departamendua eskatuz deitutako manifestaldian. Urte berean, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrak '*chargé de mission de la politique linguistique*', hizkuntza politikarako kargudun

lanpostua sortu zuen: Iparraldeko kolektibitate publikoetan euskararen alde lan egiteko funtzioa izanen zuen lehen langile publikoa⁴⁵.

Bai euskarari akordioa

1997an eraturako Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak *XXI. mendeko Akordioa: Bai Euskarari!* kanpaina sustatu zuen, Euskal Herri osoko gizarte hitzarmen zabala eraikiz. 1998ko abenduan Euskal Herriko bost kirol zelaietan euskararen aldeko ekimen jendetsuak antolatu ziren, tartean, Miarritzeko Agilera errugbi zelaian.

2000ko ekainean ‘Deiadar 2000’ herri mobilizazioa antolatu zen Baionan. *Euskararen geroa orain trenkatzen da!* lemapean, hautetsiei gaiari lotzeko deialdi berezia luzatu nahi izan zieten ekimenaren bitartez.

Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak ‘Bai Euskarari’ akordioa sinatu zuten Saran, egunerokoan eta hainbat eremutan euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzea helburu. Ipar Euskal Herriko 209 eragileren partehartzearekin abiatu zen akordioa: tartean Crédit Agricole, Aviron Bayonnais zein Leclerc bezalako lurraldeko 11 agente garrantzitsurekin. Haez gain, beste 500 eragileri luzatu zien Euskal Konfederazioak akordioan sartzeko gonbidapena.

1.2.2. Hizkuntza politika publikoaren lehen urratsak

2000 urteko abenduan, ‘Euskal Herriko 2001-2006 Hitzarmen Berezia’ sinatu zuten Frantziako Estatuak, Akitaniako eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako departamenduak. Euskalgintzaren alorrean ekintza publikoa egituratzeko bidean lehen urratsa egin zen orduan. Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoa sortu eta 2001. urtearen hastapenean Estatuak, Akitania eskualdea, Departamendua, Hautetsien Kontseilua eta Euskal kultura sostengatzen duen herrien arteko sindikatua elkartu ziren horretarako. Hala, ‘Estatu-Akitania Eskualde Kontratu Planaren Euskal Herriko 2001-2006 Hitzarmen Berezia’ islatu zen lehenengoz euskararen aldeko lehen urrats publikoa, euskarari buruzko atalaren bitartez.

Kontratu politiko honetako hamar kapituluetan lehena zen hizkuntza politikari zegokiona, eta hau izan zen hain zuzen ere agiri ofizial batean ‘hizkuntza politika’ izendapena agertu zen lehenbiziko aldia. Hizkuntza politika publikoaren lehen urratsa izan zen, lehenengoz botere

45 Coyos Jean-Baptiste (2008). *Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: Nondik nora? Ibilbidearen azterketa*. In Bat soziolinguistika aldizkaria, 67. alea. <http://www.soziolinguistika.org/files/03%20Jean-Baptiste%20Battittu%20Coyos.pdf>

publikoek bereganatzen zutelako hizkuntza politikaren gaineko nolabaiteko ardura⁴⁶. Euskararen garapenaren alde ari ziren eragile publiko nola pribatuei sostengua eta laguntza emateko programa adostuak, besteak beste, elkarteen ezagupena ekarri zuen, eta praktikan euskararen aldeko planen garapenik ekarri ez zuen arren, baliabide ekonomiko aski urriak izan baziren ere, diru laguntza iraunkorrak ahalbidetu zituen.

Hizkuntza Kontseilua

2001ean zehar Ipar Euskal Herriko Hizkuntza Kontseilua⁴⁷ eratu zen, euskara sustatzeko ekintzak bultzatu eta koordinatzeko hizkuntza-politikaren alorrean eskumenak zituzten erakunde publikoetako zein pribatuetako ordezkariak batuz. Ez zen beraz, elkarreak batzen zituen beste federazio bat, baizik eta hizkuntza politika eramateko tresna: Hitzarmen Bereziak aipatutako gauzatze publikoa eta honen ardura zuten kudeatzaileen arteko koordinazioa bermatzeko eraikia (Baxok, 2001)⁴⁸. Euskalgintzako herri mugimenduak eta instituzioak mahaiaren bueltan lehenengoz biltzea eragin zuen honek, eta honen baitan eman zen Obragintza Publikoaren eraikitzea, Estatuak, Akitania, Departamendua eta Herriak bateratuz. (Urteaga, 2002)

Herriko etxeen ildoak

Herritarrengandik hurbilen diren erakundeetatik hasi eta Frantziak euskarari ukatutako lege babesa jendartetik bideratu nahian, lankidetzarako hitzarmenak proposatu zituzten Konfederazioak Ipar Euskal Herriko herriko etxeei. Lege mailako txostena osatu eta eta lege zirrikituak baliatuz, herritarrekiko harremanetan zein zerbitzuetan euskararen gutxieneko presentzia bermatzeko bidea abiatu zuten horrela. Euskal Konfederazioak bere gain hartzen zituen lan teknikoa, egoeraren diagnosis zein normalizazio planen diseinua, eta besteak beste administrazio idazkerako ereduak zein aholkularitza zerbitzua ere eskaini⁴⁹.

Demoen ekintzak

Anartean, Demoek, Demokrazia Euskal Herriarentzat mugimenduko kideek, botere publikoen aldetik euskararen irakaskuntzaren eta erabileraren garapenaren aldeko hizkuntza politika eraginkorra abiatzea aldarri zuten ekintzak burutzen hasi ziren desobedientzia zibilaren bidea⁵⁰ erabiliz. Ildo honetan, hamaika ekintza egin zituzten posta edo SNCF tren garraio zerbitzu

46 Euskal Herriko Garapen Kontseilua (2016). *Soak, begiradak & ikuspegiak* aldizkaria, ale berezia. <https://www.societecivile-paysbasque.com/images/actualites/PDF/SOAK2-CDPB-Basque.pdf>

47 Euskaldunon Egunkaria, 2003-01-02, Euskal Konfederazioko Mixel Oronosi elkarrizketa: "Hizkuntza Kontseilua ezin da zain eta haragirik gabeko hezur apaindura izan" <https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/pdfa/?data=2003-01-12&orria=063&zenb=eFpTVHjVGVvWG8xU1VaWVRha0NYUT09>

48 Baxok Erramun (2001). *Euskalgintza hitzartua Ipar Euskal Herrian*. Euskaltzaindia. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50745.pdf>

49 Renteria Aitor (2006). *Txinaurriaren ekina, oilarraren handiustea*. Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian, BAT aldizkaria, 59. alea. <http://www.soziolinguistika.eus/node/3200>

50 Kasares Paula (2004) *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian, zer eskubidez ari garen eta zertan diren*. Herri mugimenduen beste estrategiak atala, 109-112 orr. Giza eskubideei buruzko Deustu koadernoak, 31. zenbakia. Deustuko Unibertsitatea. <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/cuadernosdcho/cuadernosdcho31.pdf>

publikoan euskararen erabilera sustatzeko kanpainaren baitan, besteak beste honako aldarrikapenen inguruan: Euskal Herriko tren geltokitako seinaleak elebidun bilakatzea, geltokietako bozgorailuetako mezuak euskaraz ere izatea; idatzizko tren ordutegiak zein tren txartelak elebidunak izatea eta harrera guneeetan ahozko euskararen erabilera sustatzeko plana abiatzea. Garai hartan, oihartzun eta eragin zabala lortu zuten Demoen ekintza ikusgarriek⁵¹.

Batera

2002ko abenduan Batera Plataforma sortu zen, gizarte zibila osatzen zuten 110 elkarte, sindikatu eta eragileren eskutik. Lau aldarrikapen nagusi bateratu zituzten izenpetutako itunean⁵²: euskararen ofizialtasuna erdiestea, euskal laborantza ganbara eraikitzea, euskal unibertsitatea egituratzea eta euskal departamendua sortzea.

Mugaz gaindiko lankidetzak

Euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzak-ildoak zehazte aldera, Eusko Legebiltzarrak berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (1999) eta Ipar Euskal Herriko 2001-2006 Hitzarmen Bereziak eskaintzen zuten erreferentzia-markoa baliatuz, 'Baionako Protokoloa' izendatutako lankidetzak-protokoloa sinatu zuten 2003. urtean. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Ipar Euskal Herriko Akitania Eskualdeko Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua eta Euskal Kulturaren aldeko Herrien sindikata izan ziren Baionako Protokoloaren sinatzaileak.

1.2.3. EEPren sorrera

Aitzinetik sortutako Hizkuntza Kontseilua eta Obragintza publikoa ordezkatzuz, 2004ko uztailean Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) osatu zuten Frantziar Estatuak, Akitaniako eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako departamenduak eta tokiko hautetsiek. Lehen aldiz, 2001-2006 Hitzarmen bereziaren ondotik, hizkuntza politikaren ardura EEPk, egitura publiko berriak, hartu zuen.

Interes publikoko egitura gisa sortu zen EEP, eta lan arlo nagusi gisa definitu zituen dirulaguntzen banaketaren kudeaketa, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garatze eta egituratzea eta bizi sozialean euskararen presentzia indartzea. Bestetik, behatoki eta jarraipen funtzioak betetzea egotzi zitzaion⁵³, eta baita EAE edo Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza eragileekiko zein herri hizkuntzez arduratzen ziren Frantziako zein Europako eragile publiko eta pribatuekiko harremanen kudeaketaren ardura ere.

51 SNCF-ean euskararen erabilpena sustatzeko kanpainari buruzko xehetasun guztiak (kronologia, argazkiak, loturak... Demoen webgunean: <http://demoak.free.fr/euskara/berriak/index%20snf.html>

52 Batera plafaformaren 2002ko sorrera xarta ikusgai hemen: <http://www.batera.info/la-charte/>

53 Betbeder Titto (2006). *Euskararen Erakunde Publikoa*. Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian. BAT aldizkaria, 59. alea. <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/3193>

Aurreko hamarkadetan herri mugimenduak osatutako euskalgintzak eta gizarteak oro har egindako urratsen ondoriozko lorpen garrantzitsua izan zen EEPren sorrera, eta ate berriak irekitzearekin batera, urrats nabarmenak ekarri zituen euskararen hizkuntza politikari dagokionez.

Bestalde, Iparraldeko eta EAeko herri-erakundeek elkarrekin urratutako hiru urteko lanaren ondotik, mugaz gaindiko lankidetzaz-ildoak jasoko zituen akordio berria aurkeztu zuten EEPk eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Elkarrekin egindako bidea oso positibotzat jo zuten, konfiantzazko harremana eraiki baitzen bi aldeetako erakunde publikoen artean. Honela, elkarlanaren emaitza izan ziren Euskal Herriko IV. Inkesta Soziolinguistikoa zein finantzaketa eremuan euskararen eremu geografikoan Eusko Jaurlaritzak EAetik kanpo euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen zituzten erakunde pribatuentzat dirulaguntzak emateko 400.000 eurotako deialdia kaleratzea, horren bidez hainbat proiektu batera finantzatzuz.

Tartean, 2005eko urtarrilean, Iparraldeko Herriko Etxe batean arituko zen lehen euskara teknikari lanpostua sortu zuen Hendaiaiko Udalak, eta Euskara Zerbitzua jarri zuen martxan.

Lehen hizkuntza politika proiektu publikoa

2006ko abenduan aurkeztu zuen hizkuntza politika aurreproiektua EEPk. Era honetan, Frantziar Estatuak, Eskualdeak, Departamenduak, Hautetsien Kontseiluak eta Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatak euskara biziberritzeko engaiamendua hartu eta euskararen aldeko politika publikoaren oinarriak ezarri zituzten. *“Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun”* izenpean,⁵⁴ lehentasuna belaunaldi gazteengan kokatu eta hiztun osoen kopurua emendatzeko helburua finkatu zuen 2006ko hizkuntza politika proiektuak, printzipio nagusi honen baitan: eragile zein hiztunen hautu askearen errespetuan eta indarrean diren lege eta arauen errespetuan oinarrituriko kudeaketa bultzatzailea egitea.

Hamabi erronka nagusi⁵⁵ bildu zituen hizkuntza politika proiektuak. Hizkuntzaren transmisioari lotutako hiru erronka: familia bidezko transmisioan, lehen haurtzaroan eta irakaskuntzan; hizkuntzaren gizarte-erabilerari lotutako bost erronka: hedabideen arloan, aisialdian, argitalpenean, toponimian eta bizitza sozialeko hizkuntzaren lekuari buruz; eta hizkuntzaren

54 *“Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun”* EEPren hizkuntza politika proiektua hemen: https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf

55 Erronkak txosteneko 17. orrialdean: https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf

bizkortasunari lotutako lau zeharkako erronka: helduen euskalduntzea, hizkuntzaren kalitatea, ikerkuntza eta motibazioaren inguruan. Erronka bakoitzari begirako norabide estrategikoak proposatu eta hauek egikaritzeko lan-ardatzak edo egitasmoak ere zerrendatu ziren, eta azkenik, ebaluazioa egiteko adierazleak ere definitu ziren.

Jorratutako alor nagusia euskararen eskola-irakaskuntza izan zen, eta honetan eman dira batik bat urratsik nabarmenenak. Bestalde, euskara teknikarien sare bat ere sortu zen herri elkargo eta zenbait hiritan, eta kolektibitate publikoen eta euskararen elkarte sustatzaile nagusien bilgunea bilakatu zen hastapenean erakunde publikoa. Horrela, Euskaltzaindia, Seaska, Ikas pedagogia zerbitzua, Uda Leku, Euskal Irratiak... euskalgintzaren baitako eragile eta elkarte nagusien jarduerak hizkuntza politika egitasmoan sartu ziren, lankidetzaz-hitzarmenen bitartez zein aholku batzordearen baitan parte hartuz.

Beste hainbat arlotan ere egin ziren urratsak: euskarazko argitalpenak lagunduz, euskararen aldeko lanean ziharduten elkarteentzat diru funtsak sortuz, lehen haurtzaroko euskarazko haurtzaindegi sarea garatuz...

Aldaketa nabaria izan zen hizkuntza politika publikoak ekarri zuena. Frantziar Estatuan adibide ia bakarra ere bai, izan ere, beste zenbait hizkuntza erakunde publiko izan badira ere, EEP izan baita hizkuntza politika zehatz, adostu eta definitua osatu izan duen bakarra.

Hizkuntza politika publikoaren mugak

Indarrean zegoen legediaren errespetua izanik hizkuntza politikaren muina, 2006an bozkatu zen Hizkuntza Politika Proiektua guztiz aplikatzeko lege oztopoen aitzinean aurkitzen zela aitortu zuen EEPk. Erakunde publikoaren lanaren mugak⁵⁶ agerikoak ziren. Besteak beste, Ipar Euskal herriko motibazioari buruzko adierazle gehienak negatiboak zirela ikusita egoera soziolinguistikoa bere osotasunean kontuan harturik proiektua motibazioan oinarritzea strategiaren ahulezia gisa kokatu zuten adituek (Coyos, 2008). Horretaz gain, euskararen transmisioan eragiteaz gain, hizkuntzaren erabilera sustatzeko neurriak eskasak zirela nabarmendu zuten, eta euskarak erabilera eremuak zein funtzioak irabazteko bidean aski indar ez egitea egotzi zioten. Horrekin batera, printzipio eta helburuak hobeki zehazteko beharra, zein egutegi zehatza eta aurrekontu egokiaren edota langile adituen falta nabarmendu zituzten.

56 Coyos Jean-Baptiste, Battitu (2008) *Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa*. BAT aldizkaria, 67. zenbakia, III. Atala: Erramun Baxoki eskainitako lanak, 92-96 orr. <http://www.soziolinguistika.eus/files/03%20Jean-Baptiste%20Battitu%20Coyos.pdf>

Norabide honetan, Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeak hainbat ekarpen egin zizkion hizkuntza politikaren txostenari⁵⁷, zenbait indargune eta ahulezia azpimarratuz eta hainbat ohar helaraziz.

2006, Herriko etxeen neurketa

Hizkuntza politika publikoetan eragiteaz gain, tokian toki ekimenak gauzatzea izan zen hasieratik Euskal Konfederazioaren eginkizunetako bat: zentzu horretan garatu zuten herritarrak eta herriko etxeak aktibatzeke herriko etxeen ildo. 42 herriko etxek izenpetu zuten Euskal Konfederazioak proposatutako hitzarmena, eta herritarrei zuzendutako kanpainak egin zituzten, tokiko administrazioan euskararen erabilera bultzatzeko.

Kontseiluak, bere aldetik, herriko-etxeen hizkuntza politikaren neurketa egin eta lege gerizarik izan gabe ere herriko etxeek hizkuntza politika egokiak gauzatzeko ahalmenak izan bazituztela nabarmendu zuen, herriko etxe desberdinek aplikatzen zituzten neurri egokiak bateratu eta herri bakar batean aplikatuz gero, hizkuntza politika egokia egitetik hurbil leudekeela azpimarratuz.

2007an Euskararen Erakunde Publikoak hartu zuen urte batzuk lehenago Konfederazioak herriko-etxeekin abiatutako lana segitzeko engaiamendua, besteak beste, udalekin euskarazko harrerak garatzeko planak osatuz.

2007ko prefetaren gutuna

Pirinio Atlantikoetako departamenduko prefetak eta EEPko lehendakariak gutun elebidun bat igorri zieten Ipar Euskal Herriko auzapez guztiei 2007ko maiatzean. Honakoa zioen gutunak:

“Bizitza publikoan euskararen erabilpenari doakion arau eta legezko esparruari dagokionez, argitu nahi dugu euskara erabil daitekeela frantsesaren parean, dokumentu, zigilu eta komunikazio euskarri ofizial ezberdinetan, balio juridikoa frantsesezko bertsioek bakarrik dutelarik. (...) Sustapen lan hori, euskararen behin-behineko erabilpen batentzat edo elebitasun osora heltzeko helburuarekin eraman daiteke, gisa guztiz nahitaezkoa delarik frantsesezko idazketa oso baten egitea⁵⁸”.

Idazki ofizialetan frantsesa erabiliz gero euskara ere erabili zitekeela argitzen zuen gutunak, bai administrazioetan, zein arlo pribatuan. Gauza jakina zen ekoiztako dokumentu eta euskarri mota guztiak euskaraz ager zitezkeela frantsesaren presentzia bermatzen baldin bazen. Baina kasu horretan gutunaren izenpetzaileetako bat frantses estatuaren departamenduko ordezkari gorena izateak ekarri zuen berrikuntza.

57 Euskararen Erakunde Publikoak 2006ko urrian aurkeztutako txostenari Euskaltzaindiak egindako ekarpenak, 2006ko abenduaren 6an: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/67615.pdf>

58 Coyos Jean-Baptiste (2009) *Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak*. <https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00383564/document>

Larrunaldeko herriko etxea

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak Ipar Euskal Herriko hainbat herriko etxetako hizkuntza politiken neurketa burututa aurkeztu zuen Larrunalderen eredia⁵⁹. Jadanik herriko etxe desberdinek hartzen zituzten neurri egokiak bateratuz, Larrunalde deituriko herri ‘fiktizioa’ baina errealistaren adibidea posible zela erakutsi zuten, eta ariketa hori eginez, neurketan 5eko nota lortzeko aukera bazela nabarmendu: *“Larrunaldek erakusten duena da herriko etxe guzietan bada indarrean dituzten neurri egoki horiek guzietan bateratuz balituzte hizkuntza-politika egoki bati buruz joango ginatekeela; noski, ez nahikoa, baina gaur egun herri bakoitzak bere aldetik eramatean duenarena baino hobea”*.

Deiadar berriak

Frantziar Konstituzioaren 75. artikuluari emendakina egin zioten 2008ko uztailean, eskualdetako hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte gisa aitortuz. Konstituzio aldaketa honek, hala ere, ez zuen lege-eraginik izan lurralde hizkuntzei begira, eta testuinguru honetan egin zen 2008. urteko Deiadar mobilizazioa. Aldi berean, Frantziako Estatuaren baitako lurralde desberdinen arteko plataforma baten sortzean parte hartu zuen Euskal Konfederazioak.

2009ko urriaren 24an, bosgarren Deiadara egin zen Baionako karraketan Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak deiturik *“Hizkuntza politika ausarta garatzeko euskarari lege geriza, Euskara Hizkuntza Ofiziala”* lemapean. Ofizialtasuna aldarrikatu zuten 5.000 lagunek Baionan egindako manifestaldian.

Hiru urte beranduago, Deiadar berri batera deitu zuen euskalgintzak, okzitaniar, bretoi, katalan, alsaziar, eta korsikarrekin batera. *“Euskara hizkuntza ofiziala, gure hizkuntzak, eskubide bat, lege bat”* lemapean 7.000 manifestari bildu ziren Baionan, eta Martxoaren 31ko kolektiboa⁶⁰ deiturikoa sortu zuten. Horrela, euskaldunekin batera, hizkuntza gutxituen aldeko mobilizazioak antolatu zituzten Alsazia, Britainia, Okzitania, Katalunia eta Korsikan, egiazko lege geriza eskatzeko.

Salbuespeneko erregimenaren eskaria

2012ko martxoan, iparraldeko egituratze instituzionalaren inguruan antolatutako prozesu orokorraren baitan, euskararen aldeko politikari buruzko hainbat proposamen egin zituen Euskal Herriko Garapen Kontseiluak. Proposamen horien artean, Estatuarekin negoziatu beharreko

59 Larrunalde, txostena: <http://kontseilua.eus/app/uploads/2015/05/Larrunaldeko-Herriko-Etxean-eta-herriar-euskararen-erabilera-normalizatzeko-arauak.-DELIBEROA-20080122.pdf>

60 ‘Martxoaren 31ko Kolektiboa’ edo ‘Collectif du 31 mars’ ondoko erakundeek osatzen dute: Anem Òc! (Okzitania), Conseil Culturel de Bretagne (Britainia), Culture et Bilinguisme d’Alsace et de Moselle/René Schickele-Gesellschaft (Alsazia), Euskal Konfederazioa, La Federació (Katalunia), Lofis, Tikouti, Association des Enseignants certifiés de Créole (AECCR), Parlemu Corsu (Korsika), FLAREP, Fédération des Langues Régionales dans l’Enseignement Public, ESKOLIM eta EBLUL France.

‘salbuespeneko erregimen’ bat galdetu zuen euskararentzat, eta Estatuak aplikaturiko tolerantzia politikoa kritikatu zuen besteak beste.

EEPk ‘sabaia jo’

Tartean, EEPren hizkuntza politikak ‘sabaia jo’ zuela adierazi zuen Euskal Konfederazioak. Euskarari ofizialtasuna aitortu ezean, hizkuntza lege eraginkorrik gabe eta aurrekontu mugatuarekin EEPk hizkuntza politikan adierazitako ildoak garatzea ezinezkoa zela adierazi zuten euskalgintzako gizarte eragileek: “*sortu zelarik adierazi genuen gure iritziz tresna interesgarria zela EEP, baina muga nabarmenak zituela*” adierazi zuen prentsa aitzinean Euskal Konfederazioak⁶¹. Bestetik, EEPk euskalgintzako eragileekin sortutako Aholku Batzordearen ibilmoldea zein jardun falta ere kritikatu zuten⁶², hitzemandako elkarlanik bultzatu ez zela eta.

Hiru Sareta

Hiru Sareta plataforma⁶³ osatzen zuten Seaska, Biga Bai eta Euskal Haziak elkarteek euskarazko irakaskuntza bermatzeko neurriak har zitzala eskatu zioten Baionako Akademia Ikuskaritzari. Hezkuntza sare desberdinen hobekuntza ikastetxe guztietan irakaskuntza elebidunaren eskaintza zabalduko zelarik lortuko zela nabarmendu zuten, murgiltze eredua hedatuz eta bigarren mailetan orduak gehituta orduen parekotasuna bermatuz. Bestalde, Seaska eta Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren arteko hitzarmena agortu eta negoziazioak etenda bukatu zen 2011-2012ko ikasturtea, irailerako irakasleen esleipena airean.

2013ko maiatzean beste elkarretaratze bat antolatu zuen Euskal Konfederazioa kide zuen Martxoaren 31 kolektiboak Parisen. Unescoko egoitzaren atarian elkartu ziren, hizkuntzen babesleku kulturala eskatzeko. Frantziako Estatuak lurralde hizkuntzetako hiztunak sistematikoki diskriminatzen zituela adierazi eta berezko hizkuntzei mota desberdinetako trabak ezartzen zizkiela salatu zuten hizkuntza desberdinetako ordezkariak irakurritako testuan.

2013an Frantziako Kultura Ministeritzak hizkuntza aniztasunari buruz osatutako Komiteak Frantzian hizkuntza eta kultura aniztasuna sustatzeko proposamenak egitea zuen helburua. Karia honetara, EEPk bere hizkuntza politika gauzatzeko zituen oztopo legal eta administratiboak zehazten zituen txostena aurkeztu eta zuzenbide positiboa aldatzeko hainbat proposamen luzatu zituen (Zabaleta 2014). Horrela, beste batzuen artean Estatuak kudeatutako zerbitzu publikoetan, egoera zibilean, eremu publikoan euskararen erabilpena garatzeko orduan, eta

61 Berría, 2011-12-23. *EEPre hizkuntza politikak «sabaia» jo duela adierazi du Euskal Konfederazioak* https://www.berria.eus/paperekoa/1524/013/001/2011-12-23/eepren_hizkuntza_politikak_sabaia_jo_duela_adierazi_du_euskal_konfederazioak.htm

62 Argia, 2012-01-15. Sebastián Casteti elkarrizketa: “EEP iritsi da bere mugetara”. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2306/sebastien-castet>

63 Hik Hasi aldizkaria, 2004-12-01. *Hiru Sareta: elkarrekin bai, indarrak batuta hobe*. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20041201/093-hiru-sareta-elkarrekin-bai-indarrak-batuta-obe>

abar, euskarak zituen trabak gainditzeko zuzenbidetik ekiteko beharra plazaratu zuen Euskararen Erakunde Publikoak ere.

EHGKren euskara batzordearen txostena

2014ko udaberrian, Garapen Kontseiluak hizkuntza politikaren gaineko gogoeta berria egin zuen, Eskualdea eta Estatuaren 2014-2020 Lurralde Kontratuaren prestaketa lanen barnean. Euskara lan-batzordeak egindako txostenean, EEPk zituen mugak nabariak zirela adierazi eta hizkuntza politikan beste muga bat gainditzeko behar nabaria azpimarratu zuen. Ondorioz, euskara lan taldeak indarra hiru erronka nagusiren inguruan bateratzea proposatu zuen: transmisioan, erabileran eta baliabideen biderkatzean. Zehazki bi proposamen egin zituen txostenean: irakaspenaren eskaintza orokorturantz joatea, eta bizi sozialean euskara normalizatzeko Ipar Euskal Herria ‘esperimentazio lurralde’ gisa hartzea, NOTRe legea errespetatuz.

1.2.4. Instituzio propioaren aldarrikapena

Lurralde kontratu berriaren testuinguruan, aitopen eta ezagutze instituzionalaren beharra indar handiz ari zen hedatzen Ipar Euskal Herrian, eta hizkuntza-politika eraginkorrak egiteko berme gisa ikusten zen Euskal Herriko elkargoaren aukera. Testuinguru honetan bete zituen Euskal Konfederazioak bere 20 urteak, eta lurralde kontratuan hizkuntz politikarako aterabideak lortzeko beharra azpimarratu zuen Itsasun egindako ekimenean.

2015eko urriaren 24an Deiar berria deitu zuten Euskal Konfederazioak eta Batera plataformak, euskararen ofizialtasunaren eta Ipar Euskal Herriko instituzioaren aldarriari hauspoa eman eta euskararentzat eta herriarentzat estatutua aldarrikatzeko. Euskararen koofizialtasunaren forma hartuko lukeen euskararentzako estatutu berezi bat galdegin zuten, eta egun berean mobilizatu ziren Britainian, Korsikan, Alsazian eta Okzitanian ere, ‘*Estatutu bat gure hizkuntzentzat, estatutu bat gure herrirentzat*’ aldarri komunaren pean.

Instituzio propioaren aldarrikapenak inoiz baino presentzia handiagoa izan zuen Baionako mobilizazioan, izan ere, Euskal Konfederazioko ordezkari Sébastián Castetek azaldu zuenez, “*loturik daude hizkuntzaren eta lurraldetasunaren aldarriak: Elkargo bakarra izateak hizkuntz politika indartsuago bat bultzatzea ahalbidetuko digu*”⁶⁴.

64 Ipar Euskal Herriko Hitza, 2015-09-25. Ipar Euskal Herriko elkargoa eta euskara aldarri urriaren 24an. <http://iparraldeko hitza.eus/2015/09/25/ipar-euskal-herriko-elkargoa-eta-euskara-aldarri-urriaren-24an/>

Euskaingintza, EEPren aholku batzordetik at

2015eko abenduan jakinarazi zuten publikoki Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak EEPren aholku batzordearen baitan parte hartzeari uzteko erabakia. 2014tik 2020ra bitarteko lurralde kontratuaren hitzarmena sinatuta, Euskararen Erakunde Publikoaren ordezkarien, hau da, Estatuaren, Pirinio Atlantikoak Departamenduaren eta Akitania eskualdearen aldetik hitzartutako hizkuntza politikaren garapenari bide emateko azaldutako borondate faltaren ondorio gisa aurkeztu zuten erabakia, eta honekin batera azpimarratu zuten lurralde kontratuan eta hizkuntza politika garatzeko baldintza egokiak ematean euren erabakia aztertu eta elkarlanerako prest egonen zirela.

Euskararen bide orria 2020

2016ko irailean, 'Euskararen bide orria 2020'⁶⁵ eskaini zion Euskal Konfederazioak antolatzen ari zen elkargoari, alorrez alor helburuak finkatuz. Euskal herri Elkargoa osatuz marko instituzionala aldatu eta hizkuntza politika eraldatzea ziren bide orri honen ardatzak, besteak beste, 2050. urtean hiztun kopurua %30era heltzeko zein lurralde kontratuan hitzemandako jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa gauzatzeko.

Bestalde, Euskararen Erakunde publikoak 2006. urtean abiatutako hizkuntza politika publikoaren obratzearen urratsen artean, 2016an Euskal Kostaldeko Ospitalearekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmena⁶⁶ sinatu zen, euskararen garapenaren alde EEPekin lankidetzaren hitzarmena izenpetzen zuen osasun alorreko lehenbiziko erietxea bilakatu.

2016ko Jagon jardunaldiak

"Euskararen geroa eta Euskal Elkargoaren sortzea"⁶⁷ lelopean, Euskaltzaindiak XXI. Jagon jardunaldia ospatu zuen Baionan 2016ko azaroan. Euskaltzaindia eta Euskal Konfederazioaren arteko lankidetzaren prestatu zen egitaraua, eta hainbat gai izan ziren mahaigainean: euskararen estatusa, hizkuntza politikaren erronkak, edota biharko hizkuntza politikaren antolaketa, besteak beste. Jardunaldia bururatzeko, bi erakundeek adierazpen bateratua zuzendu zioten sortzearen Euskal Elkargoari, bere eskumenen baitan, hizkuntza politikaren motor bilakatu zedin eskatu.

65 Eitb.eus, albistea: Euskal Konfederazioak euskararen bide orria aurkeztu du <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/bideoak/osoak/4232332/bideoa-euskal-konfederazioak-euskararen-bide-orria-aurkeztu-du/>

66 Hitzarmena: https://mintzalasai.eus/lib/irudiak/pdf/Doss_de_presse_Cv_langue_basque_V5.pdf

67 Jardunaldiaren hitzartzeak jasotzen dituen liburua osatu zuen Euskaltzaindiako Jagon Sailak, Jean-Baptiste Coyosek prestatutik. *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*. Bilbo, Jagon saila, Euskaltzaindia (2017).

Oinarrizko hiru eskaera luzatu zituzten adierazpenean⁶⁸: sortze mementotik euskara hizkuntza eskumena bere estatutuetan sartzea; Korsikan, Britainian edo Ipar Katalunian egin bezala euskarari nolabaiteko izaera ofiziala adieraztea; eta azkenik, baliabideen aldetik, jende-baliabide aski eskaini eta hizkuntza politikarako aurrekontu propioa bozkatzea. Hauek ziren Euskaltzaindia eta Euskal Konfederazioaren aburuz Elkargoak hizkuntza politika eraginkorra bultzatzeko oinarriak, euskalgintzarekin zein beste erakundeekin elkarlanean arituz, hainbat alorretan herria esperimentazio lurralde bilakatzeko eta haurren eta helduen irakaskuntzan, hedabideetan, aisialdian, ikasmaterialgintzan, alor sozioekonomikoan zein bizi publikoko euskararen erabileran urratsak egiten segitzeko.

68 Adierazpena hemen: <https://www.euskaltzaindia.eus/es/5147-ipar-euskal-herrian-baitezpadakoa-da-hizkuntza-politika-berri-eta-ausarta-gaurdanik-egiten-hastea-eta-orobat-transmisioan-erabileran-motibazioan-eta-corpusean-positiboki-eragitea>

2. atala: Euskal Elkargoak euskara erdigunean

2.1. Euskal Hirigune Elkargoaren sorrera

“XVIII° mende bukaeran Frantziako Iraultza burgesak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako legedia propioak zein lurralde-biltzarrak desegin zituenetik, etenik gabea izan da hiru lurraldeak instituzio bakarrean biltzeko aldarrikapena. Historian zehar etengabe agertu den gainditu ezineko marra gorria izan da euskal lurraldetasunaren ezagutza eta onarpenarena, hortaz, borroka luzea izan da aldarrikapen instituzionalaren aldekoa⁶⁹”. (Urrutikoetxea, 2018)

Autonomia estatutuaren zein departamenduaren aldarria izan dira luzaz Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako egitura zein mugimendu eta sektore ezberdinen elkarlanerako oinarria. Lurraldearen beharrak instituzio propio baten bitartez asetzeko helburuak eragile ezberdinen artean modu adostuan lan egitea ekarri du, eta gerora erabakigarri suertatu diren kultura politiko eta gobernantza berriaren oinarriak ezarri ditu.

90. hamarkadaren bukaeran egindako mobilizazioek zein Batera plataformaren sorrerak⁷⁰ ongi irudikatzen dute batasun hori, izan ere, garai batean abertzaleen aldarrikapena izandako Ipar Euskal Herri mailako instituzioaren beharra sektore ezberdinetara hedatu eta Frantziako Errepublikaren deszentralizazioaren prozesuaren baitan, berezko instituzioaren aldeko ahots bateratua osatu izan du Ipar Euskal Herriko jendarteak. Elkarlanaren eta desberdinen arteko adostasunen arteko ibilbide honen ondorio da hain zuzen ere Euskal Hirigune Elkargoaren⁷¹ sorrera prozesua.

Estatus berezidun Lurralde Kolektibitatea

Deszentralizazioaren prozesua deiturikoaren baitan, lurralde antolakuntza politiko-administratiboaren eztabaida betean ari zen Frantzia 2009an, Ipar Euskal Herriaren gobernantzari buruzko gogoeta abiatu zenean. Lurralde antolaketa erreformak departamenduaren desagerpena ekarri eta eskumenak eskualde edo erregio zein herri arteko elkargoen artean banatzea ekarriko zuela zirudien.

69 Urrutikoetxea Egoitz (2018). *Euskal Elkargoa: ibilbide baten irakaspenak eta perspektibak. Bi mendeko ibilbide luzea*. Erria aldizkaria, eraldaketarako aldizkari politikoa, 2018ko urtarrila, 1.alea. Iratzar fundazioa. Erreportajea sarean eskuragarri: <http://erria.eus/noticia/euskal-elkargoa>

70 2002ko abenduan sortu zuten Batera plataforma herri mugimendu ezberdinetako ordezkariak. Ordura arte modu berezian aldarrikatzen ziren Laborantza Ganbara, unibertsitatea, euskararen koofizialtasuna eta Euskal Departamenduaren aldarriak modu bateratuan uztartu zituen.

71 Euskal Hirigune Elkargoa izendatzeko Euskal Elkargoa terminoa ere erabiliko da lanean zehar.

Gobernuak erregio edo eskualdetarako marko politiko berriak eraiki nahi zituela ikusita, barne gogoeta egin eta departamenduaren eskaeraren ordeztu, beste egitura bat aldarrikatzea erabaki zuen Baterak. 2010. urtean, 35.000 pertsonen hartu zuten parte herri plataformak antolatutako herri kontsultan, eta departamendua eskatuz, Ipar Euskal Herriarentzat Lurralde Kolektibitatea, estatus bereziko instituzio berria aldarrikatzeko urratsa eman zen.

2012an 'Estatutu bereziko Lurralde Elkargoa' deritzon proposamena aurkeztu zuten Garapen Kontseiluak⁷² eta Hautetsien Kontseiluak⁷³ eragile sozial desberdinek sostengaturik. Ipar Euskal Herriari autonomia estatutu bat emanen zion eskumen bereziko lurralde elkargoaren aldarrikapenaren inguruan bildu ziren kolore guztietako hautetsiak eta gizarte zibila. Horrela berretsi zuen berretsi zuen Batera mugimenduak antolaturiko Baionako jardunaldietan⁷⁴. Garapen kontseilua, Hautetsien Kontseilua, Herrien Biltzarra, Baionako eta Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbara eta Batera mugimendua biltzen zituen koordinazio bat osatu zen 2013ko otsailean, estatus berezidun lurralde kolektibitatearen proiektua bultzatzeko helburuz.

Lurralde kolektibitatearen proiektutik HELEP bakarra sortzera

Ipar Euskal Herriko gehiengo sozial eta politikoaren babesa zuen lurralde kolektibitatearen aldarrikapenari ezezko biribila eman zion Parisek. Legebiltzarrak zein gobernuak proiektua baztertu eta 2014ko ekainean, estatus bereziko instituzioaren edo lurralde kolektibitatearen ordeztu, hiru aukera posible aurkeztu zituen Frantziako gobernuak André Durand Pirinio Atlantikoetako Prefetaren bitartez: Ipar Euskal Herria elkarte egiturapean antolaturik mantentzea, hots, gauzak bere horretan uztea; Ipar Euskal Herriko 10 elkargoak bilduko lituzkeen egitura federala sortzea (eskumen eta aurrekontu propiorik gabe); ala 10 elkargoak baturik, Ipar Euskal Herri mailako HELEP edo HErriarteko Lankidetzarako Erakunde Publiko bakarra sortzea.

72 Euskal Herriko Garapen kontseiluak 129 kide ditu. Euskal Herriko gizarte zibil antolatua biltzen du, sektore ekonomikoen ordezkarien bitartez, langileen sindikatuen ordezkarien bitartez, ekonomia lorreko ganberen ordezkarien bitartez, hezkuntza, kultura, osasungintza edo gizarte ekintzako erakundeen ordezkarien bitartez eta elkarte bitartez. Euskal Herriko Garapen kontseilua 39 kideko zuzendaritza batzorde batek gidatzen du; batzordekide horiek biltzar bakoitzak izendatzen ditu. Gutxienez hiru hiletik behin biltzen da eta txostenak, iritziak eta erabakiak onartzen ditu. Bulego batek kudeatzen du elkarte, lehendakariaren inguruan.

73 Berria, Jean-Jacques Lasserre
https://www.berria.eus/paperekoa/1483/006/001/2012-07-22/ardura_gehiago_eskuratzeke_bidea_dugu_lurralde_elkargoa.htm

74 Lurralde elkargoa 2015erako abian ezartzeko eskatu du Baionan gizarte zibilak
<https://www.berria.eus/paperekoa/1484/007/001/2012-09-30/lurralde-elkargoa-2015erako-abian-ezartzeko-eskatu-du-baionan-gizarte-zibilak.htm>

Eztabaida sakonen ondotik⁷⁵, erreforma honen baitan lurralde kolektibitatea gauzatzea ezinezkoa zela ulerturik, eta batez ere, Ipar Euskal Herriaren perimetroa markatzeko aukera historikoa zela ebatzita, prefetak eginiko azken proposamenaren alde lerrokatu ziren Ipar Euskal Herriko hautetsi eta eragile sozialen gehiengoak, hiri elkargoaren⁷⁶ alde, hain zuzen ere. Tartean, Baterak ere jakinarazi zuen hiri elkargoa bultzatuko zuela egituraketarako lehen urrats gisa⁷⁷, baina Frantziako lurralde erreformaren testuinguruan prefetaren proposamena onartuta ere, Ipar Euskal Herriarentzako lurralde elkargo bat aldarrikatzen jarraituko zuela argitu zuen.

“Oroitarazi behar da ere Euskal Herri Elkargoa ez dela iparraldeko gizarteak eskatzen zuena. Estatus bereziki Lurralde Kolektibitatea dugu oraindik helburu. Bainan ikusi eta frantses gobernamentuak ezezko borobila eman zuela eskakizunari, pausu taktiko baten aukera jorratu ginuen. Eta horrela erabaki ginuen prefetak proposatutako herri elkargo bakarra sostengatzea. Sei hilabeteren buruan, lehen aldikotz Iparraldeak bere mapa ukanen du, lehen aldikotz lurralde osorako, Xibero, Baxe Nafarro eta Lapurdi lurraldeen aldeko politika amankomunak eta orekatuak garatzeko aukera ukanen du. Lehen aldikotz Ipar Euskal Herriko biztanleak komunitate baten partaide izanen dira. Ipar Euskal Herriak parez pare jokatuko du frantses panorama administratiboan bereziki Paue, Bordale edo Pariserekin hitz egin beharko delarik”⁷⁸. (Nicolas Blain, 2016)

Azkenean, hirigune elkargoa soilik proposatu zuen prefetak, eta aldeko botoa eman zuten herriko etxe gehienek: 111 herri azaldu ziren Herri elkargo bakarraren alde, eta 47 herri izan ziren kontra azaldu zirenak. IEH osoko hautetsien %73ak bozkatu zuen HELEP bakarraren alde.

NOTRe legea eta lurralde erreforma

Frantziako Estatuaren erreforma administratiboaren baitan eman da, beraz, Euskal Elkargoaren erakundetzea, NOTRe⁷⁹ legearen markoan. Lurralde erreforma honen bitartez, eskualdeak zein herri elkargoak indartzeko erabakia hartu zuen Estatuak, departamenduen eta herrien kaltetan.

Alde batetik, makro eskualdeak sortu ziren: 2016tik goiti, 22 eskualde izatetik, hamahiru eskualdetan banatu zen Frantziako Estatuak. Akitania eskualdearen berregituraketa ekarri zuen honek, eta ondorioz, Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes lurraldeak batzearen ondorioz

75 Hautetsien kontseiluak, lurraldeko 10 HELEPekin (herri elkargo eta hirigune elkargoak) elkarlanean, eta Garapen kontseiluaren sostenguekin, aukera horri heldu eta Euskal HELEP bakarra sortzearen egingarritasuna aztertzeke lan bati ekin zion, 2014ko urrian, Acadie-ren aholkulariekin eta UPPA unibertsitateko legegariarekin. alatan, bada, 2015eko irailean, Garapen kontseiluak Ipar Euskal Herri osorako HELEP bakarra sortzeko proiektuaren aldeko erabakia hartu zuen eta gizarte zibilaren parte handi bat mugiarazi zuen, azaroan bozkatu zuen irizpidearen eta 2016ko apirilean egin foroaren inguruan.

76 Hiri elkargoa (*communauté urbaine*) 250.000 biztanle baino gehiagoko guneetarako erabiltzen da. Metropolia (*métropole*) da jendetsuena den elkargo mota, 400.000 biztanle baino gehiagoko gunetakoa. Biztanle kopuru ertainak dituzten udalerriak hirigune elkargoetan batzen dira, (*communauté d'agglomération*) eta biztanle gutxien duen udalerririk elkargoa da herri elkargoa (*communauté de communes*). Ipar Euskal Herriari bi hirigune elkargo zeuden, Euskal Kosta-Aturri (*Agglomération Côte basque - Adour*) ala BAB (*Baiona-Angelu-Biarritz*) deitua, eta Hego Lapurdiko Hirigunea (*Agglomération Sud Pays Basque*).

77 Berria, 2015-01-10: “Hiri elkargoa egituraketarako lehen urrats gisa bultzatuko du Baterak”. <http://www.berria.eus/albisteak/106984/hiri-elkargoa-egituraketarako-lehen-urrats-gisa-bultzatuko-du-baterak.htm>

78 Enbata aldizkaria, 2016-07-18. Nicolas Blain, Baterako bozeramailearen iritzi artikulua, “Orain tresna gauzatzeko garaia da”, <http://eu.enbata.info/artikuluak/orain-tresna-gauzatzeko-garaia-da/>

79 Loi n°2015-991 du 7 août 2015 portant sur la Nouvelle Organisation Territoriale de la République, (NOTRe), <https://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000030985460&dateTexte=&categorieLien=id>

sortutako Akitania Berria izeneko eskualdearen parte izatera pasa ziren Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. 310.000 herritarrek osatutako Ipar Euskal Herria 5,8 milioi bat biztanleko eskualde handiaren parte izatera pasa da horrela. Lehengo Akitaniako populazioaren %10 izatetik, Akitania Berria eskualde handiko herritarren %5 izatera pasa dira euskal herritarrak. Honekin batera, herri elkargo txikiak handiagoetan batzea ekarri zuen prozesu honek.

NOTRe legearen eskutik abiatutako lurralde erreformaren helburuak Frantziako instituzioen kontzentrazioa eta birzentralizazioa dira, (Urrutikoetxea, 2017) eta aldaketak ez dira oraindik amaitu. Iragarri bezala departamenduaren maila desagertzeak aukera berriak irekiko lituzke, elkargoak eskuduntza berriak eta aurrekontu handiagoak eskuratzeko bidea ireki.

Euskal Hirigune Elkargoa

...”Hogei urtez pasa, eskatu dugu, mugitu gira, beti ta nonbre haundiagoan, beti ta aniztasun gehiago zuen mogimenduan: hautetsi, langile, enpresari, laborari, erakasle, ikasle, gizon eta emazte, zahar eta gazte... Hasiera batean, eskatzen ginduen etxe horri, “Departamendu” baten plana emana gindakon... Gero, “Lurralde Kolektibitatearena”... Eta orai, “Euskal Herri Elkargoarena”. Plan batetik bestera, ez da baitezpada diferentzia haundi haundirik, bainan, iduriz, hau onartu dute...

Ez dira hain segur, “gain hartan” bihotz haundikoak bilakatu bapatean! Bainan, beti errefusatzea ez zitaien gehiago posible: Demokratik omen dira, eta behar dute itxura salbatu!! Beharrik ez dugula amore eman hogei urte horietan! Beharrik, bakoitzak bere sailetik egin duela bere ahal guzia! Aipatu behar da hemen Bateraren akuilu eta zubi lana 2002-ko urteaz geroztik eta azken hilabete hauetaraino, Iparralde guzia zeharkatu duen karabana pedagogikoa antolatuz... Garapen Kontseilu eta Hautetsien Kontseiluen lan paregabea ere goraiatu behar da, batez ere azken lau urte hauetan, lehenik Lurralde Kolektibitateari buruz, eta gero Euskal Herri Elkargoari buruz. Eta nolaz ez gure hautetsiak: ehunka bildu direnak Hazparneko tailerretan, eta gure Herriko Kontseiluetan lan egin dutenak, herrien bi herenek Euskal Herri Elkargoaren alde bozkatzeko gisan!

Bai, zinez, gure etxea eraikitzeo prozesua luzea izan da, batzuetan etsitzekoa... eta memento berean balio haundikoa, parte hartzailea, osoki demokratikoa! Herrialde guttik izan dute parada esperientzia aberats hori bizitzeko. Orain eraikiko den etxeak istorio hori guzia berekin izanen du, horrek emanen dako legitimitatea, horregatik ditu fundazioak azkar. Izan da debate, eta ezadostasun ere: zer da gauza normalagorik? Aniztasuna eta demokraziaren oinarria da hori. Bainan orain emaitza hor da: Herrien gehiengo zabal batek aldeko botua eman du, eta demokrazia beraren izenean, emaitza hori errespetatu behar da! Ez da atzera itzultzerik! Iparralde hunek momentu historikoa bizi du!...”

2016-07-27, Bateraren ekitaldiko hitzartzea⁸⁰

2017. urtea hastarekin batera sortu da, beraz, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bildu dituen berezko lehen instituzioa. Euskal Elkargoak lurraldetasunaren aitopenen balio erantsia du, eta ibilbide luze baten emaitza da ezbairik gabe bere sorrera.

Hiru mailatan deszentralizatzen da Frantses administrazioaren baitan eguneroko kudeaketa: erregio edota eskualdeak, departamenduak eta udalerriak. Estatu mailako administrazioaren deszentralizazioan oinarritzen den egituratzearen maila bat baino ez da Euskal Hirigune Elkargoa, unitate administratibo txikiak diren udalerrien arteko elkarketaren emaitza eta lehen maila administratiboan kokatzen dena. Izenak dioen gisan, HELEP, HErriarteko

80 2016ko uztailearen 27ko Batera plafatorma herritarraren ekitaldiko hitzartzea:
<http://www.batera.info/page/3/?lang=eu>

Lankidetzarako Erakunde Publikoa da, hau da, politika publiko komunak garatzeko herriko etxeen eskumenak partekatzen dituen egitura.

Ipar Euskal Herrian zeuden hamar herri elkargoen fusioaren emaitza da, herri ia guztietako⁸¹ ordezkarien eta biztanleriaren arabera proportzionalki eratua. 2.967 km²ko azalera eta 158 udalerrri ditu eta lehengo 10 elkargoez osatua da: Euskal Kosta-Aturri Hirigunea (5 udalerrri), Hego Lapurdiko Hirigunea (12 udalerrri); Errobi herri elkargoa (11 udalerrri); Errobi-Aturri herri elkargoa (6 udalerrri); Hazparneko lurraldea (11 udalerrri); Amikuzeko herri elkargoa (27 udalerrri); Bidaxuneko herri elkargoa (7 udalerrri); Garazi-Baigorri herri elkargoa (30 udalerrri); Iholdi-Oztibarreko herri elkargoa (13 udalerrri) eta Zuberoako herri elkargoa (36 udalerrri). Honekin batera, zaborraren tratamendua, garraioa, uraren kudeaketa... eskumen zehatzak kudeatzen dituzten herriarteko sindikaten edo beste motatako egituren antolaketan ere aldaketak⁸² ekarri ditu elkargoa bateratzeak.

Estatu zentralari dagozkio botere legegilea zein erabakitze ahalmena, Euskal Hirigune Elkargoari, berriz, kudeaketa ahalmena. Horrela, Frantses Legebiltzarrak finkatutako legeen ondorio diren politika publikoak egiteko eta kudeatzeko gaitasuna du, baina ez du legeak egiteko eskumenik, ez eta erabakitzeko ahalmenik ere. Bere eskumenak iraganeko hamar herri elkargoez zituztenak berberak dira, eta aitzineko hamar elkargoez erabilitako diru kopuru bera dauka.

Honako eskumenak⁸³ ditu bere gain: garapen ekonomikoa, eremu komunitarioaren kudeaketa, etxebizitzaren oreka soziala, hirigintza, garraioak eta mugikortasuna, ura zein hondakinen kudeaketa eta hurbiltasuneko zerbitzuak (haurtzaindegia, kirol instalazioak...). Bestalde, udalerriek hala erabakita, hautazkoak ziren zenbait eskumen garrantzitsu ere eskuratu ditu elkargoak, horrela, Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak eskatu bezala, hastapenetik hartu du hizkuntza eta kultura politikaren eskumena, eta baita mugaz gaindiko lankidetzarena ere.

Euskal Elkargoaren antolaketa eta gobernantza

233 kideko elkargo kontseiluak, 69 kideko batzorde iraunkorrak eta 20 kideko bulegoak osatzen dute Elkargoa. Hiru instantzia edo organo erabakitzaile nagusik gobernatzen dute elkargo bakarra: Elkargo Kontseiluak, Kontseilu Iraunkorrak eta bulego edo batzorde eragileak⁸⁴.

81 Ipar Euskal Herriko ia udalerrri guztiak barne hartzen ditu Elkargoak, Jeztaze eta Eskiula herriak salbu; gainera, Biarnoko Lixoze udalerrria ere barne hartzen du.

82 Enbata aldizkaria, 2017.05.22. *Agglo et syndicats*, <http://www.enbata.info/articles/agglo-et-syndicats/>

83 Elkargoak ez du gai hauen inguruko eskumenik: hezkuntza, osasuna, indar armatuen kudeaketa, tren zerbitzu, administrazio, justizia, gizarte politikak edota berdintasuna, eskumen horiek Frantziako Estatuari baitagozkio.

84 <https://www.communaute-paysbasque.fr/la-communaute-pays-basque/lorganisation/les-conseils>

Elkargo Kontseiluan 158 herrien ordezkariak biltzen dira, 233 hautetsi orotara, eta bertan hartzen dira erabaki garrantzitsuenak, aurrekontuari zein eskuduntzen transferentziari buruzkoak kasu. Kontseilu honek du erabakitzen zein gai eta zein lan utzi Kontseilu Iraunkorren esku. Bestalde, Kontseilu Iraunkorra lurraldeen arteko oreka zainduz ordezkari-tza demografikoaren arabera hautatutako 69 kidek osatzen dute (exekutibako kideak gehi elkargo kontseiluak hautatutako 44 kide); eta azkenik, sentsibilitate politiko ezberdinen presentzia bermatzen duen bulegoa edo exekutiba dago, elkargoko Lehendakaria⁸⁵, 15 lehendakariorde eta beste bederatzi kontseilariz osatua. Hau da egunerokoan bilduko den batzordea, egun herriko etxeetan eta herri elkargotan egiten den gisan.

Ondoan, hurbileko zerbitzua bermatzeko, oraingo hamar herri elkargoen eremuko lurralde poloak eta eskumenen arabera sindikatuak dituzte. Bestalde, bi aholku batzorde ere badira: Auzapezen Biltzarra batetik, eta gizarte zibileko eragileek osatzen duten Garapen Kontseilua, bestetik.

Hamar herri elkargotik bakarrera pasatzearen prozesuan, kostalde-barnealde oreka bermatzea, herri txikien ahotsa eta interesak zaintzea edota egitura berriaren legitimitate demokratikoa ziurtatzea izan dira kezka iturri nagusiak.

Erronka berriak

Lurraldetasunaren ikuspegitik berezko eskumenik ez badu ere, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa ordezkatzeko dituen historiako lehen egitura da Euskal Hirigune Elkargoa. Sortu eta bi urtera, 2019ko urtarrilean, Iparraldeko gobernantzari buruzko herritar audita⁸⁶ edo ikuskaritza eman zuen ezagutzera Baterak. 2018ko urritik abendura herritarrengandik jasotako ekarpen eta ikuspegiak jasotzen dituen txostenean 27 gomendio eraikitzaile egin zituzten Elkargoaren ibilmoldearen hobetzean eragiteko. Oro har elkargoaren ibilmoldearekiko iritzi baikorra jasota, 'beste tresna batzuei buruz' lan egin behar dela azpimarratu zuen Baterak⁸⁷, estatus bereziko lurralde kolektibitatea lortzera begira.

Eskumen urriak izaki, subjektu politiko eta instituzional berria urrun da autonomia mailako erakundea eraikitzeko beharrezkoak diren eskuduntzak izatetik. Hala ere, aurrera begira fase eta egoera berri baten abiapuntu ere izan daiteke, erreformaren baitan, elkargo berriek

85 Jean-René Etcheagaray da Euskal Hirigune Elkargoko presidentea. Baionako auzapeza da, eta Baterako kidea ere bai. Politikari zentrista izan arren, abertzaleen aldarrikapenak bere egiten ditu.

86 Batera plataforma (2019). *Iparraldeko gobernantzari buruzko herritar audita, 2019ko urtarrila*. Txostena: <http://www.batera.info/wp-content/uploads/2019/01/Herritar-Audita.pdf>

87 Berria (2019-01-26). Nicolas Blain: "Euskal Elkargoaren menpe gelditzea da arriskua". <https://www.berria.eus/paperekoa/1857/009/001/2019-01-26/euskal-elkargoaren-koadroaren-menpe-gelditzea-da-arriskua.htm>

departamenduko edo eskualdeko hainbat eskuduntza eskuratu ditzakeela aurreikusten baitu legeak, betiere erakunde ezberdinen artean adosturiko prozesu baten baitan. Horrela, erakundearen bilakaeraren arabera garatuko da bere ahalmena bera, hortaz, erakundearen ordezkari politikoen indar korrelazioaren eta herritarren bultzadaren arabera, Estatuak, Eskualdeak eta Departamentuak bereak dituzten zenbait eskumen Elkargoaren esku gera litezke etorkizunean.

Euskal Elkargoak sufragio unibertsalik ez du oraingoz, eta bertan parte hartzen duten ordezkariak ez dira hauteskunde bidez zuzenean hautatuak izan, herriko-etxe edo udalen osaketaren arabera zeharka hautatuak baizik. Litekeena da aurrerago hori aldatzea, momentuz, ordea, jakina dena da 2020ko herriko etxeetako bozek garrantzia handia izanen dutela IEH mailako gobernantzan.

Berriki Frantses gobernuak abiatutako konstituzioaren erreformaren eztabaidan, instituzioen inguruko hainbat neurri eztabaidagai dira uneotan. Besteak beste, esperimentazio sistema indartzea aurreikusten da, eta diferentziazte eskubidea aitortzea aipatzen. Honek, lurralde bakoitzari egokitutako arauak sortzeko aukera eskainiko luke, lege berdintasunaren aurka jo gabe. Esperimentazioa baliatzen ari da egun Ipar Euskal Herrian eskola publikoetan murgiltze eredu hedatzeko, eta eskaera orokorragoak aurrera eramateko bide gisa ikusten dute hainbatek, besteak beste, euskarari estatus berezi bat eskaini ahal izateko tresna gisa.

Konstituzioan diferentzia eskubidea sartzeak ondorio onuragarriak izanen lituzke Ipar Euskal Herriarentzat, eskumen eta ahalmen gehiagoren ardura hartzeko aukera litzatekeelako. Gaia, ordea, eztabaidan da oraingoz, eta honen inguruko baldintzak eta mugak zeintzuk liratekeen ere ez da hain argi.

2.2. Hizkuntza politikaren eskumena

“Zer goaita dezakegu egitura berri honekin euskarari buruz? Egoera orokorki neurri handi batean aldatu da. Orain arte, Iparraldean euskara herririk gabeko herri hizkuntza zen, elkarrekin bizkor atxiki dutena euskarri publiko gutirekin. Orain bi urraspide luzeren bidegurutzean gara, euskalgintzarena eta herrigintzarena. Asma dezakegu zer gertatuko den ikusiz adibidez euskarazko ikaskuntzak zer aitzinamendua egin duen “Euskal Herri 2010” prospektibak sortu zuen egitura brikolatuaren bidez. Euskal Elkargoak, besteak beste, kultura eta hizkuntzaren eskuduntza ukanen du. Orain bere hizkuntza politika martxan ezar dezake”⁸⁸.
(Bachoc, 2016)

NOTRe legearen 104. artikulua⁸⁹ ofizial egin zuen ‘eskualdeko hizkuntzen sustapena’ izendaturiko eskumena, herri, departamendu, eskualde eta araudi bereziko elkargoen arteko eskumen partekatua dela zehaztuz. Hizkuntza politikaren arloan, bertan erabakitzeko beharra larria dela ulerturik, eta arlo estrategiko honetan Ipar Euskal Herriak ahalik eta ahalmen zabalena izatea ezinbestekoa dela jabeturik, sortu eta berehala hartu zuen Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntza politikaren eskumena, 2017ko otsailaren 4an. Egun batzuk beranduago izendatu zuten Beñat Arrabit hizkuntza politikako lehendakariorde.

Eskumena hartzearekin batera, egiteko zehaztu zituen elkargoak; batetik, herriez eta herrien arteko elkargoez osatzen den herri blokearen eskumenetan oinarritzen zen hizkuntza politika propioa zehaztu eta aurrera eramatea, euskara erakundearen eskumen eta politika guztietan sartuz; eta bestetik, EEPren barnean, koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko hizkuntza politika partekatuaren estrategia eta despositibo partekatuak bultzatzeko konpromisoa garatzea, Estatuarekin, Eskualdearekin eta Departamenduarekin batean.

Norabide horretan, 2018ko ekainaren 23an, bi delibero⁹⁰ hartu zituen elkargoak. Horrela, bilkura berean, Euskal Elkargoko Herriarteko Kontseiluak euskara bere lurraldeko hizkuntza gisa ofizialki aitortu eta Euskal Hirigune Elkargoaren euskararen aldeko hizkuntza politika proiektua onartu zuen, Euskal Hirigune Elkargoaren esku hartzearen erreferentziazko koadroa osatzen duen proiektua: ‘Euskara jalgi hadi plazara’.

Lehen aldia izan zen gisa honetako aitortpena jasotzen zuena euskarak Ipar Euskal Herriko instituzio publiko baten aldetik. Euskararekin batera, okzitaniar gaskoia⁹¹ ere onartu zuen

88 Bachoc Erramun, kazeta.eus, 2016/11/07. *Euskal elkargoa eta euskararen bihurtzea*. https://kazeta.naiz.eus/eu/info_kz/20161107/euskal-elkargoa-eta-euskararen-bihurtzea

89 Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 1111-4

90 2018-06-23ko deliberoa: https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Langue/Deliberation_reconnaissance_langue_basque

91 Elkargoak hizkuntza politika proiektua bozkatu aitzin diagnosi bat egin zuen okzitanieraren eta kulturaren inguruko elkarrekin zertan ziren ikusteko, eta hamabi gaskoi elkarte identifikatu zituen lurraldean. Egun,

elkargoak lurraldeko hizkuntza gisa, frantsesaren ondoan. Beraz, euskarari zein gaskoiari izaera ofizialik onartu ez baina ezagupen ofizial bat eman zaie, juridikoki eraginik eduki ez arren, balio sinboliko handikoa, eta Euskal Elkargoak hizkuntza arloan garatu beharreko lanari babes politiko zabala eskaintzen diona.

Euskararen aitortza ofiziala egin izanak elkargoak euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta eramateko duen borondatea berresten eta sendotzen zuela ulerturik, pozik agertu zen Euskal Konfederazioa:

“2017ko otsailean hizkuntza politikaren eskumena hartzea erabaki zuenetik joan den larunbateko bi delibero horien bozkara, hautetsiek osatu Euskara batzordearen xutik ezartzetik pasatuz, erran dezakegu orain arte Euskal Elkargoak bere bizi laburrean euskarari dagokionez egin duen ibilbidea baikorra dela. Bi delibero horien edukia kontuan hartuz, oinarri sendoa dugu ipar Euskal Herrian jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa emateko euskararen aldeko hizkuntza politikan. Orain hizkuntza politika horren obratzea izanen da Euskal Elkargoaren betebeharra, hots erakutsi asmo onetatik ekintzetara pasatzea. Erronka polita, lan handia eskatuko duena. Orain arte egin bezala hizkuntza politika proiektua eraikitzen laguntzerakoan, Euskal Konfederazioa eta bere kideak elkarlanerako prest dira, bakoitza den lekutik eta duen funtzioa gogoan harturik, lan handi horretan denek baitugu zer ekarri eta zer proposatu”.

Euskal Konfederazioa, 2018-06-23

Euskal Elkargoa, EEPko kide

Estatuarekin, Departamentuarekin, eta Eskualdearekin batera, Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) kide da Euskal Hirigune Elkargoa. Eskumena partekatua izanik, lau instituzioen ordezkarien artean hartzen dituzte erabakiak EEPn, eta lauek dute erabakiak baliabidez hornitzeko ardura. Euskal Elkargoak hartu du aurretik herrien arteko sindikatuak betetzen zuen tokia, eta baita erakunde ezberdinen arteko lerro-gidari izaera ere.

2006an hasi zen IEHn hizkuntza politika publikoa egituratzen, eta urte horretan bertan zehaztu zuen EEPk bere hizkuntza politika, ‘*Hiztun osoak helburu - Haur eta gazteak lehentasun*’ proiektuan⁹². Honela, berau obratzeko zeregina izaten jarraitzen du EEPk, bereziki bere gain harturik irakaskuntzaren egituratze eta garatzea, Frantziako Hezkunde nazionalarekiko harremana adibidez, zein eragile pribatuei laguntza ematea. Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikak EEPren baitan zehazten eta egikaritzen den hizkuntza politika partekatuarekin bat egiten du, eta egitasmo osagarriak izanik, ekimenen koherentzia eta eraginkortasuna bermatzearen osagarritasunean jardungo dute.

elkargoan okzitaniar gaskoiaz arduratzen den teknikari bat dauka Elkargoak.

Gaian sakontzeko: Enbata, 2017/07/12. Jakes Bortayrou, ‘Euskal Elkargoa eta gaskoiak’ artikulua: <http://eu.enbata.info/artikuluak/euskal-elkargoa-eta-gaskoiak/>

92 EEPren hizkuntza politika proiektua, ‘*Hiztun osoak helburu - haur eta gazteak lehentasun*’ txostena: https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf

Elkargoaren helburua, EEPren barnean estrategia eta despositibo partekatuak martxan jartzea izanen da. Beraz, elkargoko teknikariak beren eskumenetara mugatuko dira, eta bide batez, EEPk egun jorratzen ez dituen arlo berri batzuk jorratuko dituzte.

Bere eginkizunei jarraiki, EEPk bere kideen (Estatua, Eskualdea, Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa) eskumen eremuetan eragiten jarraituko du, hiru alor nagusiren bitartez: dirulaguntzen banaketaren kudeaketa (bereziki aisialdia, euskarari dagozkion ikerketak, komunikabideak eta helduen euskalduntze-alfabetatzean), euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garatzea eta egituratzea eta bizi sozialean euskararen presentzia bultzatzea. Honekin batera, bere eginbeharren artean kokatzen dira EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoko hizkuntza eragileekin akordio eta harremanak⁹³ edota behatoki eta neurketa funtzioak ere.

Elkargoaren hizkuntza politika

Euskal Hirigune Elkargoak anbizio handiko hizkuntza politika definitu eta gauzatu nahi du, bakoitzaren hautu librea bermatuz eta lege oinarriaren errespetuan. Hitzun osoak sortzeko beharrezkoak diren baldintzak antolatu nahi ditu: gizartearen atxikimendua, euskara transmititzeko eta erabiltzeko aukerak. Euskal Hirigune Elkargoak 2017ko otsailaren 4an hartu eskumenak zehazten du bere hizkuntza politika herri blokearen eskumenetan oinarrituko dela. Ekintza publikoaren lurraldeko antolaketan, herriak eta herrien arteko elkargoak biztanleendako hurbileko solaskideak dira. Garatzen dituzten biztanleendako zerbitzuetan, jendeen eta familien biziarendako funtsezkoak diren hainbat jarduera daramatzate. Beren egunerokotasunari eta bizi proiektuei eragiten diete. Ondorioz, nagusiki erabiltzailearekiko harremanean oinarritzen diren zerbitzu horiek euskararen erabiltzeko eta/edo transmititzeko paradak izan daitezke ere. Euskara, jalgi hadi plazara hizkuntza politika proiektua, 2017 Proiektuaren printzipioak ataletik

Hizkuntza politika zeharkako politika dela ulerturik, Euskal Elkargoak dituen eskumenen araberako 21 fitxa tematiko osatu dituzte ‘Euskara, jalgi hadi plazara’ dokumentuan, elkargoko sail bakoitzaren egoera azterturik, arloz arlo egin beharrekoaz orientabideak emateko. Helburuei begira, EEPren ildo beretik jo dute elkargoko hizkuntza politikan ere, hitzun osoak lortzeko ahaleginean eta euskara arlo guztietan zehar-lerro gisa integratzeko ikuspegian. Horretaz gain, dagozkion ekintzak sektorekako politika bakoitzaren barnean zehazten diren aitzinkontuen bitartez diruztatuko direla zehazten da.

Bi dira zehazki proiektuaren helburuak: batetik, Euskal Elkargoak, herriek eta udal alorreko beste eragileek herritarrei proposatzen dizkieten zerbitzuetan eskaintza elebiduna egitea; eta bestetik, herritarrak sentsibilizatzea, euskarazko dinamikak gara ditzaten bizi inguruneetan.

93 Argia, 2017-07-03, Euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herriko erakundeek, <https://www.argia.eus/albiste/a/euskara-sustatzeko-hitzarmena-sinatu-dute-nafarroa-eae-eta-ipar-euskal-herriko-erakundeek>

Herri blokearen eskumenetan sartzen diren eta Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikarentzat estrategikoak diren 21 esku hartze eremu hartu dira kontuan proiektuan. Esku hartze eremu bakoitzarentzat orientabide fitxak osatu dira, eta fitxa bakoitzean erronkak, helburuak eta orientabideak definitu dira, hiru multzotan banaturik: transmisioaren multzoa, erabilpenarena eta sustengu eta zeharkakoena.

Transmisioaren multzoan, euskararen transmisioan eragin dezaketen lau esku hartze eremu banatzen dira: irakaskuntza, lehen haurtzarora, aisialdiak eta helduen euskalduntzea. Erabilpenaren multzoan, euskararen erabilpenaren garapenean eragin dezaketen 12 esku hartze eremu definitzen dira: kultura, mugikortasuna, jenderenganako zerbitzuak, ura, hondakinak, antolamendua, trantsizio energetikoa eta ekologikoa, garapen ekonomikoa, turismoa, goi mailako irakaskuntza, herriak eta sindikatuak eta herriarteko erakundea. Eta azkenik, sustengu eta zeharkako funtzioen baitan, aurrez aipatutako eremuetan aritzeko beharrezkoak diren bost arlo daude: formakuntza profesionala, itzulpengintza, informazio eta sentsibilizazio estrategia, ebaluaketa despositiboa, eta mugaz gaindiko lankidetzak.

Eragileekiko lankidetzak bultzatzea eta partaidetzak lotzea izango da elkargoaren ibilmoldearen erdigunean. Hala, gizartearekiko lankidetzan, elkargoa, elkarteak eta euskalgintza batuko dituen elkar-aditze despositibo iraunkorra osatuko litzateke, hizkuntza politikari buruzko proposamenak bildu eta ebaluaketa zein egokitzapen lanak elikatzeko.

Jarraipena eta ebaluaketa ere finkatu dituzte ibilmoldearen ardatz gisa, eta horretarako, jardunak euskararen transmisioan eta erabileran duen eragina neurtzeko ebaluaketa despositiboa osatuko dute.

Hizkuntza politika zerbitzua

Hizkuntza politika proiektua onartu eta saila antolatzen aritu dira lehen hilabeteetan. Aurretik jadanik baziren zortzi herri elkargoetako zerbitzuak eta euskara teknikariak bateratu dira — Euskal Kosta Aturri Hirigune Elkargoan eta Bidaxunen ez baitzen—, eta horri zerbitzuaren arduraduna gehitu zaie. Orotara 15 euskara teknikari ditu Euskal Elkargoak egun, eta beste teknikari bat dago, gaskoi hizkuntza eta kulturaz arduratzeko.

Antolaketa finkatzea izan da zerbitzuaren lehen egitekoetako bat. Horrela, bi zonalde edo sektoretan banatu dute lurraldea: kostaldeko eremuak hartzen dituen lehengo Hego Lapurdiko eremua, BAB eta Errobi batetik, eta barnealdeko eremua osatzen duten lehengo beste zazpi elkargoen eremua hartzen duena.

Transmisioa eta ikaskuntza, herrien laguntza, herriarteko politiken laguntza, sustengu tresnak eta ebaluaketa eta elkar aditzea dira definitutako arloak⁹⁴. Arlo bakoitzak du bere arduraduna, eta zonalde bakoitzean teknikari bat izanen da dagokion eremuan arloaz arduratzeko.

Hizkuntza politika proiektuaren obratzea urtetik urtera egingen da, lan egitarau zehatzen barnean neurri zehatzak xedatuz. Finkatutako helburuei begirako eraginkortasuna neurtu ahal izateko, honen jarraipen eta ebaluazio iraunkorra eramanen du zerbitzuak.

Bestalde, beren egituren barnean euskara zerbitzuak zein teknikariak zituzten 10.000 biztanle baino gehiagoko hiru hiriek, hau da, Hendaiak, Biarritzek eta Baionak, aitzina segitzen dute dagokien hirietan. Izan ere, hizkuntza politika zeharkako politika partekatua izanik, herriek ere euren eskumen eremuetan hizkuntza politika egikaritzeko aukera, eta ikuspegi hori bultzatu nahi izan du elkargoak.

Esperimentazio lurraldea

Lege bermerik ezean, Ipar Euskal Herriko hizkuntza politikek borondatea dute oinarri. Borondatezko koadroan obratzen da hizkuntza politika, hiltun eta eragileen hautu librearen errespetuan. Koadro honetan garatu da orain arte hizkuntza politika, eta nabarmen aitzinatu ere, baina lege bermerik ezean, tolerantzia jarrerak ez du bere horretan politikaren garapena oztopo juridikoetatik babesten, eta azken hamarkadetan etengabeak izan dira honen ondorioak: lurraldeko funtzio publikoko postuetan euskara eskatzeko ezintasuna, herri batek ikastola berria eraikitzeko ezintasuna edota egoera zibileko agirietan frantses alfabetoan erabiltzen ez diren zeinu bereziak erabiltzeko ezintasuna dira esate baterako horren adibide argi zenbait.

Honen aurrean, Frantziako legediak konstituzioko lege-esperimentazio mekanismoak aurreikusten ditu, eta bide hau ikusten du elkargoak oztopo horiek gainditzeko aukera gisa, legez edo dekretuz, legezko zenbait neurri ez betetzeko aukera baimentzeko.

⁹⁴ Transmisioan eta ikaskuntza arloan lehen haurtzarora, aisialdia, komunikazio euskarriak zein helduen euskalduntzea kokatzen dira. Herrien laguntza arloan sartzen dira herriko etxeekin hobekuntza kontratuen kudeaketa, laguntza orokorra zein herrietako euskara teknikariekin elkarlana. Herriarteko politiken laguntza arloak euskara txertatzeko herriarteko zerbitzuen laguntza, sentiberatze estrategiak, Euskararen Urtarora edo Euskaraldia bezalako ekimenak zein lurralde eremuen animatzea hartzen du bere gain. Sustengu tresnen artean kokatzen dira itzulpen zerbitzuak, euskarazko formakuntza profesionala, finantzak eta giza baliabideak eta mugaz gaindiko lana. Eta ebaluaketa eta elkar aditzearen arloan daude hizkuntza politikaren jarraipena eta ebaluaketa, elkar aditze despositiboaren jarraipena eta zaintza juridikoa. Seigarren arloa gaskoi hizkuntza eta kulturak osatzen dute, eta honen gain dira berau bultzatzeko herri, elkarte zein herriarteko zerbitzuei laguntza eskaintzea eta gaskoi hizkuntzaren beste eragileen solaskide papera ere.

Horrela, hizkuntza esperimentazio proiektua definitzeko azterketa lana abiatua du elkargoak, oztopo juridiko posibleak aurreikusi eta neurriak definitzeko. Esperimentazioa baliatzeko eskubidearen aitortza Errepublikako gobernuari galdetuko lioke elkargoak beste eragile publikoekin elkarlanean. Ipar Euskal Herria esperimentazio lurralde izendatzea litzateke, hain zuzen ere, euskararen aldeko politika publikoa eraikitzeko bidean urrats berriak zabal ditzakeena.

3. atala: Egungo egoera, muga, indar eta erronka nagusiak

Euskararen eremuan erreferente diren eragile eta pertsonen ikuspegiak jaso nahi izan dira atal honetan. Hauek dira atal honetan parte hartu duten kideak: Haizpea Abrisketa Kontseiluko langilea, Sébastien Castet Euskal Konfederazioko bozeramailea, Sylvie Chenal Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikako zuzendariordea, Eneko Gorri, Barritzeko euskara teknikaria, Eneritz Zabaleta, zuzenbide irakaslea eta euskararen estatus juridikoaren inguruko ikertzailea eta Jean-Claude Iriart, Baionako herriko etxeko hautetsia eta Euskal Hirigune Elkargoko Kontseilu Iraunkorreko kontseilaria.

3.1. Lege-babes falta muga gisa

Jakina da Frantziako legediak frantsesaren eksklusibotasuna babesten duela, hizkuntzak babestearen gainetik pasaz. Frantsesa ez diren beste hizkuntzekiko errepresio linguistikoa aplikatu izan duela azaltzen du Zabaletak, eta orain errepresio politika hori lehen zen bezalakoa ez izan arren, tolerantziaren gain utziz, politika bat plantan ematea oso zaila dela dio: *“problema zein da? Ba frantsesaren derrigortasuna legeetan, konstituzioan, epai-erabakietan... argi eta garbi adierazia den zerbait dela. Eta parean, ba frantsesaz gain beste hizkuntzak erabiltzen ahal direla ez da inon oso argi eta garbi adierazten, inplizitua da”*.

Konstituzioaren 2. artikulua eremu publiko guztietan frantsesa derrigor erabili beharra ekarri zuen, eta 2008 aldaketa gertatu zen: *“2008an egia da konstituzioan nolabait kontrapuntua izan zitekeen artikulua bat bozkatu zela, 75.1 artikulua, erraten zuena Frantziako eskualdeetako hizkuntzak ondare zirela, problema da hortik ez dela deus garatu maila juridikoan. Ez zaio ondoriorik eman”*. Honela, frantsesaren derrigortasunaren ondoan beste hizkuntzak erabil daitezkeela onartu zen, betiere ez bada eskubiderik sortzen eta hautazkoa bada. 2008ko 75.1 artikulua ekarritako aldaketa hori maila juridikora deklinatu beharra aldarrikatzen du Eneritz Zabaletak.

Lege babesik ezean, tolerantziaren eremuan egoteak dakartzan ondorioak aipatzen ditu adituak, izan ere, tolerantzia horrek zirrikitu zenbait ireki arren, zehaztapen falta horrek euskararen kontra jotzen baitu: *“gertatzen dena da, ez delarik arazorik, inor ez badao epaitegietara, gauzak aplikatzen direla, eta tarteka egonen dira arazo batzuk, baina tira, aplikatzen dira”*.

Problemak legedia horiek aplikatzerakoan erresistentziak aurkitzen direnean sortzen direla aipatzen du Zabaletak, *“estatuaren administrazio batzuk kasu larrienetan epaitegietara joaten direnean, ba epaileek zer egiten dute? Sistematikoki Frantsesaren derrigortasuna babestu. Hori argi eta garbi adierazia delako eta bestea inplizitua delako”*. Horregatik azpimarratzen du 75.1 artikulua garapenaren beharra, beste hizkuntzei beste estatus bat emateko bide gisa, *“konflikto juridiko bat badelarik, aldiro frantsesaren derrigortasunak irabazten”* baitu. Ondorioz, tolerantzia horrek intseguritate larria pizten du: *“galdetzen dizutelarik: hau posible da, bai edo ez? orduan esaten diezu: ‘ez bada inor epaitegietara joaten, egiten ahal da, epaitegietara joaten bada, ba nik ezin dizut esan’... beti bada duda hori”*.

Honi loturik, hirietan, eta elkargoan ere hein batean, ‘alegalitate’ egoeran lan egiten dutela azaltzen du Eneko Gorrik, Biarritzeko euskara teknikariak: *“erran nahi du euskara ez dela ilegala, ez dela legala ere ez, legalitatetik kanpo da, koadro juridikotik kanpo da”*. Euskararen gaia ‘halako lausotasun batean’ kokatzen dela dio, *“ez dakigu zer egin daitekeen eta zer ez, eta horrek operazionalitatea zailtzen du, batez ere administrazio mailan”*.

3.2. Kontraesanak eragindako talka nabariak

Euskararen kasuan erroko kontraesana ematen dela dio Zabaletak, izan ere, frantses ereduak frantsesaren derrigortasuna babesten duenez, *“pentsa genezake beste hizkuntzentzat oso leku murrizta egon daitekeela edota lekurik ez dela, eta hori da Parisen parlamentuan eztabaidak segitzen ditugunean buruan duten koadroa: frantsesaren derrigortasuna babestu eta irakaskuntzan ba zergatik ez irakatsi beste hizkuntzak”*. Baina Ipar Euskal Herrian hori gaindituta dagoela uste du, *“2004tik EEP sortu zenean eta are eta gehiago Euskal Elkargoa sortu zenean eta 2018an bere hizkuntza politika bozkatu zuenean, maila lokalean instituzio guztiak eman ziren ados erranez koadro horrez gain behar genuela euskara salbatzeko, sustatzeko, laguntzeko politika aktibo bat, beraz, aipatu behar da, badela jada kontraesan bat gaur egun egiten denaren eta Frantziako koadroaren artean”*.

Ugariak dira kontraesan eta talka horien adibideak: Uztaritzeko herriko etxearekin gertatua zein azkenaldian euskarazko irakaskuntzaren murgiltze ereduaren harira izandako deklarazio publikoen harira piztutakoak dira besteak beste tentsio horren erakusle. Sébastien Castet Euskal Konfederazioko bozeramaileak egun euskararen kontra bizitzen ari direna ‘eraso zuzena’ dela salatzen du, *“ez bakarrik eskolaren gaiaren aurka, orokorki hizkuntza politikaren kontra”*. Gai politikoa dela dio argi Konfederazioak, eta ez medio edo baliabide istorioa, *“hori aitzakia da, badakigu murgiltzea eraginkorra dela, murgiltze-ereduan diren hurrek frantsesa besteek*

bezain ongi ikasten dutela... beraz horiek aitzakia hutsak dira, guk maila politikoan kokatzen dugu hori”.

Elkargoa euskarari ‘hasieratik txiki’ gelditzen zaiola dio Haizpea Abrisketak: *“bere garaian aipatzen zen departamentua behar zela, ofizialtasuna, Bateraren aldarrikapenak, gero aipatu zen lurralde kolektibitatearena, horrek emango ziola... egia da asko Korsikari begira gaudela, eta Ipar Euskal Herrian estatusaren aldetik ez, baina nik uste dut potentzial gehiago dugula, inmertsio eredia dugu...”* Desoreka ikusten du Abrisketak, *“txaketa horretan ez gara gehiago sartzen, eta elkargoaren problema da hasi denean jada txiki geratu zaigun arropa dela”*. Hori ere, ona izan daitekeela dio Kontseilukoak, *“handitzera besterik ezin du jo, baina ze preziotan ez dakigu”*. Gauzen bilakaera ikusi beharko dela azpimarratzen du, beraz.

Illo politikoa garatzen ari da bete-betean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Kontseiluko langile den Abrisketak euskara politika publikoen oinarrietako bat izan behar dela nabarmentzen du, *“beti bilatzen dugu euskara ez izatea lehia politikorako gai bat, baizik eta zerbait egonkorra, generoarena den bezala, edo ingurumenaren gaia den bezala, politika publikoen oinarrietako bat, eta hori ezin da eman”*. Ñabardurekin, hizkuntza politikan egin den lana ‘txalotzekoa’ dela dio, baina argi adierazi ere aldi berean estatusari begira saltorik ematen ez bada, ez duela ibilbide handiegirik edukiko. Horregatik, ofizialtasunaren gaia mahaigainean jartzeko borroka aurrera eramaten jarraitu behar dela argudiatzen du, *“badago jarrita, baina mahai txiki bat dugu, eta jarrita dagoen moduan ahal da kenduta egon, eta esaten digutenean: ‘hizkuntza politikaren eskumena dugu’, ez, ez daukazue, zure borondatean oinarritutakoa da: gauza asko egin ditzakezu, baina administrazioak ez dauka egiazki eginkizunik horren inguruan, eta hor dago arriskua”*.

Jean-Claude Iriarten arabera, Ipar Euskal Herrian *“ikusten dugularik lurraldeaz haratagoko erakundeek dutela ainitz gauza kudeatzen eta menperatzen, hor bada muga bat”*. Badira aitzinamenduak baionarraren ustez, baina bertako hautetsiek zuzenean kudeatzen dituzten arloak mugatuak izaki, *“denbora berean estatuaren eskumenak, eskualdearenak, departamenduarenak, hor dira, eta instituzio horiek begi onez ikusten ahal dute euskararen alde egiten diren gauzetan, baina ez dute hemengo hautetsiek bizitzen duten bezala bizitzen ahal, hor bada muga bat”*. Euskal Herritik gauza gehiago antolatuz *“hemengo hautetsiek balute gauza gehiagotan gauzen erabakitzeko gaitasuna edo posibilitatea, eta horrek ukan ditzake bere ondorioak euskararen problematikan, dudarik gabe, beraz, behar dira alde batetik konbentzitu lekukoak, ez baita dena egina, eta denbora berean behar dira besteak tiratu, konplikatua da”*.

Irakaskuntzaren gaia jorratzearen beharra oso present dauka konseilariak, gaia ‘osoki tratatu’ ezean, EEPren edo elkargoaren hizkuntza politikek fruituak ematea ezinezkoa dela dio: *“baina hori ez da gure gain, orduan hor, behar da aldiro zernahi prozesu, despositibo, kontzertazio modu atzeman, presioa eginez, batzuetan abilki, batzuetan bortizki, eta hori etengabe”*. Arlo honetan erabakitzeke aukerarik ez izatea ‘parte handi batean muga’ bat dela dio Iriartek.

3.3. Elkargoa EEPren baitako indar

Euskalgintzak luzaz egindako lanak ekarri zuen hizkuntza politika publikoa Ipar Euskal Herrira. 2004an Euskararen Erakunde Publikoarekin egituratzen hasi ziren hainbat arlo, eta urrats nabarmenak egin dira geroztik. Jean-Claude Iriartek eskuz esku hartu zuen parte erakunde publikoaren sorreran, eta berau izan zen lehen lehendakaria ere. EEPren ibilbidearen 15 urte hauetan, aurrerapen nabarmenak egin dira bere iritziz, batez ere irakaskuntzaren arloan eginiko urratsei loturik: *“irakaskuntzan egin lanak biziki emaitza inportanteak eman ditu, erran nezake biziki onak, nahiz eta lehena naizen erraiteko lortu dugun aitzinamendu fase hori ez dela aski. Baditugu oraino ainitz ahultasun: biziki emeki ibiltzen dela, oraino fragila dela, baina denbora berean, hasi ginelarik ez ginuen sekula pentsatuko horretara helduko ginenik”*.

Irakaskuntzan lortutako ageriko emaitzez gain, EEPk herrien engaiamendua akuilatu duela nabarmentzen du baionarrak: *“EEP sortu zenean bazen hizkuntza teknikari bat Hendaiako herriko etxean, kasu bakarra zen. Beste guztietan ez zen, eta bazen halako kontradikziorik bat: alde batetik sortu ginuen EEP, presio handia ezartzen genion estatuari sartzeko, irakaskuntzan urrats batzuk egiteko, eta denbora berean hemengo herriek gauza guti egiten zuten”*. Kontraesan nabaria zela dio, *“alde batetik aktoreak biziki engaiatuak, presio politika bat irakaskuntzari buruz, eta denbora berean hemengo hautetsiak berak guti inplikatuak, heiek zituzten eskumenetan euskararen aldeko urrats batzuen egiteko”*. Beraz, baliabideak eskaini eta emeki-emeki teknikarien sarea hedatu zen EEPri esker, ia herri elkargo guztietan bat bederen izan arte. ‘Prozesu kultural’ bat izan dela dio Iriartek, *“non hemengo jendeak ohartu diren bazela zerbait egiteko ere heien eremutan”*.

Ahuleziak zein akatsak gogoan izanik ere, EEPk hizkuntza politikan egindako urratsak garaian uste baino urrunago iritsi direla azpimarratzen du kontseilariak, urte hauetan *“iparraldeko gizarteak ere emeki emeki onartu baitu hizkuntzaren errealitatea ezin zela utzi, ezin zela utzi desagertzen, eta sartu da ere, errotu da pixkat iparraldeko gizartean”*. Prozesu horretan abertzaleez gain sentsibilitate desberdinetako hautetsiak engaiatu izanak fruituak ekarri dituela azpimarratzen du Iriartek: *“urrun gira oraino euskara salbatzetik, baina probatu ahal izan dugu*

ahal zela salbatu, hasteko gai baginen mugimendu horren oraino fiteago abiarazteko eta sakontzeko”.

Euskal Hirigune Elkargoaren sorreran eskuratutako eskumenak EEPren funtzioen inguruko eztabaida sortu zuen hastapenean. Funtzioak argituta, Euskararen Erakunde Publikoa ez da desegin, eta jarraitzen du bere politika orokorra betetzen. Argi azaltzen du Sylvie Chenal Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politika zerbitzuko zuzendariordeak: *“despositibo bat edo lan batek ukitzen baditu EEPko kide bat baino gehiago, (estatu, departamentua, eskualdea eta elkargoa) kasu horretan EEPren eskumena litzateke, EEPren lana”.*

Bai EEPren zein elkargoaren hizkuntza proiektuak osagarriak izanik, bakoitzari dagozkion eremuetan aplikatzea dagokie: Elkargoa herriko etheen eskalan arituko da, herri blokea deiturikoan aplikatuko du euskararen aldeko politika, elkargoaren baitan zein herrietako eguneroko arloetan hain zuzen ere (zerbitzu publiko lokaletan, hartzaindegietan, aisialdian, kirol zerbitzuetan...). Zentzu horretan gauzak zehaztuak direla dio Jean-Claude Iriartek, *“sistema instituzionala finkatua da, herri elkargoak behar du bete bere funtzio osoa, jadanik bloke lokala deitzen den horren barnean, bere eskumenetan eta herriek dituztenetan, hor behar du akuilu izan”.*

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 158 herriak ordezkatzeko dituen elkargoa da orain EEPren laugarren hanka: *“herri elkargoa sartu da EEPn, besteen heinean, erran nahi du orain lauko klub bat dela, lau instituzioen arteko kluba: Estadia, Akitania, departamentua eta herri elkargoa. Herri elkargoak ordezkatzeko dituen herri guztiak, baina ez da aiantzi behar departamentua, Akitania eta estatuak atxikitzen dutela oraino Ipar Euskal Herrian kompetentzia aintz”.* Horregatik, Iriarten ustez, herri blokean hizkuntza politika martxan jartzeaz gain, EEPren barnean eragitea da elkargoaren erronka nagusia: *“elkargoak behar du motore izan EEPn, zeren eta EEPko egitura beharrezkoa baita alde batetik efikazagoak izaiteko. Estrategia eginahala amankomuna baldin bada, erran nahi du eragin handiagoa duela, hor baitira jokatzen irakaskuntzari lotutako problematika guztiak”.*

Elkargoko kontseilari den Iriart baikorra da partaidetza honi begira: *“laugarren partaidea EEPn izanki, Akitaniak eta departamentuak ez duten hizkuntza politika egituratu bat dauka elkargoak, zerbitzu batekilan... eta horrek emaiten du beste eredu bat. Erran nahi du gauzak azkartzen direla, eta beharbada egun batez ere Akitaniatik edo departamentutik ere halako aitzinamendu batzuk izaten ahal dira”.* EEPren baitan pisua irabaziz, estatuaren parean EEPk pisu handiagoa izan dezakeela dio baionarrak, besteak beste, irakaskuntzaren aldeko urratsetan segitzeko: *“hori da xerkatu behar, herri elkargoak behar du bere hizkuntza politika proiektua*

zinez obratu, aplikatu, eta denbora berean behar du engaiatu EEPn, hor baita lan amankomuna egiten, eta hor baita eragiten gero estatuak dituen baliabideetan. Sistema hortan gira”.

Konfederazioko bozeramaile Sébastien Castetek ere bat egiten du elkargoak EEPn motore izaera hartu behar duela baieztatzean, eta EEPko beste partaideak ‘gora tiratzea’ dagokiola azpimarratzen du, *“are gehiago aurten, lehendakaritza hiru urte guziz aldatzen baita, eta elkargoak du EEPko lehendakaritza, Beñat Arrabitek, beraz espero dugu ere tiratuko dituela beste instituzio partaideak”.*

3.4. Elkargoak zabaldutako aukerak

Euskal Hirigune Elkargoak onarpen ofiziala eman dio euskarari, eta honek lege mailan eraginik ez izan arren, sinbolikoki urrats garrantzitsua dela azpimarratzen du Jean-Claude Iriartek: *“elkargoak ez du ofizialtasuna dekretatu, hautu sinbolikoa izan da, erranez ofizialki ezagutzen zuela. Ez du deus aldatzen lege mailan, hala ere, urrats sinboliko honek erakusten du gizartearekin bat egiten dela. Orain, denbora berean behar dira gauzak segitu hori izan ez balitz bezala”.*

Sozialki eta politikoki euskarak irabazitako onarpenaren isla dela uste du Sébastien Castetek, *“lehen aldia da Ipar Euskal Herri osoa barnebiltzen duen instituzio batek hartzen duela halako erabaki bat”*, eta, beraz, sinbolikoa izanik ere, pisua baduela azaldu du konfederazioko kideak. *“Politikoki ikusten da gaur egun euskararen kontrako argudioak ez direla entzunen”*, eta zentzu horretan, hori irabazia dela dirudiela dio. Iriart ere ados da hortan, hautetsien aldetik ez ohi da erabaki zaila izan, ‘segida aski natural bat’ izan da bere ustez, hizkuntza politikaren ideia jada ‘barneratua’ baitzen.

Eskumenak, ‘edo herriaren gain edo herri elkargoaren gain’ gelditu ohi direla azaltzen du Iriartek. Euskararen kasuan, aldiz, elkargoak eskumena hartu izanak eta erronka estrategikoak finkatzeak ez du esan nahi, herriek eskumena kentzen zaienik: *“kasu egin dugu herrieri, heiek atxikitzen dituzten eskumen guztietan euskararen aldeko iniziatiba edo ekimenak aitzina eramateko gaitasuna ez kentzeko”*. Hizkuntza politika *“beti instituzio guztien gain egoitea”* bermatu nahi izan dutela dio, herriek euren dinamika propioa segitzearen garrantzia azpimarratuz: *“herri handietan beharrezkoak dira hizkuntza teknikariak, zeren eta herriko etxeak menperatzen dituen beren ekimen guztietan herriko etxeak berak baitu deliberatzen, eta ez herri elkargoak”*, azaltzen du Iriartek. Aldi berean, herriek elkargoari lidergoa edo ‘chef de file’ izatea onartu diotela azaltzen du, ildo estrategikoa finkatu eta herriak horri lotzeko.

Begi onez jo du Euskal Konfederazioak hizkuntza politika proiektua bera, eta baita berau eraikitzeko erabilitako prozedura ere. Elkargoko zerbitzuek bi diagnostiko egin zituztela dio, barne eta kanpo diagnostikoa, eta landutako txostena aurkeztu zitzaizela ondoren. Arloz arlo ekarpenak eta proposamenak egin ditu euskalgintzak, *“zinez kontraste bat izan da, beraz, guk azpimarratu nahi duguna da prozedura hori dela lehenesten dugun zerbait, gure ustez ezinbestekoa”*.

Egingarritasunari buruz, konfederazioko bozeramaile den Castetek uste du egun Frantzian indarrean den lege koadroaren baitan egina izanda, proiektu egingarria dela: *“nahi bada, borondate politika hutsarekin, hor den guztia egiten ahal da”*. Euskara koofiziala izan ez arren, eta beraz euskarak balio juridikorik gabekoa izanik, oraingoz frantsesaren baldintza bete behar dela dio, baina artean gauza ainitz egiten ahal direla azpimarratzen du Castetek.

3.6. Indargune berriak

Elkargoaren aldetik erakutsitako borondatea izugarria izan dela azpimarratzen du Haizpea Abrisketak: *“gauza ona izan da, elkargoak eman dio mapa Ipar Euskal Herriari, eta hizkuntza kokatu da erdigunean. Elkargoko presidentea bera izan da horren gidaritza eraman duena, eta zinez borondatea agerikoa izan da”*.

Hala ere, hizkuntza batek garatzeko lau gauza behar direla azpimarratzen du Kontseilukoak: *“behar duzu estatus egoki bat, plangintza egoki bat, behar dituzu baliabideak, eta herri gogo bat”*. Kasu honetan, Elkargoaren inplikazioa herri gogoarekin bat datorrela uste du euskalgintzako langileak: *“Ipar Euskal Herrian herri gogo badago, arku politiko osoa dago alde, euskara ikuspegi positibotik ikusia dago, bai instituzioetan eta bai herriaren artean badago sintonia bat, oso potentea: euskara positiboa da, baloratua da, prestigioa dauka, aurrera doa... gero eta gehiago igotzen ari dira kopuruak ikastoletan... hor badago olatu bat nahiko indartsua herritik”*. Herrigintza, herritarren eta elkargoko hautetsien arteko sintonia edo elkarlanerako borondatea aipatzen ditu Abrisketak indar gisa, momentu honetan hautetsiekin ‘konplizitate handia’ dagoela dio, *“borondate berdinarean aurrean gaudelako eta interes komunak ditugulako”*. Hori ona dela dio, ‘bakoitza bere eremuan mantenduz eta akuilu lana’ egiten jarraituz gero.

Indar gisa, elkargoak dakartzan aurrekontua eta kontrol politikoa aipatzen du Eneritz Zabaletak: *“EEPk badu gutxi gorabehera 5.000.000 miloi euroko aurrekontua, eta Elkargoak badu*

300.000.000 milioiko aurrekontua, eta beraz finantziarioki balituzke ahalak berak zuzenean eragiteko adibidez Seaska, AEK, euskalgintza laguntzeko”. Bestetik, kontrol politikoaren garrantzia azpimarratzen du Zabaletak, “EEP egitura administratibo bat da, ez dago hauteskunderik EEPko ordezkariak hautatzeko, eta egia dena da oso zaila dela jendeak EEPrengan eragitea, jendeak bultzatzea eta abar”. Elkargoan aldiz, 2020ko herriko etxeetako bozak edo hauteskundeak iristean, hautetsiak hautatzeaz gain Euskal Elkargora joanen direnak ere hautatuko direnez, “hor eskatzen ahalko zaie: ‘zein da zuen herrirako proiektua? ze proiektu duzue euskararen arloan Euskal Elkargorako?’ Eta hor euskararentzat izaten ahal da bide bat eskatzeko, erreklamatzeko, diru gehiago euskararentzat, politika ausartagoak, eta abar., beraz hor horiek izaten ahal dira pista interesgarriak”.

Zehar-lerro izaera

Elebitasuna elkargoaren politika guztietara aplikatzea da besteak beste elkargoaren hizkuntza politika proiektuaren helburua. Eneritz Zabaletaren ustez, indar bat ekartzen du honek, izan ere, bere iritziz, euskara zerbitzua sortzearekin administrazioetan sarri gertatu izan da bazirudiela hizkuntza politikaz arduratzen zena zerbitzua soilik zela, baina zehar-lerro izaera horren bitartez, arlo guztietan sartuko litzateke: ura, zaborra, aisialdia, kultura, lurraldearen planifikazioa, haurtzaindegia eta bestelako zerbitzuak... “esan nahi du eskumen horietaz arduratzen diren zerbitzuek ere bere gain hartu beharko luketela haien hizkuntza planak osatzea edota euren arloan buxetetan kontuan hartzea... gero hori gauzatzea nekezagoa izanen den arren”, aipatzen du Zabaletak. Sylvie Chenalek azaltzen du euskara politika guztietan sartzea izanik, ‘horietaz arduratzen direnek euren ardura hartzea’ dela helburua: “oraingoz ez da horrela, eta egitekoa da, baina helburua da arlo bakoitzak bere buxeta izatea”.

Jean Claude Iriartek ere indar gisa ikusten du ikuspegi orokor hau, “gero nik ez nezake erran orain ea ze erritmoan eta gauzak ze lekutan aitzinatuko diren... falta zaigu oraino, zeren eta plangintza horren bozkatzeta aski berria da, eta beharko da aski fite ebaluatu gero”. Hala ere, hasteko, komunikazioan aldaketa nabaritzen hasi dela dio, elkargoaren paisaia linguistikoan batez ere, orain gutxira arte ez baitzen hamar herri elkargoetan agertzen: “horrek badu inportantzia ere jakinez hori egiten dela Ipar Euskal Herri maila guztian, baita ere BABeko hirigunean; BABeko hirigunean duela bi urte, euskara ez zen ageri”.

Elgar aditze despositiboa

Proiektuaren edukia mamitsua dela azpimarratzen du Konfederazioak, eta orain, elkargoak arloz arloko neurriak gauzatzeko epeak eta aurrekontuak finkatu beharko dituela dio: “ezinezkoa

denez neurri hauek guztiak egun batetik bestera finkatzea, lehentasunak finkatu beharko ditu, eta hori egiteko, oso inportantea da elkargoak proposatzen duen elkar-aditze dispositibo iraunkor hori sortzea, jendartearekiko eta euskalgintzako eragileekiko kontzertazioa antolatzeko; hori da guk betidanik aldarrikatu duguna". Elgar aditze dispositiboa da Sébastien Castetek ordezkatzeko duen euskalgintzako eragileentzat indar nagusia.

Hizkuntza politika ko-eraikitzeaz ari da Castet, jakinez azken erabakiak elkargoko hautetsiek hartzen dituztela: *"guk argi duguna da hizkuntza politika publikoa eragile publikoek, hautetsiek eta instituzio publikoek ontzat eman eta bozkatu behar dutela, betiere kontuan hartuz guk euskalgintzatik erranen duguna"*. Hortan direla dio, eta EEPekin desegin zen kontzertazio hori elkargoak eramaten lortuko duela uste du. Elkarlana eta eremuko eragileekin harremana oinarrian izanik, horri forma ematen aritu dira elkargoa eta euskalgintza Garapen Kontseiluaren laguntzaz: *"Elkar aditze, kontzertazio, edo kontraste mahai horretan momentuz ongi ari gara, ondoko etapa izanen da garapen kontseiluak bozkatzeko, eta gero aurkeztea elkargolari, elkargoko hautetsiek ontzat eman dezaten"*.

Esperimentazioaren bidea lantzeko ideia dago elkargoko proiektuaren oinarrian, eta aukera berriak irekitzen ditu honek Zabaletaren ustez: *"elkargoak har dezan nolabait lidergo politiko bat euskararen alde behar diren neurriak negoziatzeko, eskatzeko, esperimentatzeko... alor horretan badu politikoki egiteko inportante bat, orain arte inork egin ez duena eta berak egin lezakeena"*.

3.7. Erronka nagusiak

Ez da berria, izan ere, Ipar Euskal herrian euskarak duen muga nagusiari lotua baita erronkarik handiena: EEP zein Euskal Elkargoaren hizkuntza politika proiektuak 'paperean tresna egokiak' dira Zabaletaren arabera, *"orain, zein da erronka nagusia? paperean egoki den hori Frantziako legedi honekin ea aplikatu daitezkeen edo ez"*.

Haizpea Abrisketa Kontseiluko langilea bat dator horrekin. Herri gogoia eta tokiko eragile politikoen arteko 'sintonia' nabarmentzen ditu indar gisa, baina aldi berean, muga juridikoekin topo egitea saihetsezina dela dio, eta ondorioz, borondatezko markoan aritu behar izateak dakarren arriskua aipatzen du: *"borondatezko markoak zer esan nahi du? 'Borondatea dugulako'. Borondaterik ez dugun egunean ez dago hizkuntza politikarik, edo kontrako hizkuntza politika dago, zeren beti badago hizkuntza politika. Beraz hori du arriskua: ez da zerbait egonkorra"*.

Legeak jartzen dituen oztopoez gain, hauei erantzuteko baliabide eta finantzaketa ahalbidetzeko desafioa aipatzen du Zabaletak, zentzu horretan, bere arabera, *“euskal elkargoak politikoki nolabait esateko badu erronka bat, zenbat diru emateko prest da hizkuntza politika horretan? Bai bere zerbitzuak euskalduntzeko, bai euskalgintza laguntzeko...”*

Epe motzean hainbat erronka izan ditu elkargoko euskara zerbitzuak. Hasieran ‘teknikoki konplikatua’ izan arren, definitze lan orokorra egitea izan dute lehentasun, Sylvie Chenal elkargoko hizkuntza politiken zuzendariordearen arabera. Besteak beste, orain arteko herri elkargoetako hizkuntza zerbitzu desberdinak bateratze prozesuan barne antolaketa zehaztea izan da lehen lanetariko bat.

Lehendik egiten zuten lanari jarraipena ematea izan dute lehen erronka, hobekuntza kontratuen ildoan adibidez. Egun oraindik ‘gauza ainitz definitzekoak’ direla nabarmentzen du Chenalek, eta ebaluaketa lana eta ekimenen birformulazioa egiten segitzeko beharra aipatzen ditu besteak beste. Birformulazioa Euskararen Urtaroa ekimenaren bueltan gertatu zaie adibidez, izan ere, orain arte Baxenafarroan ospatetik, ekimena Iparralde osora zabaltzeko lana egin baitute. Ko-finantzamenduan ere gauzak harmonizatzeko prozesua aipatzen du, lehen lurraldeen arabera ez baitzen era berean finantzatzen. Hortaz, berregituratzen eta harmonizatzen ari da elkargoko euskara zerbitzua, elgar-aditze despositiboa sortzen eta jadanik lehendik dituzten erronkei erantzuten.

Erronka nagusi gisa, euskalgintzarekiko kontzertazioa eta kontrastea aipatzen ditu Sébastien Castetek. Euskalgintza indartsu ikusten du Konfederaziokoak egun: *“elkarte guztiak orain maxina handiak dira, AEK hartzen badugu, egun badira 35 langile, Seaskan ez dakit zenbat, Ikasen, Euskal Irratietan... egitura zinez potoloak dira, eta bakoitzak dituzte hamaika proiektu”*. Ez dira den-denak Konfederazioan biltzen, baina bai euskalgintza ordezkatzen duten eragile nagusiak eta gehienak: *“bertan biltzen gira gauzak amankomunean jartzeko borondate horrekin, ikuspegi orokorra izateko eta lantzeko”*.

Ildo politikoan, Konfederazioaren irakurketa berdina du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, azken hau eragilez osatutako gunea den bitartean, Konfederazioa eragileen eragile dela azaltzen du Haizpea Abrisketak. Hortaz, eskuz esku lan egiten dute elkarrekin, eta elkargoarekin ere, elkarlanean aritzearen garrantzia azpimarratzen du Kontseilukoak: *“oso lotuta dago ere gobernantza ereduari, euskalgintzaren aitortzari, eta nola mantendu euskalgintza eta euskararen lanketa arlo instituzionalean, edo instituzioetan egin beharreko hizkuntza politikak”*.

Hizkuntza politikan jarraipen egokia egin ahal izateko lehentasun, helburu zein neurri konkretu, zifratu eta ebaluagarriak zehaztearen beharrarekin batera, herriko etxeak ‘goruntz tiratzeko’ erronka azpimarratzen du Konfederazioko bozeramaileak. Izan ere, hainbat herriko etxek hobetze-kontratuak izenpetuak dituzte aspalditik, beste zenbaitek ez, herri gutxi batzuk plangintza eta zerbitzu propioa dute... horregatik dio inportantea dela euren ustez *“finkatzea adibidez hemendik bi urteren buruan, hor direnek segituko dutela pixka bat aitzinatzen, eta zinez 0-an direnak ba bederen bi urteren buruan bidea abiatua izatea; adibide bat emateko: herriko etxe guztietan bederen seinaletika bi hizkuntzetan izan behar dela hemendik 2021era”*.

Hautetsien inplikazioarekiko, urteek aitzina egin ahala urrats nabarmenak egin direla dio Jean-Claude Iriartek, alta, zalantzak sortzen zaizkio euskarari praktikan eskainiko zaion lehentasunari begira: *“uste dut hor dela jokatzeko, euskara sartu dela denek adosten duten objektu politiko bezala inork ez du hori inork zalantzan emanen, hori sartu da. Baina gero ze lehentasun ematen zaion gai berri horri... hor badira diferentzi inportanteak”*.

NOTRe legearen baitan gertatutako konpetentzien banaketan, besteak beste tokiko hizkuntzek konpetentzia partekatuaren printzipioa eskuratu dute: *“horrek erran nahi du estatuak baduela erantzunkizun bat irakaskuntzaren bidez adibidez, eskualdeak baduela erantzunkizun bat langabetuen kudeaketa edo formakuntzaren eremuan adibidez, departamenduak ere baduela ardura bat euskararekiko sozial mailan adibidez, edo kulturaren, herriarteak baduela bat eta hiriek ere bai”* azaltzen du Eneko Gorrik. Erronka nagusia euskararen gaian bakoitzak bere ardura hartzea izaki, hiriei pasa zaien mezua lanean segitzekoa izan da, eta zentzu horretan ‘hiriak autonomizatzerat’ akuilatzen dituztela dio Biarritzeko teknikariak. Oro har artikulazioaren lanketa ‘hiriak kontuan hartu gabe’ egin dela kritikatzeko du Gorrik, eta horren ondorio posible gisa ikusten du *“terrenoarekiko deskonektatua den hizkuntza politika bat garatzeko arriskua”*.

Instituzio publikoetan euskararen alde ari direnen arteko harreman sareak sortzea erronka garrantzitsua dela baieztatzen du Eneko Gorrik: *“bakoitzak lan egiten du bere esparruan, besteekin harremanik ukan gabe, eta gaur egun 30 langile badira instituzioetan euskararen alde, baina gure artean ez dugu harreman mikorik. Duela 20 urte euskararen alde borrokatzen ziren belaunaldiei erran bagenien 2020an 30 langile izango zirela instituzioetan lanean, ez zuten sinetsiko, eta erran bagenie duela 30 urte langile hauek haien artean harremanik ez zutela izango, ez da ez zutela amestuko, da ez zutela desiratuko ere”*. Inertzia hori hausten ahaliko dutela dio, ez dela ‘fatalitaterik’, eta zaila izan arren, elkarlan sarea ‘lortu beharko’ dutela, *“elgarrekin gogoetatzeko, autoelikatze, jakiteko besteak zer egiten duen, gauza*

sinpleak baina lagungarriak, orduak eta orduak pasatzen ditugu gaiari buruz irakurtzen, entzuten... denek, eta hori guztia partekatu behar da”.

Gizartean ‘pedagogia lana’ egin beharra aipatzen du Biarritzko teknikariak. Instituzio publikoek euskaraz komunikatzeaz gain, euskararen gaia frantses hiztunengan kokatzea ere garrantzitsua dela deritzo, ‘elkar-ulertze’ logika batean: *“ulertaraziz hizkuntza guztiek balio berdina dutela, ez dela gaur egun hizkuntza bat hor bestea ordezkatzeko, euskarak behar duela frantsesaren hein berdinean izan...”*. Frantses hiztunek ‘garraiatzen duten ideologia’ pixkanaka deseraikitzen laguntzea beharrezkoa dela iruditzen zaio, *“ez bakarrik euskaldunak hobeki onar ditzaten, baina haiek ere munduko hiztun gisa hobeki bizi daitezen, zeren frantsesak badu holako elitismo linguistiko bat, eta beste hizkuntzak ulertzeko zailtasun handia, eta beraz, uste dut bizikidetza eredu hori izan daitekeela onuragarria bai guretzat, baina baita haientzat ere”*.

Sozialki ‘trantsizio hirukoitza’ burutu beharra dagoela aipatzen du Gorrik, *“euskara eskolatik plazara ekarriz, (gaur egun eskolak bilakatu baitira uharte isolatu batzuk); jakitetik erabiltzera, (eta euskaraldia tresna txiki bat izan daiteke baina ez bakarra) eta delegaziotik esku-hartzera; ene ustez hori litzateke erronka”*. Biharko hizkuntza politikak presio sozialaren araberakoak izanen direla argi dauka Biarritzeko euskara teknikariak: *“presio sozialik gabe ez baita hizkuntza politika eraginkorrik izanen, eta bi zangoetan ibili beharko gira, Txillardegik erraten zuen moduan, baina lehen urratsa argi da euskalgintza sozialak duela eman behar. Lehen urratsa ausarta bada, bigarrena ausarta izanen da; lehen urratsa ttipia baldin bada, bigarrena ez da handia iritsiko”*.

BABen eragiteko erronka

BABen eragitea erronka handietariko bat izanen dela uste du Eneko Gorrik: *“dentsitate urbano ikaragarria da hemen, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %40a hemen bizi da, eta biztanleria hori da Ipar Euskal Herrian euskararengandik deskonektatuena dena”*. Bide bat egin dela dio, datuak aipatzen ditu horren erakusle, baina era berean, errealitate gordinaren aitzinean aurkitzen garela dio: *“BABeko bataila galtzen baldin badugu, 2035ean edo 2050ean, Ipar Euskal Herriko borroka galdu dugu, eta hau ez da pesimista edo optimista izatea, hau errealitate bat da: 2050ean ez badugu lortu BABen biztanleriaren %33a euskalduna izatea, berdin du Baxenafarroan %75era iristea, bataila galdua izango dugu”*.

Egoera iraultzea posible dela azpimarratzen du Gorrik, eta bide horretan, eremuko edo oinarriko lana sustatzearen garrantzia nabarmentzen du Biarritzeko teknikariak: *“ez du balio harreran langile euskalduna izatea erraiteko ‘euskaldundu dugu langile bat’, gero nehor ez bada*

berarekin euskaraz aritzen, horregatik erabaki dugu terrenoko lana egitea, terrenoko eragileekin, horiek ezagutzen baitituzte egoerak guk bezain ongi edo guk baino hobeki, lehenik, komunitate guzti hori aktibatzeke". Horren erakusle da BAB osora zabaldu den Mintzalasai elkartearen ekimena. Biarritzen 'zirkuito laburrean' lan egiteko aukera dutela dio, eta eremuaren beharretatik abiatutako hainbat tresna praktiko eraikitzeke gaitasuna erakutsi dute, *"terrenotik behar bat ateratzen da, gogoeta eramaiten dugu, eta zirkuitu laburra da, bizpahiru hilabetez tresna bat eraikitzen ahal dugu"*.

Biarritzen ez bezala, Baionako historian berri-berria da hizkuntza plangintzaren gaia, Iriartek baieztatzen duenez, *"herriko etxea orain arte erran nezake ez dela sekula bultzatzaile izan; aken mandatu horretan lehen aldikotz finkatua izan da plangintza baten egitea, baina 2017an adostua izan da"*. Iriarten aburuz, denbora ainitz hartu du, euskararen aldeko plangintza bat egitea *"ez baita batere administrazioaren ohituretan, eta erran nezake ongi dela, ateratu baita, baina orain aplikatzeko ere nekez ari da"*. Behin eginda, *"obratzeak, parte baten baldin bada ere, eredu zerbait"* sortzen duela dio, eta *"hortik landa, giderretan nornahi izanda ere"*, bideak segituko duela deritzo.

Etorkizun hurbil batean, bai BABeko eremuarentzat zein orokorrean 'bizpahiru pista marrazteko beharra' ikusten du Eneko Gorrik: *"lehen pista da euskalduntze kanalak, bideak, masifikatu beharko direla, bai helduarotik eskolara, eskola guztietan, girstino, publiko edo ikastoletan, denetan gurasoek izan beharko dute hautua euskara hautatzeko, ez obligazioa, baina bai hautua"*. Horrela, norbaitek euskaraz ikasi nahi badu, *"ez du 10 km baino gehiago edo 2 km baino gehiago egin beharko"*. BABetik hasita euskararen irakaskuntza sistematizatu eta helduen euskalduntzerako ere bide berriak esploratu beharko direla aipatzen du Gorrik, *"tartean doakotasunaren bidea ere beharbada orokortu"*. Horren ondoan, 'euskaltzaleen arteko kontratu sozial berri bat atzematearen beharra aipatzen du teknikariak, *"asmatu beharko dugu inklusio eredu berri bat, borrokatzeke argumentazio berri bat gazte belaunaldiekiko"*. Bestalde, *"hirietan den erreaktibitatea, elkargoan den eraginkortasuna eta EEPn den legimitizatze gaitasun hori uztartzeko"*, etorkizunera begira 'lankidetzarako espazio funtzionalak' osatzaren garrantzia azpimarratzen du Gorrik, eta horietaz gain, euskarak mahai bat behar duela deritzo, *"euskararen mahai ez-funtzional bat, agian funtzionalitate sobera duten espazio partekatuez gain, ikusten dut behar dugula autoelikatze, autogogoeta eta proiektuak ateratzeko espazio bat"*.

3.8. Ofizialtasunaren aldarria

Zalantzarik gabe, lege babesari lortzean datza euskarak Ipar Euskal Herrian duen erronkarik handiena. Ofizialtasuna da euskarak behar duena, baina denak bat datoz egungo egoeran aukera zaila dela baieztatzean.

Hizkuntza politika eraginkorra aplikatu ahal izateko lortu beharreko lege babesari buruz, ofizialtasuna zaila izango dela dio Eneritz Zabaletak, *“baina igual experimentazioaren bidez zerbait marraztu behar da, eta perspektiba hori, konstituzioaren 75. artikuluari eduki bat emateko aukera da”*. Zabaletaren ustez, 75.1 artikuluari ondorio batzuk emateak ez du esan nahi frantsesa ez diren beste hizkuntzak ofizial bilakatuko direnik: *“juridikoki, ofizialtasunak hainbat ondorio ditu: lehena da hizkuntza baten erabilerari balio juridiko bat ematen diola, eta obligazio bat ere sortzen duela”*. Izan ere, legez komunikazio hizkuntza ofizial bilakatzean *“obligazio juridiko bat sortzen da, estatuak bere burua obligarazten du hizkuntza horretan komunikatzera”*, eta bigarren ondorioa da ofizialtasunak hizkuntza eskubideak sortzea, *“honek esan nahi du, bi hizkuntza ofizial diren kasuetan, administrazio publikoekin bi hizkuntza horietatik edozein erabiltzeko eskubidea dutela herritarrek”*.

Horrela, egungo marko konstituzionalean ofizialtasuna ezinezkoa dela dio Eneritz Zabaleta adituak, errepublikako konstituzioaren bigarren eta lehen artikuluetatik. Adibidez korsikera edota euskara ofizial bihurtzeko, lehenago konstituzioa aldatu beharko litzatekeela dio adituak: *“hori juridikoki posiblea da, baina politikoki oso-oso zaila ikusten dut. Eta momentuz horretara iristea ez denean batere probablea, zer egin daiteke? ba tarteko bide bat atzeman beste hizkuntzek espazio gehiago ukan dezaten, eta hori da 75. artikuluko horri eduki bat ematea, ez da ofizialtasuna izango, baina behintzat eduki bat izango da, eta horretan kokatzen da eztabaida”*.

Ofizialtasunaren aldarria momentu honetan ez da entzuten ari, horretan bat dator Haizpea Abrisketa: *“argi dago aldarria ez dela zentroan jarri, asko zentratu delako eraikitzen zimentu hauek, eta uste dut horretan asmatu dugula”*. Hala ere, Kontseiluko langileak dio ofizialtasuna ez dela alde batera utzi, *“baina agerian jarri dira dauden mugak, eta denak ados daude, ahopetik behintzat, hori horrela dela, Etxegaraik berak esaten du experimentazioarena saiatu egin behar dela, eta ofizialtasun hitza ere aipatu zuen bere diskurtsoan elkargoan hizkuntza politikarena adostu zenean”*.

Zentzu horretan bide handi bat egina dagoela uste du, eta orain hori ‘elikatzen jarraitzea’ dagokiela deritzo: *“ez da soilik aldarri bat kalean egingo duzuna, baizik eta hainbat tope ere ikusarazten dituzu: gertatzen dena esperimentazioarekin hezkuntzan, gertatzen dena Seaskarekin dagoen borroka horretan... gero eta gehiago topera iristen ari da egoera”*. Frantziar hizkuntza politika oso auzitan dagoela dio Kontseilukoak, *“oso atzeratuta European bertan, baina era berean Frantzia ‘munstro’ bat”* dela dio, eta bere nazioa bere hizkuntzaren gainean eraikia izanik, ‘talka ideologiko oso potentea’ sortzen dela azaldu du. Ondorioz, euren lana bidea eginez topeak bilatzen jarraitzea dela azpimarratzen du Abrisketak.

Hizkuntza politikaren geroa edo bilakaera lurraldearen instituzio antolatze mailari lotuta ikusten du Jean-Claude Iriartek. *“edozein instituzio edozein egoeran behar da egoera horri egokitu euskararen aldeko gauza batzuk eramanez, baina denbora berean instituzio antolaketa aldatzen baldin bada, botere gehiago emanaz hemengo hautetsieri edo hemengo instituzioeri, horrek ireki lezazke beste bide batzuk euskararen arloan”*. Muga inportanteena hortan ikusten du praktikan,, ofizialtasunean baino gehiago: *“ofizialtasuna ez da jinen, behar dugu euskara salbatu ofizialtasuna gabe, eta ez da aterabiderik, ez dugu hauturik”*. Beharbada egun batez aldatuko dela dio, baina aldatzekotan, baionarrak pentsatzen du baldintzak *“gehiago aldatuko direla hemengo lurraldeak lor lezakeen boterea handiagoa izanez”*.

3.9. Esperimentazioaren bidea

Elkargoak eman dituen urratsen bitartez, egungo koadroarekin ez dela aski erakutsi nahi izan du, beste estatus bat nahi duela euskararentzat. Bere hizkuntza politikan *“salbuespenezko egoera bat, koadro derogatorio bat landuko duela dio, esperimentazio batzuk eramateko eta euskararen biziberritzea zinez aplikatu ahal izateko”*, azaldu du Eneritz Zabaletak. Hori lantzeko engaiamendua hartu zuen elkargoak, eta oraindik lanketan dagoen bidea dela azaltzen du zuzenbidean adituak: *“ideia da egitea txosten juridiko bat esanez zer esperimentatzen ahal den, nola egin behar den, eta halako hainbat neurri aztertzea eta behin hori egingo delarik ba bide hori lantzea”*. Zabaletaren ustez, konstituzioa aldatu ezean, esperimentazioa bide eraginkorra litzateke gaur egungo markoan blokeoak gainditzeko eta *“zinez salbuespeneko koadro bat plantan emateko”*, lurraldeari egokitutako arauak sortzeko aukera eskaintzen duelako.

Gaur egun esperimentazio bidez ari da garatzen euskarazko murgiltze sistema Ipar Euskal Herriko zenbait eskola publikotan, ama eskolako lehen bi urteetan. Berez, legez ezin da horrelakorik egin, baina esperimentazioaren bideari esker, salbuespena da IEH, Frantzia osoan ez

baita horrelako beste adibiderik. Azkenaldian gaiarekiko piztutako polemikak gaindituta, Zabaletaren ustez, esperimentazioak *“badu interes juridiko hori eta politikoki izaten ahal da bide bat ba urrats batzuk lortzeko”*.

Frantziaren estatu ereduarekin sortzen den talkaren ondoriozkoa da esperimentazioaren ideia, izan ere, *“berdintasunaren izenean esaten da denak berdinak izateko legeak berdina izan behar duela guztientzat, eta esperimentatzen duzunean neurri bat, ari zara aplikatzen neurri berezi bat jende konkretu batentzat, eta orduan horrek ideologikoki eta eredu horren baitan hainbat traba sortzen dituenetz, onartu zen esperimentazioa baina bakarrik denbora muga batekin”*. Esperimentazioaren bideak, gaur-gaurkoz, muga argiak ditu: *“hitzak dioen bezala, esperimentazio bat normalean ez da gauza iraunkor bat, eta teoriarik hasiera eta bukaera data bat izaten dute”*. Horregatik, behin-behineko soluzio bat dela dio adituak, eta ikusi egin beharko zela behin-behinekotasun horretatik nola ateratzen ahalko zen.

Zabaletak dio badela momentu bat horren inguruko eztabaidak hasi zirela, *“galdera da: ez ote dezakegu onartu ere esperimentazio horiek iraunkor bihurtzea?”* galderari oraindik ere erantzun argirik ez zaiola eman dio adituak, esperimentazio horiek denboran mugagabetasuna izatea eta modu iraunkorrean legeak leku guztietan berdin aplikatuak ez izatearen inguruko eztabaidak une hauetan oraindik ere ematen ari direla dio. Beraz, une hauetan, posible den bakarra da *“adibidez, ikusten badugu Parisek esperimentatu dutela neurri hori, eta funtzionatu duela, ba Frantzia osora hedatzen dugu, edo bestela Parisen ez da gehiago aplikatzen”*, hori da gaur egungo koadroa. Adibidea Euskal Herrira ekarrita, neurri bat bertan esperimentatzen bada zenbait urterako, *“hortik segitu nahiko balitz, beharko zen estatu maila guztian orokortu, eta orokortzea lortuko balitz, ba lege batekin orokortuko litzateke denentzat, eta aplikatzen hasi”*. Parisen baiezkoa jaso ezean, esperimentazioa bukatu behar da, hortaz: *“gero bada apustu inplizitu bat: demagun hasten direla esperimentazio pila bat, iristen dela orokortzeko unea, pixka bat airean gelditzen da gauza, eta inertziatz edo, esperimentazioak segitzen du”*. Baina tresnak berak hori ez du ahalbidetzen Zabaletaren arabera: *“teoriarik ezin da, hori da pixka bat tresna hori bere logikatik aldatzen denean”*.

Esperimentazioarena behin-behinean ‘neurri konkretuak frogatzeko pista’ bat izan daitekeela dio Zabaletak, *“esate baterako, eskola publikoan murgiltzea aplikatzeko, Seaskako ikastolak diruz laguntzea legezkoa izan dadin, izaten ahal da ere bai, zerbitzu publikoetan eta euskarazko zerbitzuak orain pixka bat zalantzan edo bide gris batetik egiten dena ba argi eta garbi egiteko...”*. Esperimentazioaren bideak hainbat aukera ireki arren, hasiera eta bukaera dataren mugarekin topatzen garela dio.

Euskararen kasuan, esperimentazioaren bidea aitzinatzen hasia dela aipatzen du Sébastien Castetek, baina une hauetan bide horrek dituen mugak agerikoak dira bere ustez. Esperimentazioaren bidearekin batera, eztabaidan da diferentziazio eskubidearen gaia ere. HOni dagokionez, Konfederazioko bozeramaileak azaltzen duenez, *“gure kasuan litzateke aitortzea Ipar Euskal Herrian, Pirinio Atlantikoetako txoko honetan, badela hizkuntza bat, eta hor egiten duzu esperimentazio bat, baina gero, emaitza positiboak baldin badira, segitzen duzu mantentzen bakarrik lurralde horretan”*. Diferentziazioaren gaiaren inguruko eztabaidak hala ere, luze joko duela dirudi momentuz.

3.10. Tokiko instituzioak, euskalgintza eta gizartea eskuz esku

Jean-Claude Iriarten esanetan, bere garaian ametsetan ere ez zuten pentsatuko euskararen egoera gaur egungoa izatera iritsi zitekeenik, *“nahiz eta oraino ere ni kontziente naizen instituzio guztiek ez dutela oraino ekoizten behar luketena, behar dugu ere oroitu ze egoeretatik abiatzen ginen, ta ikusi euskararen aldeko preokupazionea luzaz dute euskalgintzak duela bakarrik karreatu, problema da emeki ari gira, euskara oraino lanjerean baita, ez dugu oraino salbatu, ez dugu oraino betirako errotu... hortan da problematika”*. Erritmoa bizitu beharra ikusten du, eta zenbait sail azkarki sakondu.

Gizarteak duen garrantzia azpimarratzen du Baionako hautetsiak. Estatuarekin gauzak lortu izan direnean, irakaskuntzan, *“eskola bat ireki delarik beti izan da erantzuna, gizarteak frogatu du prest zela, eta hori izan ez balitz ez zen deus ere lortuko”*. Hori ez dela betiko irabazia dio, gizartearen ikuspuntuak eragin zuzena duela horretan, eta hizkuntza politikak gizartean ere eragina izaten ahal duela: *“sentsibilizatzea, informatzea... gizarteari mintzatzea, herriekin lan egitea, hortan aritu behar da etengabe, energia ainitz galdegiten du eta baliabide inportanteak, eta herri elkargoak beharbada izanen du eragin inportantea horri buruz, EEPk baino gehiago”*.

Euskararen errealitatea instituzioei loturik ikusten du Iriartek: *“lotua da osoki, biek elkar elikatzen dutelako, gure instituzioek behar dute gizartea ere urrunago eraman, denbora berean gizarteak mezu hori ekartzen baldin badu horrek erran nahi du instituzioei dela horri erantzutea, batek behar du bestea elikatu, lortu arte egoera bat non erraten ahalko dugun betiko transmisioa egiten dela eta euskara biziko dela Ipar Euskal Herrian”*. Maila hori oraino ez dugula lortu dio, *“bide onean gira, baina bide fragila da biziki”*. Horregatik, engaiamendua ezinbestekoa dela uste du baionarrak, ezin dena instituzioen gain soilik utzi, *“behar gira engaiatu, ez da uste behar dena instituzioer uzten ahal dela”*.

Bide horretan, euskalgintza eta instituzioen arteko konplizitatea eta elkarlana aipatzen ditu Haizpea Abrisketak ere. Mugak hor egonik ere, euren abiapuntua hizkuntza eskubideena izanik, eragile moduan haratago jotzea da euren lana, *“nik zu pusatuko zaitut erabaki batzuk har ditzazun, eta aldi berean momentu batean ezin baduzu, ni kalean egongo naiz presio hori egiten, ez gatazka iturri gisa, baizik eta eraikitze logika batean, guk hortan ulertzen dugu elkarlana eta konplizitatea”*.

Ipar Euskal Herrian hizkuntzaren aldeko politika publikoaren ideia ‘arrunt berria’ dela dio Jean-Claude Iriartek, hala ere, *“20 urte hauetan ez dugu gibel egin, aitzinatu gira, baina bizi dugun momentuan euskararen egoera jokoan da, irabazten da ala ez”*. Horrela, aitzina egitearen ardura kolektiboa dela azpimarratzen du hautetsiak.

4. atala: ondorioak

Ipar Euskal Herrian azkenaldian gertatutako aldaketak islatu eta euskararen alde eginiko urratsak erakusten ditu sakontze lan honek. Helburua gaiari buruzko ezagutzan sakontzea izanik, lanak oinarritzko lanketa egiten duela esan daiteke, hau da, Ipar Euskal Herrian egindako urratsek marraztutako egoera ezagutzen ez dutenek edo gutxi dakienarentzat informazio baliagarria izan daitekeen bitartean, gaia ezagutzen duenak ez du ziurrenik ezer berririk topatuko.

Gaiaren inguruko ikuspegi zabal eta orokorra ematen duen bitartekoa den aldetik, tresna gisa bere balioa eduki baduela uste dut, eta hortaz, bere funtsa betetzen duela esango nuke.

Lan hau 2019ko udaberrian garatua izaki, ez da jasotzen oraindik forma hartzeko dauden hamaika gairen inguruko xehetasunik, zertzelada nagusiak besterik ez dira agertzen. Bestetik, une hauetan Frantziako Estatuan ematen ari diren eztabaidek erakusten dute eskualde hizkuntzen gaiari loturik Estatu arazoa bete-betean ukitzen duen arazo politikoa ezkutatzen dela. Eztabaida horiek trenkatze bidean dira, eta sakontze lanak bide posibleen inguruko pistak ematen dituen arren, ez du aukerarik ematen hemendik denbora batera ireki edo itxiko diren aukerak xeheago azaldu edo aztertzeke.

Etorkizunean gaia zehatzago eta sakonago lantzeko oinarria izan daiteke sakontze lan honek eskaintzen duen aukera. Honela, elkarrizketatuak ugarituz, zein elkarrizketa egituratuen bitartez, gaiaren inguruko ertzak sakonago aztertzeke aukera legoke.

Bestetik, sakontze edo ikerketa lerro berriak izan daitezke lan honen segida: euskararen estatus juridikoa, euskalgintzaren ibilbide eta bilakaera historikoa, hizkuntza politika publikoak egindako urratsak edota Frantziako hizkuntza politika bera izan daitezke sakontze proiektu berrietan garatzen ahalko liratekeen zenbait ideia. Lantzen duen gaiari ez hain estu loturik baina soziolinguistikaren arloan beste motatako ikerketak garatzeko orduan ere oinarri aproposa izan daiteke, esate baterako Ipar Euskal Herriko sektore edo jendartean euskararen inguruko diskurtsoak edota frantses hiztunen euskararekiko pertzepzioa bezalako gai zehatzagoak aztertzeke adibidez.

Aipamen bibliografikoak

Aire, Xan; Garat, Maialen (2009). *Seaska - 40 Urte Euskararen Alde*. Baiona, Elkar argitaletxea.

Anaut, David (2013). *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Euskal Memoria.

Batzorde, (2006) *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*. In Bat Soziolinguistika aldizkaria, 59. alea. Euskal Soziolinguistika Institutua, Andoain.

Baxok, Erramun (1999). *Euskara elez eta legez Ipar Euskal Herrian*. In Euskera aldizkaria 44. alea, 987-995. orr. Euskaltzaindia. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49107.pdf>

----- (2001). *Euskalgintza hitzartua Ipar Euskal Herrian*. In Euskera aldizkaria 46. alea, 953-961. orr. Euskaltzaindia. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50745.pdf>

----- (2006). *Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan*. In Euskera aldizkaria, 51. alea. Euskaltzaindia, Bilbo: 919-968. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/67609.pdf>

----- (2006). *Hizkuntza eta nortasuna Ipar Euskal Herrian*. In BAT soziolinguistika aldizkaria, 59. alea. <http://www.soziolinguistika.eus/node/3195>

----- (2007) *Euskararen legea. 1982ko oinarritzko legea, euskeraren erabilpena araukotzezkoa. Ipar Euskal Herriko ikuspegi bat*. In Euskera 52.alea, 1553-1571. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/71500.pdf>

----- (2008). *Hizkuntza antolaketaren bideetan*. In Bat Soziolinguistika aldizkaria, 67. alea, 67-77 orr. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.

-----; Coyos Jean-Baptiste (2010). *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian*. Euskaltzaindia, Jagon saila.

----- (2012). *2011ko inkesta soziolinguistikoaren azterketa Ipar Euskal Herriko ikuspuntutik*. In Euskera aldizkaria 57. alea, 93-134 orr. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/76789.pdf>

Bilbao Sarria, Paul (2008). 3.4. *Hizkuntza eskubideen eta lege statusaren egoera Euskal Herrian*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Blanchet Philippe (2016). *Discriminations : combattre la glottophobie*. Paris, Textuel

Boyer, Henri (2001). Frantziako hizkuntza politika(k) epe luzera: alde sendo eta ahula. In Bat soziolinguistika aldizkaria, 38. alea. <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/873>

----- (2017). *Introduction à la sociolinguistique*. Paris, Dunod.

Coyos, Jean-Baptiste (2004). *Politique linguistique Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne*, Donostia-Baiona, Elkar.

----- (2006). *Euskararen alde iparraldean garatzen ari den hizkuntza politika publikoaren proiektuaz*. <http://www.gipuzkoaeuskara.net/albisteak/1152630581>

----- (2007). *Euskara eta euskal kultura 2020 Ipar Euskal Herriko gogoetak*. In Bat soziolinguistika aldizkaria, 65. alea. http://www.soziolinguistika.eus/files/Erramun%20Baxok_2.pdf

_____ (2008). *Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora ? Ibilbidearen azterketa*. In Bat Soziolinguistika aldizkaria, 67, Soziolinguistika Klusterra, Andoain: 79-102.

_____ (2009). *Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak*. In Bat Soziolinguistika aldizkaria, 70. alea, 41-55 orr.
<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00383564/document>

_____ (2010). *Frantziako estatua eta eskualdetako hizkuntzak: 1990-2010*. In Bat Soziolinguistika aldizkaria 76. alea, 87-99 orr. <http://www.sociolinguistika.eus/files/Jean-Baptiste%20Coyos.%20Frantziako%20Estatua%20eta%20eskualdetako%20hizkuntzak....pdf>

Erize, Xabier (1997) *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863-1936*.
http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier_Erize_Etxegarai_TESI.pdf

Europako Kontseilua (1992). *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*, euskarazko bertsioa in Euskaltzaindia, 2007, *Hizkuntza-zuzenbidea*: 91-107. Online bertsioa: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1400&task=hizkuntzaZuzenbidea&lang=eu

Euskal Hirigune Elkargoa (2018) *BEGI, euskal herriaren potreta zenbait galderatan*. Euskal Hirigune Elkargoaren aldizkaria. 2018ko azaroko 1. alea. https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/kiosque/PUBLICATION/BEGI_EUS_1.pdf

Euskaltzaindia (2007). *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz*, Jagon bilduma 5, Bilbo, Euskaltzaindia.

_____ (2017). *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*. Bilbo, Jagon saila. Euskaltzaindia.

Euskararen Erakunde Publikoa (2006). *Hizkuntza politika proiektua « Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehenatasun» txostena*. EEP.
https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf

_____, Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) eta Nafarroako Gobernua (Euskarabidea) (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*.
https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua (2008) *Larrunaldeko herriko etxean eta herrian euskararen erabilera*, txostena. <http://kontseilua.eus/app/uploads/2015/05/Larrunaldeko-Herriko-Etxean-eta-herrian-euskararen-erabilera-normalizatze-arauek.-DELIBEROA-20080122.pdf>

_____ (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren eta VII. Kale Erabileraren Neurketa. Datuen azterketa, ondorioak eta proposamenak*. Txostena online: <http://kontseilua.eus/app/uploads/2015/05/INKESTASOZIOINEURKETAAZK.pdf>

Goikoetxea, Garikoitz (2016). *Euskara irabazteko bidean*. Aleka bilduma, Berria, Jakin eta Elkar argitaletxea.

INSEE Aquitaine (2002). *Langues parlées en Aquitaine. La pratique héritée*. INSEE

Intxausti, Joseba (1990). *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritzako argitalpen zerbitzua.

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/EEH/EUSKARA/EHH6.PDF

Irujo, Xabier (2016). *Genozidioaren ikuspegiaren abiapuntua Euskal Herriko historia aztertze eta interpretatzeko*. University of Nevada, Reno.

<http://www.bidebarrieta.com/aldizkaria/26/Genozidioaren-ikuspegiaren-abiapuntua-Euskal-Herriko-historia-aztertze-eta-interpretatzeko>.

Iztueta Armendariz, Paulo (2016). *Hizkuntza-asmiliazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian*. Donostia, Utriusque Vasconiae. <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/28841/Hizkuntza-asimilazioa%20eta.pdf?sequence=2&isAllowed=y>

Josié, Ione (2015). *Euskararen erabilpena zerbitzu publikoan: Parisetik Uztaritzera*. Udaltop, 2015.

KASARES, Paula (2004). *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian: zer eskubidez ari garen eta zertan diren*". Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 31. zenbakia. Bilbao, Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua.

<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/cuadernosdcho/cuadernosdcho31.pdf>

Odriozola Lizarribar, Joxe Manuel (2004). *Euskalgintzaren lekukoak*. Donostia, Elkar argitaletxea.

Ornoz, Mixel (1995). *Euskaltzaleen Biltzarretik Euskal Konfederaziora*. In Bat soziolinguistika aldizkaria, 16. alea.

—————; Bortayrou Jakes, (2002, 2005). *Le mouvement culturel basque 1951-2001 I eta II*. Donostia-Baiona, Elkar argitaletxea.

Peillen, Txomin (1998). *Euskararen lekua Iparraldeko antolakuntza eta legeetan*. In Eleria Euskal Herriko legetarien aldizkaria, 3. zenbakia, 51-60 orr. Eusko Ikaskuntza.

Ramallo, Fernando (2017). *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 25. urteurrena*. In Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 103. alea.

http://www.soziolinguistika.eus/files/fernando_ramallo_bat103.pdf

Soziolinguistika Klusterra (2017) *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa, Euskal Herria 2016*. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf

Uriarte Ricote, Maite (2019). *Hizkuntza-Ideologia*. In Auñamendi Entziklopedia. Online, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-ideologia/ar-152150/>

Urteaga, Eguzki (2002). *La langue basque au Pays Basque, diagnostic, évolution et prospective*. Lapurdum, euskal ikerketen aldizkaria, 7. zenbakia. Baiona, Iker zentroa.

————— (2002). *Hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian*. In Bat soziolinguistika aldizkaria. <http://www.soziolinguistika.eus/en/node/964>

————— (2003). *Euskara berpizteko politika Ipar Euskal Herrian*. In Lapurdum aldizkaria, 8. alea.

Urrutikoetxea Egoitz (2018). *Euskal Elkargoa: ibilbide baten irakaspenak eta perspektibak. Bi mendeko ibilbide luzea*. In Erria aldizkaria, eraldaketarako aldizkari politikoa, 1.alea. Iratzar fundazioa. <http://erria.eus/noticia/euskal-elkargoa>

_____ (2016). *Frantses Iraultzaren hizkuntza politika eta euskara. Master IIko ikerketa lana edo memoriaa. Geografia, Historia eta Gizarte Zientzien Diderot Unibertsitatea, Paris*.

Zabaleta Apaolaza, Eneritz (2004). *Langues régionales, politiques publiques et cadre juridique français et international*. Euskararen Erakunde Publikoaren baitan gauzatutako ikastaldiako zuzenbide publikoko master 2ko memoriaa, lurralde kolektibitateen administrazio adarra. Paueko eta Aturriko unibertsitatea.

_____ (2014). *Euskararen egoera Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan: diagnosia eta gako soziolinguistiko eta juridikoak*. In Nazioarteko Jardunaldiak, Euskara gobernuko goi erakundetan Historian zehar. Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2013an izandako jardunaldien edukia jasotzen duen liburua. Iruñea, Pamiela argitaletxea.

_____ (2015). *Euskararen erabilpena zerbitzu publikoan: arauak eta praktikak*. Udaltop 2015. <http://www.udaltop.eus/documents/192363/260611/Eneritz.pdf/3687c9fc-66ab-43dc-a09b-dc24c44a88b2>

Zalbide, Mikel (2007). *Iparraldeko euskalgintza, XIX. Mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia*. Euskaltzaindia.

Zubitur, Izaskun (2006). *Hiru hizkuntza gutxituren egoera Frantzian, diagnosia, Frantziako hizkuntza politika*. Asmoz Fundazioa eta EHUren Hizneteko sakontze lana. <https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/IzaskunZubitur.pdf>

Eranskinak

1. Euskararen egungo egoeraren inguruko datuak: VI. Inkesta soziolinguistikoa eta kale neurketa

VI. Inkesta soziolinguistikoa

2016ko urte bukaeran egin zen azken inkesta soziolinguistikoa Euskal Herrian. 1991tik aurrera bost urtero antolatzen du Eusko Jaurlaritzak, 2006tik goiti EEPren partaidetzarekin. 16 urtetik gorako herritarrak hartzen dira kontutan, orotara 249.000 pertsona Ipar Euskal Herrian. Bertan, telefonoz egindako 2000 inkesta egin ditu SIADECO enpresak, lau ikerketa-eremuren inguruan: herritarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza transmisioa, euskararen erabilpena eta euskararen sustapenari buruzko jarrera. Honakoak dira Lapurdi, Baxenafarroa eta Xiberoari dagokienez, VI. Inkesta soziolinguistikoa⁹⁵ utzitako emaitza eta ondorio nabarmenenak:

Herritarren hizkuntza-gaitasuna, 51.200 elebidun

VI. inkestaren arabera, 16 urtetik gorako biztanleetatik 51.200 dira euskaldunak Ipar Euskal Herrian, duela bost urte baino 100 gehiago. 23.300 dira elebidun hartzaileak (1.500 gehiago) eta 174.900 erdaldun elebakarrak; alegia, %20,5 dira euskaldunak, %9,3 euskaldun hartzaileak, eta %70,1 erdaldun elebakarrak.

Inkesta egiten hasi zenetik lehen aldiz, ez da elebidun kopuruan apaltzerik izan Ipar Euskal Herrian, eta beheranzko bidea eten eta euskal hiztunak galtzeari utzi izana da VI. inkestatik ateratako daturik esanguratsuena. Zenbaki absolutuei dagokienez, euskaldunen kopuruaren apaltzea eman da azken 15 urteotan, 1996tik 5.000 hiztun galduz, eta lehenengoz utzi dio jaisteari azken 5 urtetan.

Hortaz, hiztun-kopuru absolutua egonkortu egin da, nahiz eta hiztun-kopuru erlatiboa gutxituz joan, izan ere, elebidun kopurua mantendu arren, erdal elebakar gehiago dagoenez, (9.000 erdaldun gehitu dira bost urtez), elebidunen ehunekoa apalagoa baita. Bestetik, kontuan hartzekoa da hiru herrialdeetako biztanleen %43 ez dela Euskal Herrian jaioa, eta Ipar Euskal Herriko erdal elebakarren %57 kanpoan sortua dela.

95 VI. Inkesta soziolinguistikoa, euskararen eremu osoan eta Ipar Euskal Herrian, txostenak hemen: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/encuestas_sociolinguisticas.html

2016ko inkestaren arabera, 51.200 elebidun daude Ipar Euskal Herrian, 16 urtetik goitiko herritarren %20,5, bostetik bat alegia. Honekin batera, elebidun hartzaileen kopurua igo egin da 2011ko datuekin alderatuz, eta gaur egun 23.000 elebidun hartzaile daudela kalkulatu da, azken urteotan 1.000 bat irabaziz. Orotara, elebidun eta elebidun hartzaileek Ipar Euskal Herriko populazioaren %29,8 osatzen dute.

Gaitasunari dagokionez, alde handiak nabari dira Ipar Euskal Herriko zonalde desberdinen artean: proportzionalki, Baxenabarrek eta Zuberoak osatzen dute eremu euskaldunena, populazioaren %50 osatzen duten 16.000 elebidun ingururekin. Euskaldunen kopuru nagusia, aldiz, Lapurdi barnealdean dago: 26.000 hiztun edo populazioaren %23 osatuz, lautik bat inguru. Bestetik, Baiona-Angelu-Biarritz hirigunean, BABn, 9.000 hiztun kontatzen dira, biztanleen %8 besterik ez.

Adinaren arabera, gazteetatik dator goraldia, elebidun gazteen kopurua handituz doa, eta proportzioak gora egiten jarraitzen du. 1996an, 16-24 urte bitarteko gazteen artean, hamarretik bakarrak zekien euskaraz, eta orain, bostetik batek daki.

Adin-talde gazteenean, 16-24 urte, euskaldunen kopuruak 25-34 tartekoan baino hiru puntu gehiago irabazi ditu, %19koa da 16-24 urteko tartean eta %16koa 25-34 adin taldean. Gorakada handiagoa da BAM eremuan (%1etik %9ra) eta Lapurdiko beste tokietan (%14tik %25era); Nafarroa Beherean eta Zuberoan ehunekoari eutsi diote (%34). Euskaraz ulertu behintzat egiten dutenak ere areagotzen ari dira gazteetan, eta erdaldun elebakarrak gutxiago dira. Gehiengo nagusia, halere: 24 urtetik behera, hirutik bik ez dute euskara ulertu ere egiten; 25-34 urterekin, lautik hiruk.

Bestetik, erdaldun elebakarren tasa ia 7 puntuz apaldu da adin-talde gazteenean. 2016an, 16-24 urteko gazte elebakarrak %67 ziren eta 25-34 urte artekoenak berriz, %74.

Adin taldeei erreparatuta, 65 urtetik gorakoek osatzen dute oraindik ere euskaldunen zati nagusia, euskaldunen %30 osatuz. Bestela esanda, Iparraldeko hiru euskaldunetik batek 65 urte baino gehiago ditu.

Euskaraz egiteko erraztasunari dagokionez, jaisten ari dela nabarmentzen da: orain hogeitau urte elebidunen heren bat euskaraz aritzen zen aiseago; beste heren bat, erdaraz; eta beste bat, bietan berdin. Orain, bostetik bat aritzen da errazago euskaraz, eta bostetik bi erdaraz.

Hizkuntza transmisioaren sendotzea

Familia bidezko edo etxeko transmisioaren sendotzea gertatzen ari dela baieztatu du VI. Inkestak. 3-15 urte bitarteko haurrak dituzten guraso euskaldunetan, transmisioa %86an ematen da, eta linguistikoki misto diren bikoteetan, gurasoetako bat denean euskalduna, transmisioa ahulagoa da, %16ak soilik transmititzen baitu. Hauen artean, mistoak diren eta 3-15 urte

bitarteko haurrak dituzten bikoteetan %54ak transmititzen du euskara. Azken inkestek erakusten dute euskal haurtzaindegiek eta eskolek ere funtsezko rol bat daukatela euskararen transmisioarentzako.

Euskararen erabilera, beherantz

Ezagutzaren eta gaitasun datuen bilakaera ikusirik, agerikoa da euskaldunen ehunekoa beherantz doala, eta norabide berean ari da euskararen erabilera ere.

16 urtetik gorako herritarren artean, Ipar Euskal Herriko biztanleen %8,1ek erabiltzen dute euskara erdara bezainbat edo gehiago. Proportzio horrek beherako joera darama azken urteetan: 1996an %13,3 mintzo ziren euskaraz maiztasunez. Adin talde batzuetan galera are handiagoa da, 65 urtetik gorakoetan adibidez, lautik bat aritu ohi zen usaian euskaraz duela hogeit hamar urte, eta orain, seitik bat ere ez; 50-64 urte bitartekoetan, %20tik %8ra apaldu da erabilera trinko hori.

Gazteetan dago, berriro ere, gorako zantzua, 16-24 urte bitartekoen %4 mintzo dira euskaraz erdaraz adina edo gehiago; 1996an %1 ziren. Baina azken inkestatik hona, erabilera datuak ez dira igo gazteen artean: 2011n baino ahulagoa da (%9,6koa zen) usaiazko edo ohiko erabilera⁹⁶, 16-24 urtekoen adin-taldean %5ekoa zen 2011n eta %4ko ohiko erabilera kontatu da 2016an. Noizbehinkako erabilera igo egin da oro har begiratuta: %15ak dio tarteka euskaraz aritzen dela, batez ere, 34 urtetik beherakoen artean agertzen da noizbehinkako erabilera.

Erabilerari lurraldeka begiratuta, BABn erabilera zinez apala da: %0,8 jarduten dira euskaraz erdaraz adina edo gehiago. Lapurdiko gainerako herrietan bistakoa da jaitsiera: %9koa da ohiko erabilera. 1996an %16 jardun ohi ziren euskaraz. Eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan, are nabarmenagoa da erabileraren apaltzea: orain dela hogeit hamar urte, herritarren ia erdiak aritzen ziren euskaraz, %46, eta, orain, laurdenak pasa %28. Datuek baieztatzen dute erdara huts-hutsezko bizimodua indartzen ari dela BABn, inkesta egindako hamarretik bederatzik diotenez, ez baitira sekula euskaraz aritzen. Lapurdiko gainerako herrietan lautik hiruk adierazi dute hori, eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ia erdiek.

Euskararen sustapenari buruzko aldeko jarrera lausoa

Ipar Euskal Herriko biztanleen %35ek diote erabilera bultzatzearen alde direla, eta %17k, berriz, kontra. Aldekotasuna zazpi puntu jaitsi da 1996tik, eta aurkakotasuna, aldiz, bost puntu handitu. Ez alde eta ez kontra direnek %47,5 osatzen dute 2016an. Zonalde batetik bestera alde handia dago jarrerari dagokionez, eta honek erakusten du euskararen ezagutzarekin lotua dagoela hau sustatzeari buruzko jarrera, hiru elebidunetik bi, elebidunen %67, daude erabilera bultzatzearen alde, eta elebidun hartzaileen %52, erdiak baino gehiago dira sustapenaren aldekoak.

⁹⁶ Usaiazko edo ohiko erabilera da euskara frantsesa baino gehiago edo hein berean erabiltzen delarik eta noizbehinkako erabilera euskara frantsesa baino gutxiago edo askoz gutxiago.

Jarrerren inguruan, biztanleen erdiak, %52k, uste du ezinbestekoa dela haurrek euskara ikas dezaten, eta herritarren erdiak, %51k uste du administrazioan sartzen direnek euskaraz jakin dezaten ere ezinbestekoa dela.

Irakaskuntza-ereduari dagokionez, murgiltze sistema nahi dutenak %19,2 dira (irakaskuntza euskaraz eta frantsesa ikasgai gisa), eta %40 irakaskuntza elebidunaren alde ageri da. Hortaz, orotara, ia %60k hautatuko luke euskarazko irakaskuntza eredu bat. 2011ko inkestan %53koa zen datu hau, beraz, zazpi puntuko igoera izan du datu honek bost urtean.

Emaizta itxaropentsuak Konfederazioarentzat

Euskal Konfederazioaren ustez⁹⁷, azken inkestak erakutsitako datuei begira, badira itxaropentsu izateko arrazoiak. Euskararen biziberritze prozesuan urrats asko egiteke egon arren, etorkizunari baikortasunez begiratzeko arrazoiak badirela nabarmendu zuen, eskura dauden neurri egokiak hartuz gero. Besteak beste, azken inkestan euskaldunen kopuruaren jaistea gelditu izana elementu pozgarria dela azpimarratu zuen, *“odoluste gelditze horrek frogatzen du fatalitaterik ez dela eta borondate politikoa erakusten segituz gero euskaldunen kopuruaren kurba gorantz tiratzen ahalko dela”*.

Eskola bidezko transmisioaren fruituak ageri dira datu horren atzean Konfederazioaren iritziz, eta beraz, honen sendotzea beharrezkoa dela nabarmentzen: *“gaur egun irakaskuntzan izaten diren trabak gaituz, hots ikastolak idekitzen eta garatzen lagunduz, eskola elebidunetan murgiltze ereduak garatuz eta eskaera logika batetik eskaintza orokorrera pasatuz, eta euskara maila zainduz, ez baita ahantzi behar euskaldun elebidun osoak direla ondoko belaunaldiei euskara transmititzeko gai izanen direnak”*.

Ehunekoari begiratuta, kanpotik Ipar Euskal Herrira etorritako jende kopuruaren eraginez, txikitu egin da, eta honi loturik, Jagon jardunaldian euskararen biharko erronkak aipatzean azpimarratu bezala, Euskal Konfederazioak berretsi zuen *“ezinbestekoa zela Plangintza oso bat martxan ezartzea kanpotik heldu direnak euskararen bidez integratzen lagundu eta euskarara erakartzeko, irakaskuntza eskaintza zabalagoa eginez, eremu publikoan euskaraz aritzeko espazioak biderkatuz, hedabideetan presentzia handiagoa segurtatuz, euskarazko kultur ekitaldiak emendatuz, euskarazko aisialdi gehiago proposatuz, helduentzat euskaraz ikasteko bideak errextuz, eta abar...”*.

Hizkuntza bat erabili ala ez erabili erabakitzeak mementoan faktore desberdinak egon badiren arren, Konfederazioaren ustez argi da euskararen erabilera bultzatzeko euskaraz aritzeko gune

⁹⁷ Euskal Konfederazioaren VI. Inkesta soziolinguistikoaren Ipar Euskal Herriko emaitza nagusien irakurketa, 2017-07-10: «Euskara osoki berreskuratzeko oraino anitz bada egiteko». Enbata aldizkaria. <http://www.enbata.info/articles/euskara-osoki-berreskuratzeko-oraino-anitz-bada-egiteko/>

gehiago garatzeko beharra: *“euskara ezin da bakarrik irakaskuntza, seinaleetika eta kultur arloetara mugatu, beste arloetan ere presentzia areagotu behar da, eremu publikoko administrazio eta zerbitzu publiko bezalako erakunde publikoetan besteak beste”*.

Hizkuntza-gaitasuna edo ezagutza handitzea zein erabilerari bultzada ematea dira Euskal Konfederazioaren ustez erronka nagusiak, eta zentzu honetan, berehalako plangintza bat martxan ezartzea ezinbestekotzat jo zuen, *“lehenbailehen Ipar Euskal Herria hizkuntz berreskurapenerako esperimentazio lurralde gisa onartuz”*. Hamarkadetan zehar hiztunen kopuruaren beherakada geldituta, kurba goranzko bidean jartzeko *“transmisioan indarrak egiten segitzea”* baitezpadakoa dela azpimarratu zuen Konfederazioak, *“azkenean hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko errextasunak emateak hizkuntza bera ikasteko eta erabiltzeko motibapena sendotuko baitu”*.

Jarrerei buruzko datuei lotuta, haurrek euskaraz ikastea ezinbestekoa dela uste dutenen kopurua %52 izateak urtez urte gelditu gabe emendatuz ari den haurren euskararen irakaskuntzaren hautua (bai murgiltze-ereduan zein eskola elebidunean ere) baieztatzen duela, eta bestetik, administrazioan sartzeko euskara jakin behar dela dion %51ak euskara arlo pribatuan zein publikoan garatzeko gizartearen nahia handia dela erakusten duela nabarmendu zuen Konfederazioak.

Euskal Elkargoaren sortzearekin hizkuntza politikaren panorama ere aldatu egin dela adierazi zuen Konfederazioak, *“aktore berri bat, EEP eta euskalgintzarekin batera euskararen berreskuratze prozesuan bere harria ekarri beharko duena”*.

VII. Kale-Neurketa

Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketa Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen (EKB) eskutik 1989an abiatu, eta 2001etik Soziolinguistika Klusterrak egiten duen ibilbide luzeko ikerketa lan zabala da. Kanean entzundako elkarrizketa informalak behatuz, hizkuntzen presentzia kuantifikatzen du ikerketak⁹⁸. Gaur egun, ezinbesteko erreferentzia da euskararen bizi-indarra ebaluatzeko, eta ikerketa honen zazpigarren edizioa da 2016an egindakoa⁹⁹.

Orotara, Euskal Herri osoko 144 udalerrri neurtu dira azken edizioan, eta 187.635 elkarrizketaren nahiz 515.260 solaskideren informazioa bildu da. Datu-bilketa zabalak aukera ematen du Euskal Herri mailako, lurraldeetako eta hiriburu-etako emaitzak ezagutzeko; baita adinaren, sexuaren eta haurren presentziaren eragina aztertzeko ere.

⁹⁸ Neurtzaileek, hiztunekin interferentziarik izan gabe, aurrez finkaturiko espazio eta uneetan entzuten diren elkarrizketen hizkuntza zein den jasotzen dute, solaskideen adina, sexua eta haurren parte-hartzearen informazioarekin batera.

⁹⁹ Soziolinguistika Klusterra (2016). Hizkuntzen erabileraren VII. Kale-Neurketa. Prentsa-txostena. Sarean eskuragarri: <http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- eu 1.pdf>

VII. Neurketako datuen arabera, 1997tik beheranzko joera etenik gabea da Ipar Euskal Herrian, eta inoizko erabilera-indizearik baxuena jaso da, %5,3koa hain zuzen ere.

Euskararen ezagutzari buruzko herriz herriko daturik ezean, inkesta soziolinguistikoak sailkatzen dituen hiru eremuak baliatu dira Ipar Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa hurbilagotik ezagutzeko: BAB, Lapurdi barnealdea eta Nafarroa-Beherea-Zuberoa.

Erabilerari dagokionez, neurketen emaitzek diote BABn, (%8ko elebidun kopurua) euskararen erabilera baxuena jaso dela, azken bost urteko 0,8 puntuko jaitsierarekin. Lapurdiko barnealdean (%25 elebidun) 3,3 puntuko jaitsiera izan du euskararen erabilerak eremu honetan azken bost urtean. Nafarroa Beherea-Zuberoa da (% 50eko elebidun kopurua) euskara gehien entzuten den eremua, eta duela bost urtetik hona kale erabileran igoera izan den eremu bakarra da. Horrela, neurketen emaitzen arabera ikusten da ezagutza gutxiagoko eremuetan euskararen erabilerak jaitsiera izan duela, eta ezagutza altueneko eremuan, berriz, euskararen erabilerak gora egin duela.

Maule eta Donibane Garazin nahikoa elkarrizketa behatu ez zirela eta, Baionakoak dira hiriburuetako euskararen kale-erabilerako datuak. 2016ko neurketaren arabera, apaldu egin da erabilera Baionan 2011tik hona, eta gaztelaniaren erabileraren bezainbestekoa da euskararen erabilera Lapurdiko hiriburuan.

Ipar Euskal Herrian gazteen erabilera adinekoen parekoa dela jasotzen du neurketak, eta nabarmentzekoa da haurren arteko erabilerak 2006tik datorren goranzko joerari eutsi diola, 1996. urtetik 2,5 puntuan igo izana erabilera-indizea. Gazteen eta helduen erabilerak bere horretan diraute 2001etik, eta adinekoen erabilerak behera egin du edizioz edizio.

Ipar Euskal Herrian, helduetan gizonezkoen erabilera emakumezkoena baino altuagoa bazen ere, 2016an joera aldaketa sumatu da, lehen aldiz emakumezkoek gehiago baitarabilte euskara.